

Lezoko euskararen azterketa

Euskara batuak finkatze bidean urrats aski sendoak eman dituen honetan, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak ere beren lekuaren bila hasiak dira. Horretarako, ordea, lehen-lehenik, eta kasu askotan beranduegi izan baino lehen, tokian-tokiko ondare aberats hori bildu eta txukun antzean ezagutzera eman beharra dago. Hori- xe da bere apalean liburu honen xedea, Lezoko berezko hizkera, berezko euskara bildu eta ezagutzera ematea. Jaizkibelpeko hiztun zorrotz eta argien ahotatik zuzen- zuzen hartutako esanak aurkituko dituzu lan honetan. Euskara Nafarroatik atera eta Gipuzkoan sartzeko prestatzen hasten den eremuko hizkera freskoa hain xuxen.

Lezoko euskararen azterketa

Joxe Luix Agirretxe | Imanol Esnaola

Joxe Luix Agirretxe | Imanol Esnaola

LEZOKO EUSKARAREN AZTERKETA



LEZOKO UNIBERTSITATEKO UDALA



Joxe Luix Agirretxe Mitxelena (*Lezo, 1969*)


Pasaia-Lezo Lizeoan egin zituen unibertsitatera bitarteko ikasketak. Ondoren Filologian lizentziatu zen (Deustuko Unibertsitatea, 1994). Oroitzene AEK Euskaltegiko kide sortzaile. Azken urte hauetan euskarazko hedabideen munduan murgildurik dabil, OTBren sortzaileetakoa, Orratz! aldizkariaren koordinatzailea, eta Oarsoaldeko euskara teknikaria da egun.

Imanol Esnaola Arbiza (*Lezo, 1971*)

Pasaia-Lezo Lizeoan ikasia batxilergoa bitartean. Ondoren filologian lizentziatua (1994) eta gaur egun gazte euskaldunen euskarari buruzko doktorego tesia egiten. Oroitzene AEK Euskaltegiko kide sortzaile. Azken urte hauetan soziolinguistika gaitan murgildurik dabil, besteak beste UEUko soziolinguistika sailean, BAT soziolinguistika aldizkarian eta SEI (Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen) elkartearen.



Lezoko euskararen azterketa



Lan hau Lezoko Emakume
Abertzale Batzako kide izan ziren
Lezoko emakume guziei eta haien seme-
alaba izanik gaur egun etxetik urrunegi
ditugun Ramon, Fanekas, Xabier, Jabi
eta Juanitori eskainia da.

Maita, maita nazazu gutxiago.

Goza, goza nazazu gehiago.

A. Duhalde. (1997)

Lezoko euskararen azterketa

Joxe Luix Agirretxe Mitxelena
Imanol Esnaola Arbiza



LEZOKO UNIBERTSITATEKO UDALA

Guztiz debekatuta dago liburu hau bere osoan edo zati batean erreproduzitzea, hala nola edozein sistema informatikotan edo bestelako almagaznamendu edo informazio-lorpenekotan sartzea eta edozein modutan edo dena-delako baliabide erabiliz transmititzea, baliabide hori elektronikoa, mekanikoa, fotokopia, grabazio nahiz bestelako metodozkoa izanda ere, Lezoko Unibertsitateko Udalaren alde zurretiko eta idatzizko baimenik gabe.

©Joxe Luix Agirretxe Mitxelena eta Imanol Esnaola Arbiza

©Azala eta diseinua: Txema Garzia Urbina - izU

©Argazkiak: Iñaki Berrio - Agustina Pontesta (bilduma)

©Lezoko Unibertsitateko Udala 2000

Lege gordailua: SS- 1446/2000

Inprimatzailea: Antza S.A.L., Lasarte-Oria

Aurkibidea

Hitzaurrea	9
SARRERA	11
LEZOREN KOKAPENA	17
1.- FONETIKA - FONOLOGIA	27
1.1.- Bokalak	29
Diptongoak	29
Beheranzko diptongoak	29
Goranzko diptongoak	30
Triptongoak	32
Bokalen arteko eragina	32
Asimilazioa	33
Disimilazioak	35
Metatesiak	37
Bokal gehitzeak	38
Bokal galera	39
Aferesiak	39
Sinkopa	39
Kontsonanteek eragindako bokal aldaketak	40
“Yod” eta “Wau”	42
1.2.- Kontsonanteak	43
1.2.1.- Kontsonanteak eta kontsonanteen kokapena	43
1.2.2.- Kontsonanteen erorketak	47
1.2.3.- Kontsonante bilketen inguruko bilakaerak	48
Sabaikaritzea (Automatikoa eta adierazkorra)	52
Asimilazioak	55
Metatesia	56
Alternantziak	56
Kontsonanteen galera	57
Kontsonanteen gehitzeak	60
2.- MORFOSINTAXIA	63
2.1.- Izen sintagma	65

2.1.1.- Izenaren morfologia	65
2.1.2.- Pertsona izenordainak	73
2.1.3.- Determinatzaileak	79
2.2.- Aditz sintagma	83
2.2.1.- Aditzaren morfologia	83
2.2.2.- Aditzondoak	114
2.3.- Sintaxia. Perpaus egiturak	117
2.3.1.- Lokailuak	117
2.3.2.- Juntagailuak	122
2.3.3.- Menderakuntza	124
3.- LEXIKOA	137
3.1.- Hitzen eratorpena	137
3.2.- Elkarketa	114
3.3.- Esapide eta lokuzio bilduma	145
3.4.- Hiztegi hautatua	147
4.- LEKUKOEN ZERRENDA ETA ETNOTESTUAK	163
4.1.- Lekuko en zerrenda	165
4.2.- Etnotestuak	165
Gregorio Arruti	167
Elena Garmendia	171
Fernando Legorburu	175
Nikomedes Pikabea	177
Kandi Salaberria	181
Erramun Salaberria Lopetegi	185
Pepita Salaberria	191
Rafael Agirre	197
Juan Joxe Zabaleta	201
Joxe Migel Treku	205
Xixili Pikabea eta Manoli Pikabea	209
Melintton Garmendia	215
5.- ONDORIOAK	219
6.- IKURREN ZERRENDA	225
7.- BIBLIOGRAFIA	231

H I T Z A U R R E A

Lezoar maite hori:

Hemen duzu herriko bi semek paperera ekarritako lan handi baten argazki ttiki bat. Ongi ulertu duzu, bai, argazki ttiki bat. Paperera ekarrita dezenteko neurria baldin badu ere, argazki ttiki bat besterik ez da, lan galant baten argazki ttiki bat.

Izan ere, handia, galanta, latza da gero mendez mende Lezo izeneko herri honetan bizi eta lan egin duten gizon eta emakumeek egin dutena. Elkarrekin jolastu, haserretu, lizunkeriak esan, lan egin, adarra jo eta beste hamaika betebeharrak asetzeko euskararen aldaera berezia sortzea lortu dute.

Gure lana argazki ttiki bat besterik ez da, beraz. Alegia, gaur egun urtetan aurrera eginda dauden lezoar zenbaiten hizkera hori jaso eta aztertzea. Hemen ez ditugu 60 urtetik gora izan eta Lezoko gurasoak zituzten lezoar guztien hitzak jaso. Batzuk aukeratu ditugu eta haiek utzitako arrastoari segi diogu.

Ez gara "harri bitxien" bila ibili, beraz, hemen ez dizugu erakutsiko non dagoen "Nilo ibaiaren iturria", ezta nahi ere! Orri hauen artean topatuko duzuna belaunaldi baten hizkeraren ezauzgarri nagusiak dira. Edo bestela esan, euskaldun sortu, euskaraz bizi eta euskaldun hiltzen ari den mende honetako lezoarren azken belaunaldiaren hizkera da.

Izan ere, belaunaldi hau izango da, seguruenik, bere eguneko bizitzarekin lotutako eginbehar guztiak euskara hutsean egiteko aukera izan duen azkena. Sarrionandiak idatzi zuena egia baldin bada ("Euskara da gure territorio libre bakarra"), hauek dira territorio horretan libre izatea sentitu duten azkenak, ez baitute erdararen laguntzarik behar izan inori adarra jotzeko edo maite-minaren astindurik gozoenak poesia bihurtzeko. Eta beharbada, horixe da, hauetako askok utzi diguten eredentziarik onena, libre izateko grina. (Joxe Miel Treku abertzale fina gogoan dugu hau esatean, berarekin izandako elkarrizketa luzeetan ez baitzuen aukerarik galtzen gure herriaren batasun eta askatasun beharraz mitina egiteko).

Azken hamarkada hauetan gure herriak bide luzea egin du. Luzea, gogorra eta emankorra izan baita. Euskararen batasuna

da, zalantzarik gabe, bide horren fruturik preziatuenetakoa. Gure hizkuntzak (beraz, gure Herriak) historian zehar, ukazioz ukazio, eman ezin izan duen jauzia egin dugu urte gutxitan. Mendebaldero gizarte bizitzak eskatzen duen estandarizazio eta formalizazio maila eman diogu euskarari, horretarako aldekoak gutxi eta kontrakoak gehiegi eta indartsuegiak izan baldin baditugu ere.

Euskara batu horrek, maila formalean erabiltzeko euskara horrek, era berean, izan du nondik indartu eta eraberritu: hezkuntza, euskarazko literatura, komunikabideak... izan ditu bere zerbitzura. Eta horren bitartez euskaldun denon belarri-buruetara iritsi da. Inork erabiltzen al du gaur egun "telebista" hitzaren orde besteren bat?

Eta Lezon zer? "*Telebistaren*" formaltasuna gureganatu dugun bitartean zer egin dugu tabernetan edaten genituen "baxoerdiekin" (ala "ardoak edan" esan behar ote dugu?) edo hurrei egiten genizkien "laztanekin" ("Kariñitos egitea" egokiago ote?). Alegia, zergatik utzi diogu eguneroko bizitzan lezoko hizkera erabili eta transmititzeari? Bistan da arrazoiak hamaika direla eta horien artean gure herriak bizirik iraun eta eguneratzeko behar dituen tresnak ukatzean dagoela gako nagusia.

Hemen jaso dugunak, ordea, ez du izan nahi gure negar malkoak isurtzeko argazki zaharren bilduma. Lanerako tresna izan nahi du. Zalantzarik gabe gure herria, euskal gizartea eta mundua bera izugarri aldatu dira urte gutxitan eta are azkarrago gertatuko dira aldaketak datozen urtetan. Baina 60ko hamarkada hartan hartutako bideari heldu behar zaio gogo biziz, ekin eta jarrai. Euskararen batasuna, ikastolak, kultur elkarteak eta beste hamaika ekimen.

Bide horretan piztu da tokiko euskara gorde eta transmititzeko grina, nork berearekin aberastea denon Euskararen Herria eta horretan lezoarrok ezin dugu atzean gelditu. Orain arte ez gara atzean gelditu izan (eskerrik asko Miren Gezala, eskerrik asko Emakumeoi) eta orain, honaino iritsi eta gero, orain bai ez garela bidean geldituko, gurea da etorkizuna!

Beraz, hemen dagoena erabiltzeko da. Herriko ikastetxeek badute zer ikasia eta zer irakatsia, Orratx! nahiz Lezon argitaratzen diren gainerako aldizkariak ere bai (Txerrimuñoren Zartako, alderdi politikoaren boletinak, udalaren bandoak, gizarte mugimenduen panfleto eta komunikatuak...). (Gure zorionik beroenak

Begoña Untzaini 2000ko Santakrutzean pregoian Lezoko hizkera horren bikain txertatzeagatik).

Ez genuke hitzaurre hau amaitu nahi Koldo Zuazo ikerlari prestu eta euskaltzale finak aurtengo Durangoko azokara eraman duen *Euskararen Sendabelarrak* (Alberdania argitaletxea, 2000. urtea) izeneko liburuan egiten dituen zenbait aipamen hitzez hitz hartu gabe:

Gaur egungo euskararen ikusten ditudan zenbait gaitz aipatu ditut atal honetan:

- a.- Marko hizkera*
- b.- Euskara sasiletratua*
- c.- Orotariko euskara*

Alde batera utzi ditut denetan gaitzik larrienak: erdararen eragina, eta erdara desberdin bi izana euskarari erasotzen diotenak. Ezbairik gabe, azken hauexek dira gaitzik arriskutsuenak, baina ezagunegiak ere badiera dagoeneko, hemen eta orain horien gainean jarduteko.

Euskararen gaitzei aurre egiteko ezinbestekoak ditugun hiru babesgarri zeharo alde batera utzi ditugula ere ekarri dut gogora:

- a.- sena garatzea*
- b.- norbere hizkeran konfiantza eta ziurtasuna sendotzea*
- c.- belaunaldien arteko bizkuntza lotura estutzea.*

(152-153. or)

Eta aurreraxeago honela dio:

Euskalkien alde banago, ez da harrokeriaz eta chauvinismoz ere. Ez da nire euskalkia denetan hoberena begitانتzen zaidalako. Ona da, bai, nire euskalkia; onena niretako, eta oso harro nago. Baina onena izanda ere, eta da besteak baino hobea. Ez hobea ez txarragoa; neure nortasuna, neure sena da, eta kitto!

Azken batez, beraz, euskararen alde nagoelako nago euskalkien alde, euskararen osasuna, euskararen kalitatea eta euskararen etorkizuna dagoelako jokoan.

(155. or)

Hona hemen, beraz, egindako lanaren frutua. Izango dira

hutsak, kaleak ere egingo genituen, baina egon ziur hurrengo partida jokatzeko prest gaudela, eta zu? Oraingoan buruz burukoa izan bada ere, hurrengoa *barrenetara* izango da, hasi beraz, prestatzen.

Ez genuke lan hau amaitu nahi lagutzen izan ditugun lezoar guztiei gure eskerrak eman gabe, lekuko izan zaretenoi, "enbajadore" lanak egin dituzuenoi, inork eskatu gabe elkarrizketa "bideratzen" laguntzaile izan zaituztegunoi... den-denoi. Ez genituzke ahantzi nahi Txillardegi eta Koldo Zuazo gure aldeko aukera egi-teagatik eta Lezoko Udala eman dizkigun erraztasunengatik.

Eskerrik asko.

JOXE LUIX AGIRRETXE ETA IMANOL ESNAOLA
Lezo, 2000. urteko abenduaren 9a.



Sarrera

LEZOKO EUSKARAREN
AZTERKETA



LANAREN ZERGATIAK

Aspaldikoa genuen honelako lan bat egiteko asmoa. Lan honek, ordea, ahalegin handia eskatzen zuen eta ezin izan genion merezi zuen moduan heldu. Lezoko euskararen azterketa eginbeharrekoen zerrendan beti azken lekuan gelditzen den horietakoa izan da guretzat. Nahi eta ezin horretan, ordea, ez gara geldirik egon, 1994an Lezoko hitanoaren azterketa xume bat egin eta ikastaro bat eman genuen, zenbait artikulua idatzi (Agirretxe (1993 eta 1994) "Hizkeraz mesedez" (I eta II). Lezo aldizkaria, 11 eta 13. Aleak) edo Orratx! aldizkariaren estilo ezaugarrietan txertatzeko ahaleginetan ari gara.

Denborak aurrera egin ahala, ordea, lan hori egiteko gogoari premia gorria lotu zaio. Izan ere, Lezoko hizkera aldaketa prozesu bortitzean murgildurik dagoela bistakoa da, inork galbidean dagoela ere esan dezake. Alegia, herritarrik zaharrenak gure artetik desagertzen doazen neurrian desagertzen ari dela.

Horrela esatea, ordea, ikuspegi laburrez begiratzea da. Bistan da zaharrak hiltzen direnean, haiekin batera garai bateko bizimodu eta esperientziak galtzen direla, haien eragina hor amaitzen al da, ordea? Ez al da belaunaldi batetik besterako transmisiorik gertatu, enborretik ez al dira kimu berriak sortu?

Galdera horri erantzutea erraza ez baldin bada ere, jar dezagun lehen lehenik ideia bat mahai gainean: hizkuntza bat bere herritarrei eta hauek bizi dituzten gorabeherei loturik garatzen da. Eta Lezoko herritarrok azken berrogei urte hauetan bizi izandakoa aztertzen baldin badugu, laster ikusiko dugu zenbatekoak izan diren aldaketak.

Batetik euskara zapaldua, zigortua eta heriotzera kondenatua

izan da inon diren indarrrik eraginkorrenekin, bere ondoan hizkuntza espainola loratua eta goratua izan da, euskaldun ezjakinon harrigarri. Eta geroztik ez da egoera aldatzeko behar besteko ahaleginik egin.

Bestetik, herriko bizimoduak erabateko aldaketa izan du. Lezo-arrak herrian lan egin eta bizimodua herrian egiteari utzi dio. Lana dela, ikasketak direla... batera eta bestera ibili gara, askotan herriarekin baino lotura estuagoak izan ditugu herrikoak ez ziren adiskideekin, gehienetan, bestalde, erdara izan da bizitza modernoan horrenbeste estimatzen ditugun ekintzetarako hizkuntza bakarra (lankideak, hedabideak, administrazioa...) eta gainera Lezoko herritar ia guztiak euskaldunak izatetik erdia baino gutxiago izatera pasa ginen (1960-1970), herria handitu egin zen, auzo eta lagun talde berriak sortu...

Beraz, nola ez da ba gure aiton-amonen hizkera hilzorian egongo belaunaldi berriok ez baldin badugu geure egin eta erabiltzeko premiarik izan?

Lan honekin gure asmoa, alta, galbidean dagoen Lezoko euskara jaso, aztertu eta belaunaldi berriei eskaintzeko urrats bat ematea izan da. Abiapuntua da eta ez helmuga; orain denon eskutan dago gure hizkera erabili eta indarrean jartzeko lana.

Ez dago esan beharrik azken helburu horrek ikerketa burutu dugunon ahalmena gaintitzen duela. Ezinbestekoa izango da, bada, udala, herriko hedabideek eta ikastetxeek gogoz eustea asmo honi, horretarako behar diren urratsak emanez.

METODOLOGIA

Ikerketa egiteko materiale gehiena herritarrei egindako grabaketan bidez jaso dugu. Herritarrak hautatzeko irizpideak honakoak izan dira:

- 65 urtetik gorakoak izatea.
- Herrian sortutako gurasoak izatea ahal delarik.
- Herrian sortu eta herrian bizitakoak izatea.
- Ezkontidea ere herrikoa izatea.
- Euskara estandararekin ahalik eta harreman ttikiena izana izatea.
- Buruz argi egotea.

—Berezko hortzadura izatea ahal delarik.

Horrezaz gain, beste bi irizpide ere erabili ditugu: sexua eta bizilekua (kalea ala baserrialdea).

Irizpide horiekin zenbait herritarri bere inguruan begiratu eta izenak proposatzeko eskaera egin genien.

Hortik jasotako izen guziak bildu eta egokienak hautaturik, beraiekin harremanetan jartzeko bitartekari egokiaren bila hasi ginen. Horrela eginez harreman naturalagoa lortu nahi genuen. Horrek jakina, lana atzeratzen zuen, baina emaitzak merezi izan duelakoan gaude.

Elkarrizketa egiteko orduan ez diegu esan gure asmoa haien euskara aztertzea zenik eta horren orde, garai bateko bizimodua eta haien bizitzari buruzko kontuak galdetu nahi genizkiela esanez ibili gara. Horrela, linguistikoki interesgarriak izateaz gain, antropologia eta historiarako interesgarriak diren materialak ere eskuratu ditugu, eta garrantzitsuena, Lezoko euskara bizi-bizi jasotzea lortu dugu.

Grabaketa gehienak lekukoak banaka hartuta egin baldin baditugu ere, bitan gutxienez bikoteak hartu ditugu. Kasu horretan emaitzak askoz ere hobekak izan dira, haien arteko elkarrizketa ere jaso baitugu, eta besteak beste Lezoko hitanoa.

Grabaketa bakoitza gutxienez ordu erdi ingurukoa egiten saiatu gara eta ondoren bakoitzari hogeita minutu transkribatu dizkiogu. Transkripzio horretan jasotakoa izan da azterketarako erabili dugun dokumentazioa ondoren hustuketa egiteko.

LANAREN EGITURA

Lanaren muina hiru multzo nagusitan banatu dugu: Fonetika-fonologia, morfosintaxia eta lexikoa.

Fonetika fonologiak bokal eta kontsonanteekin gertatzen diren fenomenoak biltzen ditu. Morfosintaxiak, berriz, izena, aditza eta sintaxiarekin loturikoak. Azkenik, lexikoak izenak eta hauen eratorpenari eta elkarketari dagozkionak.

Amaieran, azterketarako erabili ditugun zenbait testu, ondorio xume batzuk ikurren zerrenda eta bibliografia datoz.

Irakurleak aurkibidean topatuko du multzo nagusi bakoitzaren



Lezoren kokapena

LEZOKO EUSKARAREN
AZTERKETA



GEOGRAFIA

Lezoko udalerrria Gipuzkoako sortaldean kokaturik dago, eta honako udalerrriek inguratzen dute: Iparraldean; Pasaia. Sortaldean; Hondarribia eta Irun. Hegoaldean; Errenteria eta Oiartzun. Eta sartaldean, berriz, Pasaia. Sartaldean, halaber, Pasaiako badiako urak bustitzen du herria.

Udal-barrutiak 13 km²-ko hedadura du, eta perimetroak, berriz, 14.000 metro inguruko luzera du.

HISTORIA

Historiari ere begiradatxo bat egin beharko diogu bada gure herriari egiten ari gatzazkion hurbilpen-sarrera honetan. Xehetasun guziak emateak luze joko lukeenez, zertzelada batzuk baino ez ditugu emango hemen. Udalerrriaren historian mugarri izan diren gertaera edo garai behinenak aitatuko ditugu ideia bat izan dezagun.

Egun Lezoko Unibertsitatea dagoen lurretan historiaurrearen hondarrean, neolitiko garaian, artzain ibiltariak bizi ziren, euren artaldeekin larre batetik bestera ibiltzen zirenak. Gizatalde haien aztarna zenbait badira gure herrian; Barunga baserria zeneko lurretan aurkituriko harri landuzko aizkora eta Jaizkibel gaineko Ezkurin inguruko trikuharria esaterako.

Antzin Aroaz esan liteke aldaketa handirik gabe igaro zela, eta Lezon behin-betiko erroak finkatu zituen lehen gizataldea aurkitzeko X. mende aldera etorri behar dugu. Nafarroako erregeren agin-

dupeko Pedro de Vizcaya kapitainak Bizkaia auzoa sortu zuelarik.

“Item, dono vobis Guillelmmum de Lazon et socios suos, ut sint vestri vicini.”

(1203an Gaztelako Alfonso VIII.ak Hondarribiko Carta Pueblan Gillermo de Lazoni eginiko emariaren aipamena).

1203an Gaztelako Alfonso VIII.ak Hondarribia fundatu eta Guillermo de Lazón zalduna, gaskoi talde batekin, Lezora etorri zen bizitzera. Lezoandia etxea eraiki zuen hemen eta herriko bizitzari bultzada handia eman zion. Abeltzaintza eta laborantzaz gain, itsasoarekin lotutako lanbideak asko azkartu ziren. Garai honetan herriak nolabaiteko loraldi bat ezagutu zuela esan liteke; Santiagoko bidea, Gurutze Santua mariñelen patroii...

XVI. mendean, Lezok, itsas-eskubide bereziak zirela eta, merkataritzaren garapen handia bizi izan zuen. Bertako uzten eskasia orekatzeko, oinarrizko elikagaien hornidura ahalbidetu baitzuten eskubide hauek. Kaiaren garrantziari esker, herrian era guzietako itasgizonak bizi izan ziren merkatariez gain: mariñelak, pilotuak, kapitainak, arrantzaleak, baleazaleak, kortsarioak eta kanoilariak, besteak beste. Ezin ahantz dezakegu, halaber, 1597tik aurrera Bizkaia auzoko Lezoko Errege Ontzigintza ospetsua zurgin, itsasarotz eta errementari askoren irabazpide bilakatu zela.

XVII. mendeko krisi orokorraren ondotik, itsasoarekin loturiko jarduera gehienak ahultzen hasi ziren, eta gainbehera hau 1728an sortutako Caracaseko Errege Konpainia Gipuzkoarrak urte batzuek geldotu bazuen ere, XVIII. mendearen bukaerarako ia itsasgizon guziak baxurako arrantzaleak ziren. Geroztik jarduera honek bere horretan zertxobait eutsi zion, baina nekazaritza izan zen ondoko urteetan nagusi.

XVIII. mendearen bukaera aldera gabezia garaia etorri zen herrira. Lezoren egoera ekonomiko eta soziala oso lardaskatu zen. Konbentzioko Gerran (1793-1795) eta Independentzia Gerran (1808-1814) Frantziako gudarosteak eginiko txikizio eta gehiegikeriek herria egoera tamalgarrian utzi zuten. Honi, 1795, 1816 eta 1817an itsasoan gertaturiko ezbeharrak gehitu zitzaizkion, umezurtz eta alargun andana utziz.

XIX. mendearen lehenengo heren honetan lortu zuen Lezok udalerrri izaera.

XIX. mendearen bigarren erdian, Karlistaden ondotik, industria-

lizazioaren lehenengo zantzuak agertzen hasi ziren zenbait lantegi eraikitzearekin; Arizbakarreko sutauts fabrika eta “La Mercedes” teilagintza mekanikoa. Industriaren garapenarekin arrantzaren gain-behera etorri zen, ordea, eta XX. mende hasieran arrantza lanbide zuten herritarrak bakan batzuk besterik ez ziren. Herriko fabriketan nahiz Errenteriakoetan lan egiten zutenak, berriz, ehundik goiti ziren.

XX. mendearen erdialdean, Francoren diktadurapean, industriaren garapen handi eta azkarrak etorkin ugari ekarri zuen gure herri-herria. Gertaera honek eragin handia izan zuen herriaren kulturean, hirigintzan, gizartean eta hizkuntzan. Herriko biztanleriaren gehiengoak jatorri erdaldunekoa bihurtzeak euskara galbidean jarri zuen.

SOZIOLINGUISTIKA

Historian barrena Lezoren erabateko euskalduntasuna aipatzen duten datu gehiegi ez baldin badago ere, daudenak arrunt argiak dira. Adibide tiki bat ematearren honela dio Lezo eta Irungo idazkariak: “Idioma que común y ordinariamente se usa en ambos pueblos es el natibo y bulgar bascongado (...) por ser la primera y unica lengua que generalmente se usa y aprende” (Jimeno Jurio (1997) Navarra, historia del euskera. Tafalla, Txalaparta. 181-3. Or.)

Ez dago, ordea, historiaren garai ilunetan ibili beharrik. Gerrareko eta gerra ondoko Lezo ezagutu dutenek zalantza izpirik gabe adierazten dute Lezo mende honen lehen erdia bukatu arte zeharo euskalduna zela. Alegia, Lezoko herria euskaraz bizi zen.

Honek ez du esan nahi, noski, gure artean ez zenik bizi euskaraz ez zekienik. Indarberritzen hasia zen industriak erakarrita (Espainiatik etorritako eskulangileak) edo estatuak bidalitako funtzionarioak (Guardia Zibilak, trenbideko langileak, irakasleak...) ziren multzo hori osatzen zutenak (1940an % 4). Multzo horretan, ordea, bi ezauzgarri aipatu behar dira: 1.- Lezon egiten zuten egonaldia laburra izaten zela. 2.- Lezon egonaldi luzea egiten zutenak euskaldundu egiten zirela herriko hizkuntz joeraren eraginez.

Frankismoak euskara eta Euskal Herria akabatzeke asmoak euskalduntasuna betirako zapuztea izan zuen helburu, eta tresna ugari erabili zuen horretarako: Euskara legez debekatu zuen ikas-

tetxeetan, kalean mintzatzea zigortu... Garai gogor horietan Lezok euskalduntasunari eutsi baldin bazion ere, galtzen hasia zen kaleko lehtasuna. Hiru elementu dira gertaera honetan aipatu beharrekoak: 1.- Euskaraz mintzatzea arrisku gertatzen hasi zen; 2.- Industrializazio aro berriarekin (1955-1975) etorkin ugari hartu zuen Lezok (eta Euskal Herri osoak), honek hankaz gora jarri zuen Euskal Herriko errealitate soziologikoa, kulturala eta linguistikoa (Lezon 1970ean %21 ziren Espainiatik etorritako etorkinak). 3.- Oparotasun ekonomikoaren garaia zen, Frankismoak modernotasunari ateak ireki zizkion eta euskaldunen eskura kultur unibertso berri bat jarri zen: telebista, irratia, automobila, musika joera berriak... dena erdaraz, jakina.

Gertaera honekin, jokaldi gaizto bat eginez euskara euskaldunontzat atzerapenaren hizkuntza izatera pasa zen. Modernotasuna erdaraz mintzo zen, atzerapena euskaraz.

Beraz, hogei urtetan Lezon euskaldun kopurua erdira jaitsi zen (1981ean % 42,3). Aldaketa honetatik, ordea, ondorio mamitsuago bat atera behar da, Lezoko eguneroko bizimoduan euskara harreman guzietarako balio zuen hizkuntza izatetik harreman batzuetarako bakarrik balio izatera pasa zen, eta aldiz, erdara bihurtu zen harreman guzietarako balio zuena, hizkuntza "seguroa". Euskara bazterrean gelditu zen.

Franco hil zen garaian euskara atzeraka zihoan Lezon. Poliki-poliki, ordea, ikastolaren sorrerarekin, hainbat herritar eta elkarteren eraginez gainbehera hau eten egin zen.

Xehetasun handiegitan sartu gabe, Lezon euskararen ezagutzak poliki-poliki gora egin duela nabarmena da: 1981ean elebidunak (euskaraz mintzatzeko gai zirenak) % 42,3 ziren, elebakarrak, berriz, % 34,9, euskara menderatzeko bidean zirenak, aldiz, % 21,8. Hamabi urte beranduago (1993) egindako erroldan, berriz, elebidunak % 54,5 ziren (+ %11,3), erdal elebakarrak % 24,8 (- % 10,1), eta euskara menderatzeko bidean zirenak % 20,7 (- %1,1). Datu hauek, Siadecok dioen bezala, "Lezoko Hizkuntz Komunitatea euskalduntze prozesu moderatu baina iraunkor batean sarturik" dagoela adierazten digute (Siadeco (1994) Lezoko herritarrak eta euskararen ezagupena, iritziak eta jarrerak. 5. Or.). Igoera hori, ordea, haur eta gatzetxoan artean gertatu da, horiek dira euskara ikasi dutenak, ez, ordea, helduak. Helduek, baita elebidunek ere, erdarazko erdua ematen diete belaunaldi gazteenei. Horretarako erabilera datuak

ikustea besterik ez dago.

1992 eta 1997ko datuak alderatuz, 1992an % 32,7 zen Lezon euskaraz aritzen zen lezoar kopurua, 1997an, berriz, % 34,7, alegia, bost urtetan bi puntuko igoera. Adin taldeka joera zein izan den begiratzin baldin badugu, berriz, goranzko joera kasu guzietan oso apala dela ikusiko dugu. Alegia, haurrak gazte izatera pasatzen direnean, euskaraz hitz egiteko gai direnak gehiago izan arren, ez dutela euskaraz aritzeko joera hartzen, gazte eta helduen munduan ohikoa erdaraz aritzea baita. Euskaraz hitz egiteko gai izan arren, arau sozialak erdarara bultzatzen ditu.

Dena den, Lezon zenbat euskaldun dagoen eta zenbat euskara erabiltzen den aztertuz, ondorio argi bat aterako dugu, Lezon euskaraz hitz egiteko gai diren gehienek euskaraz egiten dutela. Euskarari fideltasun handiz eusten zaio.

Ez genuke atal hau amaitu behar gure gaiari dagokion aipamen bat egin gabe. Historian zehar lezoarrak etxean euskaldundu izan dira eta etxeko euskaraz mintzatu izan dira. Azken hogeitau urteotan, ordea, lezoar askok etxean ez du euskararik ezagutu, eskola izan da euskaldundu dituen, beste batzuk, berriz, gurasoak gure inguruko eskualde euskaldunetatik etorriak izaki, etxean ez dute lezoko euskararik ikasi eta eskolan, berriz, euskara estandarra. Eskolatik kanpo, lehen ez bezala, erdara da nagusi. Beraz, etorkizunari begira hemen aztertzen dugun euskararen iraupenaz mintzatzerakoan eragile hauek guziak izan behar ditugu kontuan.

HIZKUNTZA

Eskuartean dugun lan honen ardatza hizkuntza, edo zehatzago esatearren, hizkera izanik, hurbil gakizkion beroni, eta ikus ditzagun, labur bada ere, Lezoko hizkeraz orain arte idatzi direnak.

L.L. Bonaparte printzeak Lezoko hizkera Iparraldeko Goi-nafarreraren Irungo azpieuskalkian kokatu zuen bere sailkapenean.

Euskalkiak era batera edo bestera aztertu dituzten ondorengo ikerlari gehienak ere uste berekoak dira, edo ez dute behintzat sailkapen hori zalantzan jarri. R. M^a de Azkuek adibidez, bere Diccionario vasco-español-francésoko sarreran, laburduren aurkibidean, euskalkien sailkapen bat egin zuen eta euskalki bakoi-

tzeko herrien zerrenda ere eman zuen. Goi-nafarrerari dagokion zerrendan L letrara iritsiz honako herrion izenak agertzen dira: Labayen, Lakuntze, Larraun, Latasa, Leiza, Lekunberri, Lezaka(sic), eta Lezo. Beraz, garbi dago Azkueren aburuz Lezoko hizkera goi-nafarreraren aldaera bat dela.

Pedro de Yrizar ere ez da Bonaparteren sailkapenetik gehiegi urruntzen. Hala, Iparraldeko Goi-nafarreraren aditz laguntzailea azalduz argitaratu zituen liburukietako bigarreanean, “Subvariedad de Rentería-Lezo aipatzen du”. Beraz, gure herria Errenteriarekin bateratzen du, bere ustez bi hizkeron arteko aldeak oso tikiak direlako, eta Irungo azpieuskalkiaren barnean sartu zituen. Yrizar, esan bezala, Bonaparteren sailkapenean oinarritzen da bere lanak egitean, baina Koldo Mitxelena errenteriarrekin bat etorritzat puntu batean ez zen ados sailkapen honekin. Alegia, Bonaparte printzeak Errenteriako hizkera gipuzkeraren barnean kokatu zuen, eta Lezokoa, berriz, goi-nafarreran. Mitxelena ustez, ordea, Lezoko eta Errenteriako hizkeren artean ez dago apenas alderik eta goi-nafarreraren baitakotzat hartu zituen biak, azpialdaera berean bilduta gainera. Yrizarrek ere hausnarketa bera egiten du, eta ondorioz, bi herrietako hizkerak batean bildu eta nafartzat hartu zituen.

Koldo Mitxelena:

“Aunque esto no coincide con el mapa de Bonaparte, se puede afirmar que no hay diferencia práctica entre las hablas de Lezo y de Rentería. Por una serie de rasgos (palatalizaciones, conjugación, léxico) van con Oyarzun y el dominio alto-navarro vecino: la divisoria está entre Lezo y Pasajes de San Juan, que va con San Sebastián y, por supuesto, con Pasajes de San Pedro, claramente guipuzcoanos de lengua. No ocurre así con el acento, punto en el que Lezo y Rentería coinciden con San Sebastián y se apartan de Oyarzun.”. (Fonética Histórica Vasca, 1977, 576. or.)

Pedro de Yrizar:

“Esta subvariedad comprende íntegros los municipios de Rentería y Lezo, de los que seguidamente indicamos el número de vascófonos en 1970, según nuestra evaluación de aquella época:

Rentería—7.665 vascófonos

Lezo—2.500 vascófonos

De acuerdo con estos datos, la subvariedad de Rentería-Lezo contaba, en 1970, con unos 10.170 vascófonos, en números redondos.

La conjugación de los verbos auxiliares es fundamentalmente la misma en ambos pueblos, como puede apreciarse mediante la comparación de las formas verbales consignadas en los “Cuadros correspondientes”. (Morfología del verbo auxiliar alto-navarro septentrional II. liburukia, 1992, 521. or.)

Gaurko egunetara etorritz, Koldo Zuazo ikerlari apartak Bonaparteren sailkapena zalantzan jarri berri du. Agian, egokiagoa da eguneratu egin duela esatea, izan ere, Bonapartek sailkapen hura egin zuenetik mendea ederki joana da, eta denbora horretan aldaketa asko eta handiak gertatu dira euskararen historian, hedadura geografikoan, status juridikoan eta gizarte prestigioan, batzuk onerako eta beste batzuk txarrerako inondik ere. Koldo Zuazok sailkapen arras diferentea egin du, Bonaparteren 74 ezaugarri edo neurgarriak 92ra pasatuz. Hala, 5 euskalki bereizi ditu, gure herrikoa erdialdekoa deitzen duen horretan kokatuz.

Honek ez du esan nahi, ordea, Bonaparteren irizpideak okerrak zirenik, baizik eta K. Zuazoren ustez, gutxi zirela eta batzuk desgokiak. Honi guziari arestian aipatu dugun aldaketa edo eragile diakronikoa ere gehitu behar zaiolarik, jakina.

Kontuak kontu, orain arte herriko hizkeraz honakoa bezain lan zabal eta sakonik egin gabe zegoen, eta gauzak bere tokian jartze-ko lagungarri gerta bekie ondolik datozkeen euskalariei. Hala biz.



Fonetika-fonologia

LEZOKO EUSKARAREN
AZTERKETA



BOKALAK

Lezoko bokal sistemak bost bokal ditu /i/, /e/, /a/, /o/, /u/. Bokal hauek hitzaren baitan edozein posiziotan agertzen dira; hitzaren hasieran, barnean nahiz bukaeran.

Adibideak:

	<i>Hasieran</i>	<i>Barnean</i>	<i>Bukaeran</i>
/i/	igeri izena ikuttu	pirrilla korrika	josi sabaldi
/e/	eskola egurra	aserre ereki	luse jende
/a/	ariya ayeka	karramarro ikaragarriya	arropa maixtra
/o/	oan oliyo	kalloka apropos	soto beso
/u/	urte ura	ttunttuna sekulan	saldu attu seguru

Fonema hauek, ordea, katea mintzatuko gainerako hotsei loturik ahoskatzen ditugu gehienetan, eta jakina, euren artean loturik ere bai. Ondoko ataltxoan bokalen arteko konbinaketaz eta elkarrreraginaz ariko gara, elkarreraginetik sortutako fenomenoek, hobeto esanda.

DIPTONGOAK

Silaba berean bi bokal elkarren segidan ahoskatzeari diptongoa esaten zaio. Diptongoak bi eratakoak izan daitezke: beheranzkoak eta goranzkoak. Gainera, goranzko ala beheranzko izateaz landa, berezkoak nahiz kontsonante baten galeraren ondorioz sorturikoak bereizi ohi dira.

Beheranzko diptongoak

Beheranzko diptongoak dira ugarietak euskaraz, eta jakina, Lezon ere gauza bera gertatzen da. Diptongoaren lehenengo

bokala bigarrena baino irekiagoa denean, beheranzko diptongoa dela esango dugu:

	<i>Hasieran</i>	<i>Barnean</i>	<i>Bukaeran</i>
ai [ai]	jaitan aittu aimbeste		bestiai etzait nonai
ei [ei]	seittuan eisa		exei besteik saardotei makinei amasei
oi [oi]	oinbeste oitan		porroi kamioi
au [au]	aundiya auntzo ausko	isautu	amalau ganau
eu [eu]	euskalduna eunero deuse	emateuten	eyeu usteut
ui [wi]	muittu gui	iruittu	

Goranzko diptongoak

Diptongoaren lehenengo bokala bigarrena baino itxiagoa dutenak dira goranzko diptongoak. Jaso ditugun adibide gehienak maileguzko hitzak dira, euskaraz, lehen esan bezala, beheranzkoak baitira gailen.

ia [ja]	ikustiangatik
ie [je]	fiestak nieken
io [jo]	dio > yo
ua [wa]	juan sanjuandarrak eguardiya uan

ue [we]	puesto gue bueno kuetia
iu [ju]	siun

Diptongoen soilketa

ai > a:

orain > oain¹ > oan /oañ
naiz > nas
haiz > (y)as

ai > i

baina > baiño > biño /miño(n)

ai > ei > e

Jaitsi > jeitsi > jetxi

au > a

dauka > daka
nauzu > nasu
naun/k > nan/k
eseraulkia > exeyalkiya
aurpegi > arpegi
naukan > nakan

ei > i

behintzat > beintzat > bintzat / mintzat²
behinik behin > *beinipein > biñipin /miñipin³
edozein > eosin⁴
begiratu > beitu⁵ > bitu

ui > u

Kontsonante horzkari ahoskabearen aurrean ia sistematikoki gertatzen da fenomeno hau. Hala

¹ Ikus kontsonante galerak

² Ikus kontsonanteen aldaketen atalean asimilazioak

³ Ikus kontsonanteen aldaketen atalean asimilazioak

⁴ Ikus kontsonante galerak

⁵ Ikus kontsonante galerak

ere, kasu honetan inguramendua sabaikaritua egoteak ere zeresan handia du.

muittu > muttu

iruitu > iruittu > iruttu

Gaintxurizketa > Gantxuisketa > Gantxuxketa⁶

ua > u

juan > jun

ie > i

soziedadea > sosidadia

ia > a

guardiazibila > guardasibilla

TRIPTONGOAK

zeauei < zera hauei

uain < orain

⁷imbiait < egin behar diat

BOKALEN ARTEKO ERAGINA

Bokal batek ondoan, hitz berean nahiz katea mintzatuan, inguruan duen beste bokal bat alda dezake. Bokalen arteko elkarreagina oso fenomeno arrunta da Lezoko hizkeran. Batak besteari bere ezaugarriak kutsatzen dizkionean, asimilazioa gertatu dela esango dugu eta alderantzizko fenomeno gertatzen denean, bokal bat beste baten ezaugarrietatik aldentzen denean, alegia, disimilazioa gertatu dela esango dugu.

⁶ Ikus bustidurari buruzko azalpena

⁷ Egin behar diat > (egin > ein > in) (Behar > bear > biar) (diat > dit) > in biar dit > imbiait (-rd- multzoa galdu egiten da)

Asimilazioa

Asimilazioa, esan bezala, bokal batek besteari bere ezaugarriak kutsatzea da, baina kutsatze horrek bi maila baditu gutxienez; ezaugarri batzuk bakarrik kutsatuz asimilazio partziala eragitea, edo ezaugarri guztiak kutsatuz, bokal batek bestea bereganatzea erabateko asimilazioa gertatuz.

Asimilazioa eragiten duen bokala hitzaren barneko posizioan aurrekoa bada, asimilazio aurrerakaria gertatu dela esango dugu eta asimilazioa eragin duen bokala atzekoa bada, berriz, asimilazio atzerakaria.

Asimilazio aurrerakariak

o-u > o-o

soinu > soñu > soño

e-a > e-e

eraman > *ereman > *eeman > eman
herramienta⁸ > *erraminta > erreminta
bezala > bezela

i-e-i > i-i-i

ireki > iriki
ihesi > iesi > iïsi

a-e-a > a-a-a > a-a

atera > *atara > *ataa > ata

o-e > o-o > o

hirurogeita hamar > irurogeitamar > *irurogoitamar > *irurooitamar > iru(r)oitamar

o-e > o-o

Torrejil > Torrojil

o-u > o-o

komuna > komona

u-e > u-u

Hurrengo > urrungo

i-a > i-i

ikaragarri > ike(r)agarri > ikia(a)rri (?)

o-a > o-o

horrelako > olako⁹ > oloko

⁸ Gaztelaniatik mailegatutako hitza da.

⁹ Sinkopa: horrelako > orlako > olako.

Asimilazio atzerakariak

e-i > i-i

Cecilia > *Xexili > Xixili
 lehendabizi > lehenbizi¹⁰ > lembisi > limbisi
 perrilla > pirrilla

o-u > u-u

oihuka > ojuka > ujuka
 komuna > kumuna

i-e > e-e

ireki > ereki

e-o > o-o

txekor > txokor
 herdoila /erdoya/ > ordoya

o-e > e-e

omen > (e)men
 ote > ete

e-u > i-u

eduki > iruki

a-o>ao>oo>o

nago > *nao > *noo > no
 beherago > *berao > *beroo > bero

e-o>eo>oo>o

edo > eo > o

Bestalde, bi bokal berdin elkarren segidan gertatzen direnean, h ren galeraren ondorioz batez ere, asimilazio sistematikoa gertatzen da soilduz. Bokal bikoitzak edo geminatuak oso gutxitan erabiltzen dira Lezon, joera nagusia asimilazioa da kasu honetan.

zahar > sar
 behera > bera
 ohol > ol

Bi bokal ezberdin elkarren segidan gertatzen direnean, berriz, asimilazioa da joera nagusia gure herrian.

nuen > nun

¹⁰ Sinkopa baten ondorioz a galdu da eta horren ondotik d galtzen da: lehendabizi > leen (d)(a)bizi.

zenituen>senittun
 alleatu>allatu

Gaintxurizketa goikoan bildutako beste adibide hauek ere bide beretik doaz:

orduan>ordun
 batean>batian>batin
 joan>jon
 zenean>senian>senin
 kantuan>kantun

Katea mintzatuan gertatzen diren asimilazioak

Lehen ere esan dugu hitza ez dela asimilazioentzako muga, hiztunaren jarduna jarraia izaten denez, katea moduko bat eratzen da ahoskatzerakoan hitzak elkarri lotuz. Era honetako asimilazioak ikusiko ditugu segidan.

Makina hura > makinua
 Zera horiek > seoik
 Ohitura horiek > oitturoik
 Eta horrelako > tolako¹¹
 Malda horretan > maldortan
 Ideia hori > idea ori > ideoi
 pixa egitera > pixa ittea > pixittea

Disimilazioa

Bi bokal elkarrengandik hurbil edo segidan gertatutakoan, lehenengo bigarrenaren ezaugarrietatik aldentzeari disimilazioa esaten zaio. Lehenengoak ixteko joera izan ohi du horrelakoetan. Gertaera fonetiko hau hitzaren baitan edo katea mintzatuan gerta daiteke, hitz baten bukaerako eta beste baten hasierako bokalen artean, alegia.

ea > ia

ordea / ordean > ordia(n)
 gerratea > gerratia
 erakusten > eakusten > iakusten

¹¹ eta > ta bilakaera oso arrunta da.

paseatzen > pasiatzen
 sehaska > seaska > siaska
 behar > bear > biar
 luzeagoak > lusiaguak
 etxea > itxia
 behe hartan > bee artan > biartan
 hogeita bostean > ogeitabostian

oa > ua

jaioa > jayua
 joan > juan
 sotoan > sotuan
 gogoratu > goatu > guatu
 Xaguanekoa > Xaguanekua
 baraderoak > baraderuak
 orain > oain > uaiñ
 kolkoan > kolkuan
 almoadak > almuadak
 ia itoan > iya ittuan
 Kaittako hark > Kaittakuarrek¹²
 oraingo hauek > oainguabek¹³

eo > io

pare horretan > pare orretan > pariortan
 etxe horrek > itxiorrek
 gehixeago > *geixeo > *geixeo > geixio
 trebexeago > *trebexeo > *trebexeo > trebexio
 ez zagoan / ez zegoken¹⁴ > etzeoken > etzioken
 zeudenan / zegoztenan > seostenen > siostenen

oe > ue

cohete (gazt.) > kuete

oo > uo

lehenago > *leenao > leno / *lenoago > *lenoao >
 *lenoo > lenuo
 Kaittako horren > Kaittakuorren
 Honantzago > *onuntzao > onuntzo / *onuntzo-

¹² Arrek (Hark) euskalki mailako aldaera da.

¹³ Ikus yod eta wau-ri buruz mintzo den atala.

¹⁴ Lehen forma batuarena da, bigarrena, berriz, euskalkiarena eta hortik abiatzen da bilakaera.

	ago > *onuntzoao > *onuntzoo > onuntzuo
	Gaiztoago > *gaxtuao > gaxtuo / *gaxtuogoa > gaxtuogua
	Zerako horretan > seako ortan ¹⁵ > seakuortan
ui > oi	
	eskubitan > eskuitan > eskoitan
oi > ui	
	movimiento (gazt.) > moimentua > muimentua
	moitzeko > muitzeko
eo-iu	
	paseoan > pasiuan
ai > ei	
	maquinaria (gazt.) > makinaria > makinai > makinei
	nahikoa > naikua > neikua
	pasarik > paseik
	apaiza > apaisa > apeisa
eu > iu	
	esne hura > esniua
oa > ue	
	nindoala / nijoala > nijuela
ia > ie	
	zidaken > ziaken > zieken
ee > ie	(Ez da oso disimilazio arrunta Lezon, gehienetan
bi bokal horiek elkarren ondoan gertatzen direnean soiltzeko joera	
da nagusi: ee > e.)	
	fraileeta > frailieta
	urteetan > urtietan
oe > oi	
	honenbeste > *oembeste > oimbeste

Metatesiak

Ez da oso fenomeno ugaria Lezoko hizkeran baina dauden adibide apurrak oso arruntak eta sendoak dira.

¹⁵ Horretan > ortan: e sinkopaz galdu da

esaten dizut > *esatenizut > esateintzut
 eman dizut > *emanizut > emaintzut
 egiten dute > *egitenute > *ittenute > itteunte
 eman al dizu > *emanalizu > emanailtzu
 Intxaurrendieta > Intxarraundieta

Bokal gehitzeak

Bokala gehitzen den posizioaren arabera, protesia; hitz hasieran bokala gehitzea, epentesia; hitzaren barnean gehitzea, eta parago-gea; hitz bukaeran gehitzea, bereizten dira. Lezon bokal gehitze ugariena, bakarra ez esatearren, protesia da.

Protesia kasurik gehienetan “rr” dardarkari gogorrez hasten diren hitzetan aurkituko dugu, maileguzko hitzak denak ere. Dirudienez, ordea, mailegu berrietan protesirik ez da ageri eta joera zaharra dela dirudi dardarkari gogorrez hasitako hitzei bokal protetikoa jartzearena. Dardarkari gogorraren aurrean aurkitu ditugun bokalak “a”, “e” eta “i” dira.

arropa
 arroka
 erremeyo
 errelebotan
 errosayua
 erresatu
 irriyua
 erretiratu
 errepike
 errabi
 erresua

Baina;

ronda
 reja
 reketia
 republika
 reuniyua
 rekisatu
 refujiyua
 Rusia

Bada Lezon gainera herskari belare ahoskabez hasitako hitz bat maiz aski "e" bokal protetikoz erabiltzen dena eta sendotasun handi xamarrez gainera.

ekendu

Bokal galera

Bokal galerak, gehitzeak bezalaxe, hitzaren hasieran, barnean, nahiz bukaeran gerta daitezke, eta posizioaren arabera izen ezberdina hartzen dute: hitz hasierako galera aferesia da, barnekoa sinkopa eta bukaerakoa apokopea.

Aferesiak

Nahikoa gertaera arrunta dela esan dezakegu. Dena den, kasu batzuetan bereziki arrunta eta sendoa da fenomeno hau, eta bestetan hiztunaren arabera, gertatzen da, edo ez da gertatzen. Solas ari nari lotua dago fenomeno hau eta neurri batean solaskideen arteko harremanari ere bai, erregistro kolokialean gertatzen da gehien.

etorri > torri

eman > man

ekarri > karri

ikusi > kusi

omen > men

ote > te

izandu > zandu

eraman > eaman > aman

erakutsi > eakutzi > akutzi

egoten > eoten > oten

ere > re / de

eta > ta

itzan/k > *itzin/k > tzin/k

ezan/k > san/k

ezagutu > sautu

emakume > makume

Sinkopa

Ez da aurrekoa bezain fenomeno arrunta baina adibidie jakin batzuetan arrunt sendoa da gertaera hau ere.

pasatzen > pasten
 pezeta > pesta
 inportatzen > importzen
 begiratu > beitu
 gañetik > gaintik
 botatzen > botzen
 honetan > ontan
 horretan > ortan
 gehienak > geinak
 edukiko > eukiko > euko
 ikusiko > (i)kusko
 etorriko > (e)torko
 ibiliko > (i)bilko
 jarriko > jarko
 zeuzkan / *zaukazkin > sauskin

Apokoperik ez dugu jaso Lezon, baina “a” itsatsiaren galera gertaera aski zabaldua denez, galera berexi batzuk aurkitu ditugu.
 erremolatx
 dotrin

KONTSONANTEEK ERAGINDAKO BOKAL ALDAKETAK

Kontsonante batzuek inguruan duten bokala aldatzeko ahalmena dute eta kontsonante horien ezaugarrien arabera, bokalak itxi edo ireki egiten dira.

Irekierak

Lezon aurkitu ditugun kontsonanteek eragindako irekierak dardarkariak eta albokariak eragindakoak dira. Ez dugu adibide asko jaso, izan ere, gutxi dira, nahiz maiz agertu.

Dardarkariak eragindako irekierak

e > a

ederra > earra
 eguerdia > eguardiya

eguberriak > eguarriyak
 entierroa > entiarrua
 baserria > basarriya
 i > e
 amabirjina > amaberjiñ

Albokariak eragindako irekierak

e > a
 elkarrekin > alkarrekin

Hersketak

Kontsonante txistukari, sudurkari eta herskari belare ahoskabeak itxiarazten dituzte bokalak.

Txistukariak eragindako hersketak

a > e
 jaitsi > jatxi > jetxi
 e > i
 maestra (gazt.) > maistra > maixtra
 etxe > itxe
 etxekoandre > itxekoandre
 ezagutu > isautu
 pesar (gazt.) > pisatu > pixatu
 esquina (gazt.) > ixkiña
 estua > ixtua

Sudurkariak eragindako hersketak

embudo (gazt.) > imbutu
 gainerantzean > *gainerontzean > gañontzian > gañuntzian
 nonbait(ere) > numbatte
 honenbeste > onenbeste > *oenbeste > oimbeste
 amona > amuna

Herskari belare ahoskabeak eragindako hersketak

kailoka > kalloka > kalluka
 adinako > añako > añeko
 zaidak > zaiak > zaiek

“YOD” ETA “WAU”

“Yod” eta “Wau” hiatuak ez diptongatzeko zenbait hitzetan tartekatzen diren hotsak dira. Aurreko bokala “i” baldin bada, “yod” tartekatzen da eta “i” hori diptongo bateko bigarren bokala bada, “yod” bihurtzen da. “u” bada, berriz, “wau” bilakatzen da.

“Yod” [j]

jaioa > jayua
 batzokia > batzokiya
 alegia > ale(g)iya
 inportantziarik > importantziyik
 zioten > ziyoten
 bihurria > biyurriya
 gutxiago > *gutxiao > *gutxio > gutxiyo
 idiak > iriyak¹⁶
 zaldia > saldiya
 horia > oriya
 aroztegia > arosteya
 arraia > arraya
 oli > oliyo
 artzaia > artzaya
 ia > iya

Hitzen artean ere gertatzen da “yod”en tartekatzea.

harri hori > arriyoi
 toki hari > tokiyarrei
 behi hau > beyau

“Wau” [w]

Lezoko hizkeran bizpahiru adibide besterik ez dugu jaso, “wau” beti sartzen dutenak, ordea.

¹⁶ Ikus alternantzien atala (d / r)

guaean > gabian
 hauek > abek / obek
 kapellaua > kapellaba
 lauak > labak

KONTSONANTEAK

KONTSONANTEAK ETA KONTSONANTEEN KOKAPENA

Kontsonanteak taldetan sailkatzen dira, dituzten ezaugarrien arabera. Ezaugarri horiek ebakitze puntuari eta ebakitze moduari dagozkie. Taldez talde kontsonante bakoitza hitzaren zein posiziotan agertzen den azalduko dugu lehenik.

Sudurkariak: “m”, “n”, “ñ”

	<i>Hasieran</i>	<i>Barnean</i>	<i>Bukaeran</i>
m ezpainbikoa	muturra mutil	amaika xamur komeyak	
n apiko-albeolarea	nonai nai nekatu	bakandu atzena esneketai	orduan la(g)un gisen
ñ sabaikaria		jakiña giñan	oañ iñ

Hitz bukaeran apiko-albeolarea agertzen da. Ezpain-bikaria onomatopeia eta interjekzioetan. Sabaikaria, berriz, ez da posizio horretan agertzen, “i”ren ondoko apiko-albeolare sabaikaritua agertzea arrunta bada ere.

Herskari ahoskabeak: “p”, “t”, “k”

	<i>Hasieran</i>	<i>Barnean</i>	<i>Bukaeran</i>
p ezpainbikoa	pitxarra poxpoliña	arrapatu apaisa	

t horzkaria	tolaria tallerra	arateya atia	semat sait mintzat estakit
k belarea	kaya karramarrua karraka kaxko	ollotokiya bakallua axkora ikatza	beak neonek oik

Herskari ahostunak: “b”, “d”, “g”

	<i>Hasieran</i>	<i>Barnean</i>	<i>Bukaeran</i>
b ezpainbikoa	bertan bikayua basarriya	aberatza nobena	
d horzkaria	denda deuse	berdela ardua	
g belarea	goatu gasteya	sagardua ogiya	

Frikariak: “f”, “j”

	<i>Hasieran</i>	<i>Barnean</i>	<i>Bukaeran</i>
f ezpain-horzkaria	fabrika fiesta	afaya	
j belarea	jaiki jende	sijuasten sanjuandarra	

Hitz bukaeran frikariak agertzekotan, interjekzioetan agertzen dira.

Albokariak: “l” eta “ll”

	<i>Hasieran</i>	<i>Barnean</i>	<i>Bukaeran</i>
l apiko-albeolarea	lana lampernak	berielia elisa	igual asal
ll sabaikaria		illoba aguasilla	

Dardarkariak “r” eta “rr”

Dardarkari sinplea: “r”

	<i>Hasieran</i>	<i>Barnean</i>	<i>Bukaeran</i>
r apiko-albeolarea		gurasuak beratu	

Dardarkari gogorra: “rr”

	<i>Hasieran</i>	<i>Barnean</i>	<i>Bukaeran</i>
rr apiko-albeolarea	refujiyua rejistratu reketia	arrandeya elurra	laxter derrior

Dardarkari sinplea da, beharbada, bokal arteko posizioan erortzeko edo galtzeko joera handiena duen kontsonantea Lezoko hizkeran, bokal batzuen ondoan eta kasu jakinetan bakarrik eusten baitio bere horretan. Hitz hasierako posizioan ez da ageri eta bukaerakoan, berriz, dardarkari gogor bihurtzen da.

Dardarkari gogorra posizio guzietan agertzen da. Dena den, hasierako posizioak mailegu berriei dagozkie eta bukaerakoak, berriz, dardarkari sinple neutralizatuak dira.

Txistukariak

Txistukarien atalak arreta berezia merezi du gure ustez Lezoko hizkeraz ari garelarik. Hasteko, esan dezagun bi motako txistukariak daudela, frikariak eta afrikariak. Bi multzo hauek harturik, ordea, desoreka nabari da Lezoko txistukarien sisteman, ez direlako gurean sistema horretako guziak, kontsonante guziak, erabiltzen. Hala ere, Gaintxurizketa eta herrigunearen arteko bereizketa egin beharrean ere bagara auzi honi gagozkiolarik.

Gatozen banan-bana puntu guziak argitzera. Herrigunean batik bat, “z” txistukari frikari bizkar-albeolarea galbidean da, edo galdurik da dagoeneko. Haren ordeztu “s” frikari apiko-albeolarerantz doan hotsa edo apiko-albeolarea bera ebakitzen da hiztunaren arabera.

seaste
saspi
sisayon
sesena

Afrikariei begiraturaz, berriz, “ts” apiko-albeolarearen ordez, “tz” bizkar-albeolarea erabiltzen da.

itzua
eakutzi
itzasua
itzuski
autza

Beraz, oro har harturik, Lezoko txistukari sistema honoko kontsonante hauek osatzen dute:

Frikarien sailean “s” apiko-albeolarea eta “x” sabaikaria ageri zaizkigu sendo. “z” bizkar-albeolarea, berriz, zenbait onomatopeiatan eta hitzari balio enfatikoa erantsi nahi zaionean erabiltzen da.

zerriya!
marizikiña!
zapatekua
zast!

Afrikarien sailean “tz” bizkar-albeolarea eta “tx” sabaikaria ageri dira.

atxurra
mi(n)katza
txilborra
sintza
arritxintzarra
itzala

Arestian esan bezala, ordea, Gaintxurizketa goialdean, herrigunean galbidean edo galduak diren bi kontsonante txistukari hauei eusten zaie oraindik, nahiz eta hor ere galtze-ordezte bidea abian den. Sistema osoak indarrean jarraitzen duela esan daiteke, baina galbidean den sistema orok bezala erregulartasun urrikoa da. Irregulartasuna hiztunen artean eta baita hiztun bakoitzaren baitan ere somatzen da. Esaterako: “Autsa” hitza txistukari afrikari apikoalbeolareaz (“autsa”) nahiz bizkar albeolareaz (“autza”) ager daiteke.

Bada, aipatu nahi dugun txistukariei loturiko beste puntu bat ere. Euskaraz oro har, txistukaria afrikarazten duten zenbait inguramendu eta fenomenotan Lezon batzuetan frikaria agertzen da.

sisayon (= zitzaion [zicayon])

esen (= ez zen [ecen])

esuten (ez zuten [ecuten])

Kontsonanteak hitzaren zein posiziotan agertzen diren ikusi ondotik hauen inguruko fenomenoak azalduko ditugu.

KONTSONANTEEN ERORKETAK EDO GALERAK

Bokalarteko posizioa berez ahula izanik, zenbait kontsonantek posizio horretan galtzeko joera du. Galtzeko joera duten kontsonante multzoek euren ahulezia ere eranstean diote posizioarenari, galera erraztuz.

Herskari ahostunak

Galera hitzaren barnean nahiz katea mintzatuan batera ebakitako hitzen artean gerta daiteke kontsonante hauen kasuan.

“b” herskari ezpainbiko ahostuna

hamabost > amaost

ebaki > eaki

akabatu > akaatu > akatu

pixka bat > pixkat

beste batzuk > besteatzuk

kabitu > kaitsu

“d” herskari horzkari ahostuna

iruditzen > iruitzen

badut > baut

edozein > eosein > eosin

modukoak > moukuak

soldado > soldao

aditu > aitsu

edan > ean

badakik > baakik > bakik

ezagutu dizkiat > isautuiskit

“g” berskari belare ahostuna

seguru > seuru
 igual > iual
 egongo dira > eongoia
 dugu > duu
 negu > neu
 daude / dagozte > daoste > doste
 zagok / zegok > *zeok > siok
 zegoen > seon
 ailegatu > alleatu
 egun > eun
 magalian > maalian
 hegazia > eaxtiya
 sagardotegi > saardotei
 ezagutu > esautu > isautu
 segika > seika

Dardarkari simplea

“r” dardarkari apiko-albeolare leuna
 gizarajoa > gizaajua
 bera > bea
 aizkora > axkoa
 arunzko > ausko
 txuria > txuiya
 dira > dia
 gure > gue
 aritzen ginen > aitze(n) giñan
 erantsi > eratxi > eatxi
 elizara > elisa
 neroni > neoni
 hori > oi
 harako hura > ako ua

KONTSONANTE BILKETEN INGURUKO BILAKAERAK

Kontsonante batzuek segidan duten kontsonantea aldatzeko

ahalmena dute. Aldaketa hauek hitzaren baitan nahiz hitz artean gerta daitezke baldintzak betez gero. Aldaketa horiek gertatzen direneko inguramendu, baldintza eta konbinaketak aztertuko ditugu segidan.

“l”, “n”, “r” sonanteak + “z”

“l”, “n” eta “r” kontsonante sonanteek segidan duten “z” edo “s” txistukari frikaria, “tz” txistukari afrikatu bihurtzea oso gertaera arrunta da Lezon.

“-l” + “z-” > -ltz-

mutilzarra > mutiltzarra
 bukatu al zuten? > bukatu altzuten?
 ahal zen guztia > aaltzen gusiya
 nahi al duzu? > nai al (du)zu > nai altzu?

“-l” + “s-” > -ltz-

vals (gazt.) > balsa > balta
 salsa (gazt.) > saltsa > saltza

“-n” + “z-” > -ntz-

etortzen ziren > (e)tortzentzien
 egin zenezake > intzenesake
 han zebilen > antzabillen
 hautsi egin zaie > autzi intzayote
 esan zidan > (e)santzitzen

“-r” + “z-” > -rtz-

har ezan > ar zan > artzan
 behar zuten > bear zuten > bertzuten / biartzuten
 zer zen > sertzen
 behar zaio > bertzayo / biartzayo

“-n” + “t-” > -nt-

Mendebaldeko euskalkietan “n” sudurkariaren ondoan nekez agertu ohi da “t” horzkari ahoskabea, honen ordeztan, horzkari ahostuna agertzen da batez ere. Lezo ekialdeko joerari lotzen zaio eta “n” sudurkariaren ondoko horzkari ahoskabeari bere horretan eusten dio.

esantako
in ta kitto

Gauza bera gertatzen da “l” albokariaren ondoko horzkari ahoskabeari ere.

il ta jan
mutil ta neska

“-z” + “z-” > -tz-

Aztertzen ari garen gertaera hauetakoa asko sandhiak dira, hau da, katea mintzatuan gertatzen diren aldaketa fonetikoak. Honakoa, adibidez, sandhia aitzatzean jartzen den adibideetako bat da. Bi txistukari elkarren ondoan gertatzen direnean txistukari afrikatua sortzen da. Hau “ez”en ondotik “z”z hasitako adizkia heldu denean izaten da.

ez zitzaidan > etzisaiten
ez zion > etziyon
ez zeuden / ez zegozten > etzeosten
ez zen > etzen
ez zuela > etzuela
ez zebilen > etzabillen
ez zeukaten > etzakaten
ez duzu > ez (du)zu > *ez zu > etzu

Badira, ordea, txistukariaren sailean aipatu denez, joera nagusi honi jarraitzen ez dioten adibideak ere.

esen (ez zen)
esisayon (ez zitzaion)

“-z” + “n” > øn

ez naiz > enas
ez dizkit / ez nazki > enaski

ez nau > enau
 ez nizuke > enisuke
 ez nuen > enu(e)n
 ez nekian / ez nakiken > enakiken

“-z” + “l” > øl

ez litzateke > ez litzake > elitzake
 ez lioke > eliyoke

“-z” + “d-” ; “-z” + “b-”

“z” txistukari frikariaren ondoko “d” eta “b” herskari ahostunak ahoskabetu egiten dira. Aldaketa hau, “ez”en ondotik “d”z edo “b”z hasitako adizki edo partikularen bat heldu denean gertatzen da batez ere, nahiz eta beste adibiderik ere baden.

“-z” + “d-” > -zt-

ez da > esta
 ez dut > estut
 ez dago > esto
 ez dizuet > estisutet
 ez dabil > estabil
 ez dinat > estiñet

Bada “ez +d” multzoaren bestelako bilakaera bat ere. Herskari horzkari ahostunari “i” bokal sabaikaria darraikio kasu haue-tan, multzo hori sabaikarizatu bide du yod bilakatuz eta azkenik “z” galduz.

ez diot > eyot
 ez diet / diotet > eyotet
 ez diagu > eyeu

“-z” + “b-” > -zp-

ez ba! > espa!
 ez baitzen > espaisen

noizbait ere > noispatte
ez baduk > espauk

“-t” + “z-” > “-t” + “z-”

Euskaraz joera orokorra dirudien (“-t” + “z-” > tz) Lezon ez da gehiengan betetzen. Horren ordezt (“-t” + “z-” > “-t” + “z-”) formula betetzen da.

baitzen > baisen
baitziren > baisien
ez baitzekien > espaisakiyen

“ez” + “d-” > “ey-”

ez diot > eyot
ez diet / ez diotet > eyotet
ez diagu > eyeu

Herskari ahostuna ahoskabetzea

kb > kp > p
behinik behin > biñipin
aurretik bai > aurretipai
guk bagenuen > gupagenun
oyek bai > oikpai > oipai
zuek bai > zuepai
hauek bai > ok bai > opai
tb > tp > p
ez dakit ba > estakipa
polit bat > polit pat > polipat

Sabaikaritzea

Fenomeno hau da, gure ustez, Lezoko hizkerak bereizgarri dituenetako bat. Oso gertaera orokor eta sendoa da gure herrian. Bi sabaikaritze mota daude; “i” bokal sabaikariak eragiten duena, automatikoa, eta goxotasunak, afektibitateak, hurbiltasunak, hitz batean, adierazkortasunak eragindakoa; adierazkorra. Lezon bi mota hauek indar handia dute, “l”, “n”, “s”, “z” eta “t” sabaikaritzeaz gain, lehen

aipaturiko “yod” hotsa ere kontuan hartzekoa da, ugari erabiltzen baita. Honek guziak hemengo hizkerari halako goxotasunezko janzkera bat damaio, guzia zipriztintzen eta biltzen duena.

Sabaikaritze automatikoa

“i” bokal sabaikariak ondoren dituen hainbat kontsonante sabaikari bihurtzen ditu. Bokal hau diptongoaren bigarren osagaia denean, normalean, galdu egiten da.

-in- > -(i)ñ-

baina > baino > miño(n)
 gainerakoan > gañekuan
 egina > iña
 adina > aña
 oinez > oñes
 inor > iñor
 minez > miñes
 papeleraraino > papeleraño
 zeinek > señek

-il > -(i)ll-

bilera > billera
 oiloak > olluak
 hila > illa
 botila > botilla
 hiloba > illoba
 pila > pilla
 zaila > salla
 ilundu > illundu

-it- > -(i)tt-

ahitu > attu
 ditu > ttu
 ditin/k > ttin/k
 egiten > itten
 ohitu > oittu > ottu
 zituzten > sittusten
 zait > sa(i)tt
 zerbait ere > serbatte
 goiti > gotti
 beheiti > betti

-is-, -iz- > -(i)x-; -itz- > -tx-

pizarra > pixarra
 bisigua > bixigua
 historia, istorio > ixtoriya
 nizkian > nixkin
 maistra > maixtra
 aisa > aixa
 gaizki > gaxki
 gaiztoa > gaxtua
 izkirak > ixkirak
 tristea > trixtia
 aizkora > axko(r)a
 bakoitza > bakotxa
 aitzurra > atxurra

Sabaikaritze adierazkorra

Sabaikaritze adierazkorra hitzunak solasari, hitzei eransten dien karga afektiboaren ondorio da, hurbiltasuna, goxotasuna, ttikitasuna eta estimua adierazten ditu gehienetan, berez, neutroak edo hotzak gerta litezkeen hitzak hots goxoagoz bilduz. Gainera, sabaikaritze adierazkorrak zabalkunde handia du pertsona izenetan ere. Herriko arau fonetikoak zorrotz betetzen dira izen berezien kasuan, batez ere arroztasun fonetiko eta kulturala duten horien kasuan. Adierazkortasuna kasu honetan, homonimo eta toponimo ihartuetan nabaritzen da gehien.

poza > poxa
 doncella (arrain mota gazt.) > dontzeila > dontxella
 zuria > txu(r)iya
 Bidania > Biañi
 harantzaxeago > auntxoxio
 beltza > beltza
 eseri > exei
 zurrut > (t)xurrut
 tanta > ttantta
 bazterretik > baxterretik
 polita > pollitta
 cesto (gazt.) > xexto
 sos > xox

basoka > baxoka
 zorrotza > xorrotza
 koska > koxka
 kasko > kaxko
 gozo > goxo
 zako > xako
 Azkue > Axxue
 Zezili > Xixili
 Jose Luis > Joxe Luix

Asimilazioak

Kontsonante leherkari ezpainbikoek, bai ahostunak, bai ahoska-beak, aurrean duten sudurkari apiko-albeolarea ezpainkari bihurtzen dute.

nb > mb

honenbeste > oimbeste
 egin behar > imbiar
 nonbait ere > numbatte
 kanbiatu > kambiatu

Asimilazio hau, ordea, batzuetan azken muturreraino iristen da. Alegia, “m” sudurkariak “b” leherkaria asimilatzen du ezpainkaritasuna dela medio.

ambiente (gazt.) > ambiente > amiente
 zenbat > zembat > zemat
 lehendabizi > lehenbizi > limbizi > limisi

Asimilazio hau hitz hasieran ere gertatzen da arrunki Lezon.

baina > baiño > biño > miño(n)
 behinik behin > biñipin > miñipin
 behintzat > bintzat > mintzat

np > mp

kanpotik > kampotik
 inportatzen > importzen
 lanperna > lamperna

kanpandorrea > kampakantoria
 kanposantua > kamposantua

Metatesia

Hitz bateko kontsonanteak lekuz trukatuak agertzeari metatesia esaten zaio. Lezon ez dugu adibide askorik aurkitu, ez dirudi oso gertaera arrunta denik.

ilunabarra > iñula(b)arra
 luketela > lutekela
 Santakruzak > Santrakutzak
 periodikua > pediorikua

Alternantziak

Kontsonante batzuek elkar txandakaturik agertu ohi dira maiz. Kontsonante bikote hauek ezaugarri bereizle batzuk amankomun dituzte eta txandakatuta ere, ez da ondorio semantikorik gertatzen, esanahirik ez da aldatzen.

ð/r

edo / (e)ro
 medikua / merikua
 bidea / biria
 aguro / a(g)udo
 ere > (e)re / de
 eduki > iduki / iruki
 bolada > bolara
 idiak / iriyak
 edari / erari
 euri / eudi

f/p

frango / pranko
 falta / palta
 feria / periya
 afaria / apaiya

<i>b/p</i>	bortxan / portxan
<i>ð/l</i>	dotriña / lotriña
<i>k/g</i>	kanbiatu / gambiatu
<i>g/r</i>	lantegi / lanteri
<i>g/b</i>	sugea / subia
<i>j/g</i>	jostaketa / gostaketa
<i>l/n</i>	lehenbiziko > limbisiko / nimbisiko
<i>ñ/y</i>	ninduan > niñun / niyun
<i>y/ll</i>	ayeka / alleka

Kontsonanteen galera

Inguruan dituzten beste kontsonanteen eraginez, kontsonante batzuek galtzeko joera dute, bai hitz barnean, bai hitzen artean.

Sudurkarien galera

“n” kontsonante sudurkariaren ondotik “g” leherkaria gertatzen denean, batzuetan sudurkaria galdu egiten da. Neurri apalagoan bada ere, gauza bera gertatzen da “b” leherkari eta “z” txistukariarekin.

pasatzen genuen > paste genu(e)n
 egiten genuen > itte genu(e)n
 joaten ginen > joate giñan
 izaten genituen > isate genittu(e)n
 deitzen genion > deitze geniyon
 egiten zituzten > itte sittusten
 hartzen zioat > artze siot

Hitz barnean “z”, “t” edo “tz” ren aurrean gertatzen denean ere galdu egiten da sudurkaria.

haranzko aldera / arunzko aldera > ausko aldea
 honanzko aldera / onunzko aldera > onusko aldea
 konprenditzen > konprenitzen > konpreintzen > konpreitzen
 entenditzen > entenitzen > enteintzen > enteitzen
 botatzen dute > *botatzenute > botzeunte > botzeute

Herskari ahoskabeen galera

Herskari ahoskabeek, horzkaria “t” eta belarea “k” hitz bukaeran galtzeko joera dute hurrengo hitza kontsonantez hasten denean. Hitz barnean galtzeko joerarik ez dute, adibideren bat edo beste jaso dugun arren.

zenbat ziren > semasien
 bat bagenuen > babagenun
 denak batean > denabatian
 bizkaitarrak ziren > bizkaitarrasien
 bait genekien / bait genakigun > baigenakiun
 horiek denak > oidenak
 onak zitunan / onak itunan > onattunen
 hilak dira > illadia
 haiek negarrak > aine(g)arrak
 guk memoriz > gumemoris
 kupelak garbitu > kupelagarbittu
 zuk badakizu > subakizu
 bait zen > baisen
 kandelak nahi > kandelanai
 ez dakit > eztakit > estait

patata > paata
 zituzten > siusten

$n + \partial > \emptyset$

Bigarren partizipioaren ondoko aditz laguntzailea “d” leherkariaz hasten denean, “n” eta “d” galdu egiten dira maiz.

etortzen dira > (e)tortzeia
 esaten duk > esateuk
 aditzen du > aitzeu
 botatzen dizu > botzeisu
 ematen duten > emateuten

Dardarkarien galera

-rd- > \emptyset

esan behar diot > (e)samber diot > (e)sambeyot
 behar dizkiat > berdiskit > beiskit > beskit
 egin behar diat > imbiardit > imbiait
 eman behar dizut > (e)mamberdisut > (e)mambeisut
 etorri behar duk? > (e)torri beuk?

“Behar” aditzaren ondotik “d” leherkariaz hasitako adizkia gertatzen denean, “r” eta “d” galdu egiten dira gehienetan.

Bestalde, antzeko gertaera bat ere bada, Euskal Herri osoan nahikoa zabaldua, oker ez bagaude behintzat, eta sendotasun handiko kasu bakar batean gauzaturik agertzen zaiguna.

-rg- > \emptyset

zergatik > seatik(an)(en)

Eta beste hau ere beste horrenbeste;

-r- > \emptyset

zer > se

Kontsonante gehitzeak

Kontsonante gehitze kasu bakarra topatu dugu jasotako korpu-sean. Hala ere, esan behar da behin eta berriz errepikatzen dela hiz-tun ezberdinak izanagatik ere.

inkurriña

Kontsonante multzoak

Hiztunak, solas arinean ari denean batez ere, zenbait kontsonante multzo soiltzeko joera du, bai ahoskatzeko zailak zaizkiolako, bai mailegatuak izateagatik arrotzak zaizkiolako. Hona hemen gaztela-niatik harturiko hainbat maileguren adibideak.

lección > lesiyo

claro > karo

accidente > asidentia

director > diretoria

ambiente > amiente

dialecto > dialeto

doctrina > dotriña

desinfectar > desinfetatu

bicicleta > bisiketa

Campsa > kansa > kantza

Retrato > erretatua

Octubre > otubre

Asimilazio, neutralizazio eta sabaikaritzeak

bildotsa > billotsa

Koldobi > Kollobi

bildu > billu

Madrildik > Madrillik

oraindik > oañik(an)(en)

ninduan > niñun

erdaldun > erraldun



Morfosintaxia

LEZOKO EUSKARAREN
AZTERKETA



IZENAREN MORFOLOGIA

Izenen deklinabideaz ohar orokorrak

Atal honetan Lezoko deklinabidearen ezaugarri bereziak aipatuko ditugu. Ezaugarri hauek orokorrak dira, hau da, deklinabide osoari dagozkionak. Gero, taula bakoitzaren ondoren taula horri dagozkion oharrak eta azterketak egingo ditugu.

Lehen lehenik, esan dezagun erdialdeko euskalkiaren joerari jarraituz A itsatsia ez dela gordetzen. A itsatsiaren galera, ordea, ez da sistematikoa eta aurretik bokala duen kasu guzietan galtzen badu ere, kontsonantea duen kasu gehienetan ez du galtzen. Salbuespena txistukari frikari bizkar-albeolarea edo apiko-albeolarea duten hitzek osatzen dute.

gaus
elis

Ergatibo singularra eta plurala Lezon ez dira, formari dagokionez, bereizten, biak -AK markaz adierazten baitira. Bi silaba eta mugatzaileaz osaturiko hitzetan azentuak bereizten ditu bata eta bestea. Ergatibo plurala, proparoxitonoa da eta singularra, berriz, paroxitonoa.

Gisónak (sing.) jan du
Gísonak (pl.) jan dute

Absolutiboari so eginez, pluraleko -AK marka horrez gain, ergatibo pluralean gertatzen zen bezala, bi silaba eta mugatzaileaz osatutako hitzak proparoxitonoak dira.

Gísonak etorri dia

Mugatu plurala adierazteko marka, singularrean bezala, -A-izateak gainerako deklinabide kasu guzietan ere azentuari erreparatzera behartzen gaitu. Azentua, ordea, esan bezala, bi silaba eta mugatzaileaz osaturiko hitzetan da bereizle, edo hobeto esanda, mugatzailetik atzera bi silaba dituzten hitzetan. Mugatzailetik atzera bi silaba baino gutxiago edo gehiago dituzten hitzetan ez dago inolako bereizketarik testuinguruaz eta aditz laguntzaileaz landa.

Beraz, eta kasuz kasu egiten ari garen ibilbideari jarraiki, datiboan, arestian aipatutakoaz gain, mugagabeko atzizkia da aipame-

nik merezi duena. Izan ere, NORI mugagabearen atzizkia edo kasu marka -EI da gure herrian nagusi, -I gutxiagotan agertzen delarik. Lehenengo atziki horren jatorria, beharbada, -RI bati zor zaio, datiboaren kasu marka -I-ren ordez -RI dela usteko zuten garai bateko lezoarrek eta horri “E” loturazko bokala jarri bide zioten ahoskatu ahal izateko. Gero, ordea, “R” leunaren galera gertatu da eta azkeanean -EI forma gailendu da.

Genitibo kasua -N batez adierazten da. Ez zaigu Euskal Herriko hainbat tokitan agertzen den -REN forma osoa agertzen, jatorrizkoa hori dela pentsa badaiteke ere.

Amaren > *amaen > aman

Genitiboan -RE- hau ez agertzeak, bistan da, eragina du genitiboaren gainean eraikitako gainerako kasuetan ere, guziak -RE- rik gabe eratzen baitira.

Soziatibo kasuari erreparatuz, berriz, esan dezagun honen kasu marka -KIN dela. Gainera, gure herrian, soziatibo kasuak instrumentalaren adierarik berezkoena ere bereganatzen du.

Destinatiboan bi kasu marka erabiltzen dira gure herrian, “-TZAT” eta “-TZAKO”, bigarrena gailentzen delarik. Zenbait hiztunek, ordea, bereizketa gordetzen du, nahiz eta diferentzia lausoturik gelditzen den hiztun gehienentzat.

Instrumental kasuak ere merezi du aipamenik gure ustez. Soziatiboan aurreratu dugunez, instrumentaltasuna neurri handi batean -KIN kasu markaz adierazten da. Baina, -Z (S) kasu markak ere badu bere lekua, eta sendotasun handiz eusten zaio oraindik. Hala ere, -Z (S) kasu markaren esparru nagusia aditzondoan sorreran dago.

marrues
bapores
kales kale
kamiyos
kantatues
atzekos aurrea
aspikos gain
euskis

Eta kasu batzuetan instrumental soil moduan ere agertzen da, oso gutxitan bada ere. Erabilera hau, ordea, agorturik dago:

ondarres
eskus

Inesiboko kasu marka -N da singularrean eta -TAN pluralean. Mugagabearen eta mugatu pluralaren arteko nahasketa gertatzen da gure herrian, biak modu berean adierazten baitira.

Lesoko ítxetan esta argiyik
Lesoko bost itxétan esta argiyik

Ergatiboarekin gertatzen den bezala, hemen ere, formalki bereiztu ezin dena azentu bidez bereizten da.

Hala ere, mugatuan hitz bukaerako -E eta kasu markaren -E elkarren ondoan gertatzen direnean bi bilakaera desberdin gerta daitezke, arestian aipatu duguna eta maizen gertatzen dena (-E + E- > E), eta kasu berean asimilatu ordez disimilatzera jotzen duena (-E + E- > -IE-)

Ttikitan frailIEtan ibili nitzan
Lesoko itxietan esta argiyik

Inesiboko mugatu singularrean aundiyan / aundiyan edo barrenan / barrenian bezalako bikoiztasunak jaso ditugu. Beraz, hiztunen artean nahasirik erabiltzen dira kontsonantez amaituriko hitzei erasten zaien multzoa (loturazko e bokala + a mugatzailea + n kasu marka) eta bokalez amaiturikoei erasten zaiena (a mugatzailea + n kasu marka). Honek hiperkorreziorako bide zabala ematen du.

mayan / mayian
ustailan / ustailian

Leku genitiboan erabiltzen diren kasu markak honako hauek dira: -KO/-GO mugatu singularrerako, eta -TAKO, mugagabe eta mugatu pluralerako. Dena den, kasu honetan ere, mugagabea eta mugatu pluralaren arteko bereizketa azentu bidez egiten da.

Bi menditako tontorrak elurtuak doste
Inguruko ménditako tontorrak elurtuak doste

Adlatiboaren kasu marka -(R)A da singularrean, plural eta mugagabea, berriz -TA(R)A. Bi hauen arteko bereizketa, aurretotan bezala, hemen ere, azentu bidez egiten da.

Hala, bokal artean kasu markaren -r leuna galdu egiten I-z edo U-z amaituriko hitzetan izan ezik. A-z bukatutakoetan, berriz, asimilazioa gertatzen da $A+A > A$. Hitzun zenbaitek, ordea, honelakoetan A bokal luzatua gordetzen du oraindik.

Ameriketara > Ameriketa
 etxera > itxea
 sagardotegira > saardoteira
 sotora > sotoa
 zerura > serura
 Donostiara > Donostira

GOTTI eta BETTI adizlagunen kasua ere aipagarria dela deritzogu. Adizlagun hauek adlatiboaren kasu marka berezi bat erakusten baitute, -TI alegia. Lezon GOTTI eta BETTI erabiltzen dira GORA eta BERArekin ondoan, lehenengoan erabilera azken urteotan asko murriztu dela esan behar bada ere. GOTTIk eta BETTIk oraindik indarra dute baserrialdean baina herrian GORA eta BERA dira gailen.

Ipurdiyan sabaltxioa, eta gotti sorrotxioa.
 Geo Bordatxo au, ta orrea goitti koxkorren bat o beste.
 Sisarra isaten tzen genealmente orrea betti, bai Olatzarkuak, Amuntenekuak ee baita guk e bai.
 Bebeti torri giñan, seara, ser da oi? "Calle Gamón".

Garai batean GOTTIk eta BETTIk zuten indarra adierazten duten hitz batzuk ere erabiltzen ditugu herrian:

gottika
 gottittu
 bettittu
 bettikua
 burutik bettikua

Bizidunei dagokienez, -(E)NA dugu marka. Bokal arteko leherkari belare ahostuna galtzen da.

Mikelengana > Mikelena
 Mikaelarengana > Mikelana

Hurbiltze adlatiboaren marka Lezon -(R)UNTZ da. Erabilera esparru murrizta du, ordea, kasu marka honek. Izan ere, auntz eta onuntz eta hauen eratorrietan, onuntzio, auntzio, auskalde, onuskalde..., soilik erabiltzen da. Hurbiltzea, bada, adlatibo soilaren bidez egiten da usuenik.

Hurbiltzearen kontzeptua kasu marka bidez gutxitan erabiltzen da. Hurbiltzea adierazi nahi denean -(R)AKA kasu marka erabiltzen dugu. Hala, galdera honela egiten da:

Noaka dijua?

Eta erantzuna, berriz:

Itxeaka

Sarri hurbiltzearen kontzeptua kasu marka bidez baino perifrasi eginez adierazten dugu: ayeka hitzaren bidez.

Itxe ayeka (aiekara) nijua

Muga adlatiboa mugatu singularrean -(R)AÑO da eta mugagabe zein pluralean -TANO. Adlatiboaren gainean eraikitako kasua denez, haren jokabide bera du fonetikoki.

seruAÑO

arateiAÑO

itxeAÑO

dendaAÑO

kaxkoAÑO

Ablatiboaren kasuan hiru aldaera, edo hobe esan bakarraren gainean eraikitako beste bi ditugu: -TIK, -TIKAN, -TIKANEN. Hiru forma hauen arteko bereizketa morfologia mailakoa da. Erabileri dagokionez, berriz, banaketa geografikoa sumatzen da. ekialdera (Gaintxurizketako bailaretan) -TIK / -TIKAN erabiltzen da, herri gunean eta herriaren mendebaldeko baserrietan, berriz, -TIK, -TIKAN, eta -TIKANEN.

Zehazki esatea zaila bada ere, herriaren ekialdeko zenbait hiztunek ez dute -TIK edo -TIKAN besterik erabiltzen. Herrigunean, halaber, badira, -TIKANEN inoiz erabiltzen ez dutenak.

Prolatiboan ez dugu kasu marka jakinik topatu eta kontzeptu hori perifrasi bidez adierazia ikusi ohi dugu.

erotzat jo = erua sela uste isan

Kontsonantez amaituriko izen bizidunak: *gison*

	MUGAGABEA	SINGULARRA	PLURALA
nor	gison	gisona	gisonak
zerik	gisonik		
nork	gisonek	gisonák	gisonak
nori	gisoni (gisoni)	gisonai	gisonai
norengan	gisonekin	gisonan / gisonakin	gisonan /gisonakin
norengana	gisonena	gisonana	gisonana
norenganaino	gisonenganaño	gisonanaño	gisonanaño
noren	gisonen	gisonan	gisonan
norekin	gisonekin	gisonakin	gisonakin
nortaz	gisones	gisonakin	gisonakin
norengatik	gisonengatik	gisonangatik	gisonangatik
norentzat	gisonentzako gisonentzat	gisónantzako	gisonantzako

Ablatibo kasuan -GANDIK kasu markadun formarik ez dugu aurkitu eta, beraz, esan daiteke Lezon ez dela kasu marka hau erabiltzen. Honek ez du esan nahi kontzeptu hau adierazten ez denik. Hona hemen zeharbidez kontzeptu hau adierazteko topatu dugun era bat:

andrearengandik bereizi = andrianetik apartatu

Ohikoena, dena den, perifrasi bidez adieraztea da, gehiegizko atzizki pilaketari ihes egitekoa da joera nagusia.

aitonarengandik jaso du > aitonak emana du

Bokalez amaituriko izen bizidunak: *seme*

	MUGAGABEA	SINGULARRA	PLURALA
nor	seme	semia	sémiak
zerik	semeik		
nork	semek	semiak	sémiak
nori	semei	semiai	sémiiai
norengan	semekin	semiakin/semian	sémiakin/sémietan
norengana	semena	semiana	sémiana
norenganaino	semenaño(?)	semianaño	sémianaño
noren	semen	semian	sémian
norekin	semekin	semiakin	sémiakin
nortaz	semez	semiakin	sémiakin
norengatik	semengatik	semiangatik	sémiangatik
norentzat	sementzako sementzat	semiantzako semiantzat	sémiantzako sémiantzat
nortzat	semetako		

Gaintxurizketako zenbait lekukok bokalez bukaturiko izenen kasuan mugatzailea soiltzen dute. Gertaera fonetikoak da:

(-I + -A > I) Etxean > itxian > itxin

(-U + -A > U) Goguakin > gogukin

Kontsonantez bukaturiko izen bizigabeak: *sagar*

	MUGAGABEA	SINGULARRA	PLURALA
zer	sa(g)ar	sa(g)arra	sá(g)arrak
zerik	sa(g)arrik		
zerk	sa(g)arrek	sa(g)arrak	sá(g)arrak
zeri	sa(g)arrei sa(g)arri	sa(g)arrai	sá(g)arrai
non	sa(g)arretan	sa(g)arrian	sá(g)arretan
nongo	sa(g)arretako	sa(g)arreko	sá(g)arretako
nora	sa(g)arreta	sa(g)arrea	sá(g)arreta
noraino	sa(g)arretaño	sa(g)arreaño	sá(g)arretaño
nondik	sa(g)arretatik	sa(g)arretik	sá(g)arretatik
zeren	sa(g)arren	sa(g)arran	sá(g)arran
zerekin	sa(g)arrekin	sa(g)arrakin	sá(g)arrakin
zerez	sa(g)arrez sa(g)arrekin	sa(g)arrakin	sá(g)arrakin
zergatik	sa(g)arreatatik	sa(g)arreatatik	sá(g)arreatatik
zerentzat	sa(g)arrentzako sa(g)arrentzat	sa(g)arrentzako sa(g)arrentzat	sá(g)arrentzako sá(g)arrentzat

Bokalez bukaturiko izen bizigabeak: *itxe*

	MUGAGABEA	SINGULARRA	PLURALA
zer	itxe	itxia	itxiak
zerik	itxeik		
zerk	itxek	itxiak	itxiak
zeri	itxei	itxiai	itxiai
non	itxetan	itxian	itxetan (zenbaitek : itxetan)
nongo	itxetako	itxeko	itxetako
nora	itxeta	itxea	itxeta (zenbaitek : itxieta)
noraino	itxetaño	itxeaño	itxetaño (zenbaitek : itxietaño)
nondik	itxetatik	itxetik	itxetatik (zenbaitek : itxietatik)
zeren	itxen	itxian	itxian
zerekin	itxekin	itxiakin	itxiakin
zerez	itxekin	itxiakin	itxiakin
zergatik	itxengatik	itxiangatik	itxiangatik
zerentzat	itxentzako itxentzat	itxiantzako itxiantzat	itxiantzako itxiantzat

Izen bereziak

Pertsona izenak: Joxepa eta Martin

	Bokalez amaituak	Kontsonantzez amaituak
nor	Joxepa	Martin
partitiboa	Joxepaik	Martiñik
nork	Joxepak	Martiñek
nori	Joxepai	Martiñei
norengan	Joxepakin	Martiñekin
norengana	Joxepana	Martiñena
norenganaino	Joxepanaño	Martiñenaño
noren	Joxepan	Martiñen
norekin	Joxepakin	Martiñekin
nortaz	Joxepakin	Martiñekin
norengatik	Joxepangatik	Martiñengatik
norentzat	Joxepantzako Joxepantzat	Martiñentzako Martiñentzat

Bitxikeria: absolutu eta ergatiboan Begoña baino Begoñe eta Begoñek esaten da. Ez dakigu honomastika garbizalearen eraginez den ala beste zerbaiti zor zaion baina sendotasun handikoa da.

Leku izenak: Bera eta Irun

	Bokalez amaitua	Kontsonantzez amaitua
zer	Bera	Irun (zenbaitek:Iruna)
partitiboa	Beraik	Irunik
zerk	Berak	Irunek
zeri	Berai	Irunei
non	Beran	Irunen
nongo	Berako	Irungo
nora	Bera	Iruna/Irunea
noraino	Beraño	Irunaño/Iruneaño
nondik	Beratik	Irundik
zeren	Beran	Irunen
zerekin	Berakin	Irunekin
zerez	Berakin	Irunekin
zergatik	Berangatik	Irunengatik
zerentzat	Berantzako Berantzat	Irunentzako Irunentzat

IZENORDAINAK

Pertsona izenordainak

NOR	NI	I	GU GUEK	SU	SUEK
NORK	nik	ik	guk guek	suk	suek
NORI	nei	iri	gu(r)i guei	suri	suei
NORENGANA	neana	i(r)e(g)ana	guena	sugana sure(g)ana su(r)egana	suenta
NORENGAINO	neanaño	i(r)e(g)anaño	guenaño	suganaño sure(g)anaño su(r)eganaño	suentaño
NOREN	ne	i(r)e	gue guen	sure	suen
NOREKIN	nekin	i((r)e)kin	gu((r)e)kin	surekin	suekin
NORENGATIK	ne(re)gatik	i((r)e)gatik	gu((r)e)gatik guengatik	su((r)e)gatik	suengatik
NORENTZAT	netzako netzat	i((r)e)tzako i((r)e)tzat	gu((r)e)tzako gu((r)e)tzat guentzako guentzat	suretzako suretzat	suentzako suentzat

Arestian deklinabideaz esandakoez gain, pertsona izenordainen deklinabidean 1.pertsona pluralean berriro ere bikoiztasuna aipatu behar dugu. Izan ere, GU eta GUEK formak, biak, bizi-bizirik dau-de. GUEK forma ZUEKen analogiaz sortua dela dirudi eta absolutu, ergatibo, genitibo, datibo, soziatibo eta destinatibo kasuetan erabiltzen da, alegia, maiztasunik handienekoetan.

Erabilerari dagokionez, forma bakoitzak bere eremu geografikoa du, honela, GUEK forma herrigunean erabiltzen da batik bat, GUekin lehian. Eta GU, berriz, ekialdeko baserriguneetan.

Pertsona izenordain indartuak

	NI	I	UA	GU GUEK	SU
NOR	neoni	eorri	beorri	geoni geok	seorri
NORK	neonek	eorrek	beorrek	geonek geok	seorrek
NORI	neoni	eorri	beorri	geoni	seorri
NORENGANA	neonena	eorrena	beorrena	geonena	seorrena
NOREN	neonen	eorren	beorren	geo(ne)n	seorren
NOREKIN	neonekin	eorrekin	beorrekin	geo(ne)kin	seorrekin
NORENGATIK	neonengatik	eorrengatik	beorrengatik	geon(en)gatik	seorrengatik
NORENTZAT	neonentzako neonentzat	eorrentzako eorrentzat	beorrentzako beorrentzat	geon(en)tzako geon(en)tzat	seorrentzako seorrentzat

Pluraleko 1. pertsonan bi forma ditugu:

Absolutuan: GEONI / GEOK

Ergatiboan: GEONEK / GEOK

Ikusten den bezala absolutu eta ergatiboan forma bera erabiltzen da: GEOK

“Bea”ren deklinabidea

	singularra		plurala
NOR	bea		beak
NORK	beak		beak
NORI	beai		beai
NON	berian	bertan	be(r)etan
NONGO	bereko	bertako	be(r)etako
NORA/ NORENGANA	bera beana	berta	bereta beana
NORAINO/ NORENGAINO	bereño beano	bertaño	beretaño beano
NONDIK/ NORENGANDIK	beretik	bertatik	beretik
NOREN	be(re)		be(e)n
NOREKIN	be(a)kin		beakin
NORENGATIK	beregatik beangatik		beangatik
NORENTZAT	beantzako beantzat be((r)e)tzako be((r)e)tzat		beantzako beantzat

Destinatiboan bikoitzasuna ikus daiteke: Beretzat eta Beantzat formak, hain zuzen. Lehenengoa “Bere” genitiboaren gainean erai-kia eta bigarrena, berriz, “Beraren” genitiboaren gainean eraikia. Ezin esan dezakegu bietan zeinek duen maiztasunik handiena, biak indar beretsua dutelakoan gaude.

Erakusleak

	1 sg.	2 sg.	3 sg.	1 pl.	2 pl.	3pl.
NOR	au	oi	ua	auek abek obek ok	oyek oik	ayek aik
NORK	onek	orrek	arrek arek	auek abek obek ok	oyek oik	ayek aik
NORI	onei	orrei	arrei arei	auei abei obei oki	oyei oiki	ayei aiki
NON	ontan	ortan	artan	auetan abetan obetan otan	oyetan oitan	ayetan aitan
NONGO	ontako	ortako	artako	auetako abetako obetako otako	oyetako oitako	ayetako aitako
NORA	onta	orta	arta	aueta abeta obeta ota	oyeta oita	ayeta aita
NORENGANA	onena	orrena	arrena arena	auena abena obena okena	oyena oina	ayena aina
NORAINO	ontaño	ortaño	artaño	auetaño abetaño obetaño otaño	oyetaño oitaño	ayetaño aitaño
NONDIK	ontatik ontatikan ontatikanen	ortatik ortatikan ortatikanen	artatik artatikan artatikanen	auetatik abetikan obetatik otatik	oyetatik oitatik	ayetatik aitatik

	1 sg.	2 sg.	3 sg.	1 pl.	2 pl.	3pl.
NOREN	onen	orren	ar(r)en	auen aben oben oken	oyen oiken	ayen aiken
NOREKIN	onekin	orrekina	aekin	auekin abekin obekin okin	oyekin oikin	ayekin aikin
NORTAZ	ontas	ortas	artas	auetas abetas obetas otas	oyetas oitas	ayetas aitas
NORENGATIK	onengatik	orrenngatik	arrenngatik	auengatik abengatik obengatik okengatik	oyengatik oikengatik	ayengatik aikengatik
NORENTZAT	onentzat	orrenrentzat	arrenrentzat	auentzat abentzat obentzat okentzat	oyentzat oikentzat	ayentzat aikentzat

Erakusleei dagokienez ere, bikoiztasun batez hitz egin beharrean gara. Izan ere, plurala bi eredu desberdinen gainean eraikitzen da. Aldaera bakoitza beregaina da eta deklinabideko kasu guztiak betetzen ditu:

- 1.- OK, OIK, AIK
- 2.- AUEK, OYEK, AYEK

Aldaera bakoitzaren erabileran banaketa geografikoa dago. Herriaren ekialdean, Gaintzurizketako goiko aldean batik bat, lehen eredia erabiltzen da eta mendebaldean, kalean alegia, bigarrena gailentzen da; nahiz eta bestearekin lehian ari den eta hitzturno berak biak erabiltzen dituen eta itxura batean araurik gabeko txandaketan.

Dena den, bigarren eredian AUEKen “au” diptongoaren bigarren bokala “wau” bilakatzen da, diptongo horrek beste hainbat hitzetan duen joerari jarraituz: ABEK. Dena den 1. graduko erakusleak badu hirugarren forma bat: OBEK, hau ere, bilakaera fonetikoaren ondorio. Hitzturno artean zenbaitek indar handiz eusten diote ABEK formari eta beste zenbaitek, berriz, OBEK formari. Zehazki frogatzerik izan ez badugu ere, badirudi, azken bi forma hauek erabiltzen dituzten hitzturnek ez dutela AUEK forma erabiltzen.

Singularreko hirugarren graduko formak bi dira: ARRENA / ARENA.

Erakusle indartuak

	1 sg.	2 sg.	3 sg.	1 pl.	2 pl.	3pl.
NOR	auxe	oixe	uaxe	aeue(t)xek abe(t)xek obe(t)xek	oyetxek oitxek	ayetxek aitxek
NORK	one(t)xek	orre(t)xek	ar(r)e(t)xek	aeue(t)xek abe(t)xek obe(t)xek	oye(t)xek oitxek	aye(t)xek aitxek
NORI	onexei	orrexiei	ar(r)exei	aeue(t)xiei abe(t)xiei obe(t)xiei	oyetxiei oitxiei	ayetxiei aitxiei
NOREN	onexen	orrexen	ar(r)etxen	aeue(t)xen abe(t)xen obe(t)xen	oyetxen oitxen	ayetxen aitxen
NOREKIN	onetxekin	orretxekin	ar(r)etxekin	aeue(t)xekin abe(t)xekin obe(t)xekin	oyetxekin oitxekin	ayetxekin aitxekin

Gehien erabiltzen diren indartuak jarri ditugu, Horrek ez du esan nahi, ordea, beste kasuen gainean eraikitako forma indarturik erabiltzen ez denik. Maiztasun askoz tikiagoz beti ere.

Galdetzaileen deklinabidea: *sein*

	sein
NOR	sein
NORK	señek
NORI	señei
NON	señetan
NORENGAN	señengan / señaekin
NONGO	señetako
NORA	señeta
NORENGANA	señena
NORAINO	señetaño
NORENGAINO	senenaño
NONDIK	señetatik
NOREN	señen
NOREKIN	señaekin
ZEREZ	señaekin
NORENGATIK	señengatik
NORENTZAT	señentzako / señaentzat

Oharra:

Lezon NOR galdetzailea ez da erabiltzen, haren ordez ZEIN galdetzailea erabiltzen da. Hala, ZEINek bi esanahi ditu: ZEINena eta NORena.

Sein naisu, txuriya o gorriya?

Seiñ etorri da, atta o semia?

*ZERAre*n deklinabidea

	Singularra	Plurala
NOR	sea	seak
NORK	seak	seak
NORI	seai	seai
NON	sean	seetan
NONGO	seako	seetako
NORA	seara	seeta
NORENGANA	seana	seana
NORAINO	seañ	seetañ
NORENGANAÑO	seañañ	seañañ
NONDIK	seatik	seetatik
NOREN	sean	sean
NOREKIN	seakin	seakin
ZEREZ	seakin	seakin
NORENGATIK ZERGATIK	seangatik	seangatik
NORENTZAT	seantzako / seantzat	seantzako / seantzat

Izenordain zehaztugabeak

	edo-	-bait ere	i- / e-	-nahi
SER	eoser	serbatte	eser	sernai
SEIN	easein			
NOR		norbatte	iñor	nornai

*Biburkari eta elkarkariak***Bihurkariak**

Bere
Bee
Be
Been
Ben
Geen

Elkarkariak

Elkarren segidan
Elkarri beida
Alkarri elduta
Elkarrei
Elkarrekin
Bata bestiai
Bat bestiakin

DETERMINATZAILEAK

Zenbatzaileak*Zenbatzaile zehaztuak*

Zenbatzaile zehaztuak bi eratakoak dira:

Kardinalak, zenbakiak edo kopuruak hutsik agertzea; eta ordinalak, berriz, kopuruari “-GO/-KO edo -GARREN atzizkia erantsiz sortzen direnak direnak. Hurrenkera adierazten dute azkenok.

Zenbatzaile zehaztuen artean balio banakaria ematen duen -NA atzizkiaz sortuak ere sartu behar dira.

Kardinalak

Bat
Bi
Iru
Lau
Bost
Sei

Saspi
Sortzi
Beatzi
Betzi
Amar
Amaika
Amabi
Dosena
Amairu
Amalau
Amabost
Amabos
Amasei
Emesortzi
Oitabat
Oitaat
Oitiru
Oitabost
Berrogeita geyo
Irurogei
Larogeitaka
Eun
Milla beatzireunda ogeitasortziyan
Saspi milla

Kardinalekin ari garelarik ez genuke aipatu gabe utzi nahi adineko jendeak numeroak gaztelaniaz esateko duen joera. Hona zenbait adibide:

Kuarentaiuno
Sinkuentaiotxo
Sinkuentaisinko
Sesenta

Bestalde, bat numeroa beste numero baten eskuinaldean paratuz gutxi gora-beherako zentzua ematen dio zenbatzaile zehaztu horri.

Amar bat

Lau bat

Ordinalak

Lendabisiko

Lemisiko

Limbisiko

Limisiko

Lenengo

Bigarren

Biarren

Laugarren

Amargarren

Banakariak

Biña

Amarna

Saspiña

Euna

Zebaztugabeak

Zenbatzaile hauek ez dute kopuru jakin bat adierazten.

Mordoska

Kantidadia

Errus

Oimbeste

Orrembeste

Aimbeste

Batzuek

Gutxi

Batzuek

Makiña bat

Makiña at

Pilla bat

Pixka bat

Pixkat
Asko
Semattek

Orokorrak

Osua
Dena
Gusiya

Determinatzaile zehaztugabeak

Ser
Se
Eosein
Eosiñ
Sein
Eoser
Beste
Senai
Sernai



ADITZ SINTAGMA

ADITZAREN MORFOLOGIA

Ohar orokorrak

Datiboa ZURI edo ZUEI denean adizki laguntzailea bera da, alegia ZUEKen -e- ezaugarria ez da ageri.

ayek suri esan disute / ayek suei esan disute

Paradigma nahasketa

NOR-NORK paradigmatik, forma batzuetan bederen, ahulezia nabarmenak ditu erabilerari dagokionez, izan ere, NOR-NORK behar luken kasu batzuetan NOR-NORI-NORKeko formak erabiltzen dira. Azken hauek NOR 3. pertsona ez beste kasu guzietan erabiltzen dira. Ondorioz NOR-NORKeko berezko formak NOR-NORI-NORKekoekin batera bizi dira. Indartsuenak, ordea, NOR-NORI-NORKekoak dira.

i(ri) ikusi (d)ik
suek gu ikusi digusute
arrek ni ikusi sitten

NOR-NORI-NORKen, berriz, kontrakoa gertatzen da. Datiboa singularreko 1. pertsona denean, NOR-NORKeko adizkiek NOR-NORI-NORKekoekin lekua hartzen dute.

esan NASU (didazu) (nau+su)
eman NASKISU (dizkidazu) (NAU+ski+su)

NOR-NORKen alegiazkoan NOR-NORI-NORKen formak agertzen dira. Indikatiboan bezala NOR 3. pertsona singularra eta plurala denetan bakarrik eusten zaie garbiki NOR-NORKeko formei. Gainerakoan NOR-NORI-NORKekoak gailentzen dira.

Bi nahasketa hauek finkoak dira eta arau orokortzat har daitezke. Hauezag gain, ordea, NOR-NORI paradigmatik beste nahasketak batzuk ere badira, erabilera mailan horren hedatu eta sendoak ez direnak, ordea:

1.- NOR-NORIren ordez NOR-NORI-NORK:

zitzazkien - siskiyoten.

zaio - yo (dio)

2.- NOR-NORIren ordez NOR-NORK

zaizu - sattu (saitu)

Azken bi nahasketa hauek ekialdeko baserrialdean erabiltzen dira.

“Zuek” en pertsona-morfema

ZUEK pertsona morfema ez da -zue, -zute baizik. Kasu bakan batzuetan -zue ere erabiltzen da. Ezin esan dezakegu -zue-dun formen erabilpenak zenbateko hedadura duen edo testuinguru fonetiko-sintaktiko zehatzen bati loturik dagoen, ez eta banaketa geografikoa duen ere. Badirudi, zenbait hiztunek soilik erabiltzen duela, beraz, ez dela orokorra eta -zute-dun formak dira nagusi ezbairik gabe.

Datiboa

Pluraleko 3. pertsonako datibo marka ez da -e. Horren ordez, -ote-jartzen da.

zaie - sayote

die - yote

zien - siyoten

Lezoko adizbidean bada beste datibo marka bat ere, “-a” datibo zaharra, “-o” datibo markaren lekuan erabiltzen dena. Honekin sorturiko formak -o-z sorturikoekin lehian daude. -a-dun formak, ordea, pluralgiledun aditzetan soilik erabiltzen dira, eta -o-dunak, berriz, plural zein singularrean. Honela, pluralgiledunetan bi adizki ditugu aldioro:

zaizkio - saiska, saiskiyo

dizkio -diska, diskioyo

dizkiote - diskate, diskioyote

nizkion - niskan, niskiyo

Ahalera

Lezon ahaleraren forma guzietan (NOR, NOR-NORK eta NORK-NORI-NORK) gertaera bitxia gertatzen da. Berez ale-

giazko ahalerari dagozkion formak erabiltzen dira indikatiboko ahalerazkoak adierazteko eta indikatiboko ahalerako formarik ez dago.

naiteke - nitteke
 daiteke - litteke
 dezakezu - senesake
 zaitezke - siñeske
 dezake - lesake
 zaitezkete - siñesteke
 diezaioket - nesayoke
 diezaiokezu - senesayoke

Ahalera adierazteko egitura zahar baten arrastoak ere ageri dira herrian. Ekialdeko hizkeretan erabiltzen den “-t(z)en ahal” egituraren arrastoak hain zuzen ere. Ez da testuinguru eta kasu guzietan erabiltzen. Erabilera nahiko mugatua dela esango genuke. Nolabait adieraztearren, “x dezakezu / x zaitezke, bestela...” Ad. “Muitzen al tzeaste, autobusak alde ingoisute bestela”. Baldintza-agindu kutsuko adiera hartzen du beraz gurean ahalerako egitura honek.

“ki” osagaia

Adizki batzuek “ki” osagaia hartzen dute puntukaritasun berezi bat adierazteko. Kausal eta azalpen esanahien artean mugitzen da eta gure herrian “isaki” gailentzen bada ere, “jakinki” eta “ariki” ere jaso ditugu.

Adizkietako sabaikaritzea

Zenbait adizkitan “i” bokal sabaikariaren ondoko txistukari frikari apiko-albeolarea, “s”, txistukari frikari sabaikari bilakatzten da, “x”.

diskat > dixkat
 sisaiskitten > sisaixkitten

Bergauza gertatzen zaio leherkari horzkari ahoskabeari, “t”.

zidan > sitten
 nituen > nittu(e)n

Bustidura arau hauek sistematikoak dira. Beste hainbeste gertatzen da “yod”en kasuan. Bustiduraren indarrak adizbidea eta oro har, Lezoko hizkera ezaugarritzen ditu arestian esan dugun bezala.

Adizkien paradigmak

NOR

INDIKATIBOA	ORAINALDIA	LEHENALDIA
NI	nas	nitzan (nitzen)
I	(y)as	yitzan (yitzen)- yitzaken / nen
URA	da	sen (san)
GU	gea	giñan (giñen)
SU	sea	siñan (siñen)
SUEK	seaste / saste	siñasten
AIEK	dia (die)	sien (sian)

Orainaldian

Gu, eta Zu erdialdeko euskalkiaren eredian eginak dira bete-betean:

Gera > gea

Zera > sea

Eta Zuek-ena, berriz, zea formatik abiatuz, -z- eta -te pluralgile markak erantsiz eraikitzen da:

Sea+s+te = seaste

Lehenengo eta bigarren pertsonako formak, berriz, diptongoaren soilketaz sortuak dira eta forma berezia hartzen dute:

Nas, (y)as

Pluraleko hirugarren pertsonan bi forma ageri zaizkigu elkarren arteko lehian: Dia eta Die. Borroka hori, dena den, Dia adizkiaren alde erabakitzen ari da.

Lehenaldia

-a-dun formak nagusitzen dira. Hirugarren pertsonetan izan ezik.

Hauetan -e-dun formak baitira nagusi inongo lehiarik gabe. Alegia:

nitzAn, yitzAn, giñAn, siñAn,

Baina:

sEn eta siEn

Sen eta *Sien* formen erabilerak ekialdeko adizki ereduarekin lotzen du Lezokoa. Bi adizki hauei erlatiboko, konpletiboko nahiz zehargalderako atzizkiak eranstea ere “e”-dun formari eusten diote:

da + (e)n = den

zen + (e)la = sela

zien + (e)la = siela

dira + (e)n = dien

Dena den, -a-dun forma horien ondoan -e-dun formak ere erabiltzen dira maiztasun ttikiagoz bada ere, eta hirugarren pertsonako -e-dun forma horien ondoan -a-dunak ere erabiltzen dira, maiztasun askoz ttikiagoz izan arren:

nitzEn, yitzEn, giñEn

sAn, siAn

Izan aditzaren marka den -n- galdu egiten da:

nintzen > nitzan / nitzen

hintzen > yitzan / yitze

Alegiazkoa

	ALEGIAZKOA	AHALERA	AGINTERA
NI	nitzake	nitteke	
I	(y)itzake		y(ai)
URA	litzake	litteke	bedi
GU	giñake	giñeske	
SU	siñake	siñeske	satte(s) / sattia
SUEK	siñasteke	siñesteke	satteste
AIEK	liake (liateke)	litteske / littesteke leiske	

Hemen ere izan erroaren -n- marka galdu egiten da, alegia:

nintzateke > nitzake

hintzateke > yitzake

Ahaleraren -te marka galdu egiten da eta -ke morfema soil-soilik ageri zaigu forma guzietan:

litzateke > litzake
ginateke > giñake

Ahalera

Pluraleko hirugarren pertsonan “litteske” formaren ondoan “littesteke” ere erabiltzen da, -teke -dun adizkien analogiaz sortua dela dirudi, eta aldi berean, “leiske” adizkia ere erabiltzen da.

Agintera

“zu”ri dagokion adizki laguntzailea hiru eratara adierazten da:

sattes
satte
sattia

NOR-NORI

NOR hirugarren pertsonaren singular eta plural formak bakarrik topatu ditugu. Gainerako kasuetan bat bakarrik erabiltzen da eskuharki: 1. pertsonako iraganeko forma:

ni hari NITZAYON
ni haiei NITZAYOTEN
ni zuri NITZAISUN
ni zuei NITZAISUTEN

Indar handikoa da, bestalde, lehenaldian, NOR hirugarren pertsona dutenetan, txistukari bizkar-albeolare afrikatuak, “tz”, txistukari apiko-albeolare frikari, “s” bihurtzko joera.

zitzaizkion - sisaiskiyon
zitzaizkien - sisaiskiyoten

Orainaldia

	NEI	IRI	ARREI	GURI	ZURI	ZUEI	AIEI
UA	sait	sain/k	sayo	saigu	saisu	saisute	sayote
AIEK	saiskit	saiskin/k	saiskiyo saiska	saiskigu	saiskisu	saiskisute	saiskiyote saiskate

Lehenaldia

	NEI	IRI	ARREI	GURI	SURI	SUEI	AIEI
UA	sisait(t)en saiten	sisaiñen/ken	sisayon sayon	sisaiGUN	sisaisun saisun	sisaisuten saisuten	sisayoten sayoten
AIEK	sisaiskiten sisaiskitten	sisaiskiñen/ken saiskiyon	sisaiskiyon saiski(g)un sisaiskan saiskan	sisaiski(g)un saiskisun	sisaiskisun saiskisuten	sisaiskisuten saiskiyoten	sisaiskiyoten

Forma osoen ondoan forma laburtuek indar handia dute. Ezin esan, ordea, forma horiek benetan forma laburtuak diren, hau da, ahaleginik ttikienaren legea jarraituz sortuak. Bestela esanda, “sisayon” formari hasierako “si-” kenduz sortuak izan daitezke. Edo besterik gabe, orainaldiko formei gainean eraikiak -n marka erantsiz. Hipotesi bat zein beste izan egiazkoa, bistan da hiztunak biderik errazena hautatzen duela.

Alegiazkoa

	NEI	IRI	ARREI	GURI	SURI	SUEI	AIEI
UA	litzaiake		litzayoke	litzaiGuke	litzaisuke	litzaisuteke	litzayoteke
AIEK	litzaiskiake		litzaiskiyoke	litzaiski(g)uke	litzaiskisuke	litzaiskisuteke	litzaiskiyoteke

NOR-NORK

Orainaldia

	NIK	IK	ARREK	GUK	SUK	SUEK	AIEK
NI		nan/k	nau		nasu	nasute	naute
I	dit/ñiet (yaut)		din/k (y)au	ñieu yau			tten/ttek
URA	dut	duk (dek)	du	dugu	dusu	dusute dusue	dute
GU		gattun/k	digu gattu		digusu gattusu	digusute gattusute	digute gattuste
SU	disut sattut		disu sattu	disugu sattugu			disute sattuste
SUEK	disutet sattustet		disute sattuste	disugu sattustegu			disute sattuste
AIEK	ttut	ttun/k	ttu	ttugu	ttusu	ttusute	ttuste

NOR singularreko 3. pertsona den kasuetan -u- dun formak erabiltzen dira Lezon, ekialdeko ereduari jarraituz:

Dut, dun, dugu, dusu...

Forma hauen nagusitasuna eta indarra argi ikus daiteke “usteut”, “ingouk”, “bauzute” bezalako egituretan.

“Dusu” eta “dusute” adizkiek badute kontsonante sudurkari eta sonanteen ondoren agertzen den aldaera bat, “tzu” / “tzute”. “Dusu” / “dusute” baino kolokialagoak direla dirudi.

egin al duzu? > iñ al tzu?

behar al duzue? > ber al tzute?

Ohar zer nolako indarra duen bustidurak paradigma honetan. Lezoar hiztunak bere-bereak sentitzen dituen formak dira, eta bestetik bereizgarri. Batez ere, Pasaia-Donostia inguruko hizkeren aldean.

Lehenaldia

	NIK	IK	ARREK	GUK	SUK	SUEK	AIEK
NI		nanen/naken yanen/ken	sitten sian niñun		senit(t)en seniasun niñusun	seniaten seniasuten niñusuten	siaten niñuten
I	niñen/niken		siñen/ken	geniñen/ken			
URA	niñen/nin nu(e)n	yunen/yuken	siñen/sin su(e)n	geniñen/genin genu(e)n	senu(e)n	senuten	suten
GU		gattunen/ken iunen/iuken	sigun		seni(g)un senigusun	seniguten senigusuten	si(g)uten
SU	nisun		sisun	genisun			sisuten
SUEK	nisuten		sisuten	genisuten			sisuten
AIEK	nittu(e)n	ttunen/ken	sittu(e)n	genittu(e)n	senittu(e)n	senittusten	sittusten siusten

NOR 3. pertsona singular eta pluralean bada forma aldetik joera aipagarri bat. Kasu gehienetan asimilazioz -e- galtzen bada ere (nuen > nun, zenuen > zenun) hiztun askok -e- horri eusteko joera du. Joera hau, badirudi, Lezon erregistro kolokial eta formala bereizteko baliapidea dela.

Alegiazkoa

	NIK	IK	ARREK	GUK	SUK	SUEK	AIEK
NI		yaken/k	liake niñuke		seniake	seniateke	liateke niñuteke
I	niken/kek		liken/k	geniken/k			littiken/k
URA	nuke	yuken/k	luke	genuke	senuke	senuteke	luteke
GU		iuken/k	liguke		seniguke	seniguteke	li(g)uteke
SU	nisuke		lisuke	genisuke			lisuteke
SUEK	nisuteke		lisuteke	genisuteke			lisuteke
AIEK	nittu(s)ke	ttuken/k	littu(s)ke	genittu(s)ke	senittu(s)ke	senittusteke	littusteke

Ahalera

	NIK	IK	ARREK	GUK	SUK	SUEK	AIEK
NI							
I							
URA	nesake	lesaken/k	lesake	genesake	senesake	senesakete	lesakete
GU							
SU							
SUEK							
AIEK	nitza(s)ke	litza(s)ken/k	litza(s)ke	genitza(s)ke	senitza(s)ke	senitza(s)kete	litza(s)kete

Singularreko eta pluraleko 3. pertsoneri dagozkien formak baka-
rrik jaso ditugu.

Agintera

	NIK	IK	ARREK	GUK	SUK	SUEK	AIEK
URA		san/k			sasu	sasute	
AIEK		tzin/k			tzisu	tzisute	

Subjuntibera

Subjuntiberako paradigma osoa betetzeko adina forma jaso ez
badugu ere, zenbait forma sendoak dira.

intzaun = egin dezagun

etzatela = ez dezatela

jartzitela = jar ditzatela

NOR-NORI-NORK

Orainaldi singularra

	NIK	IK	ARREK	GUK	SUK	SUEK	AIEK
NEI		nan/k	nau		nasu	nasute	naute
RI	dit/ñiet		din/k	yeu/ñeu			ttek/n
AREI	yot	yon/k	yo	yogu	yosu	yosute	yote
GURI		di(g)un/k	digu		digusu	digusute	digute
SURI	disut		disu	disugu			disute
SUEI	disutet		disute	disugu			disute
AIEI	yotet	yoten/k yon/k	yote	yogu	yosu	yosute	yote

Orainaldi plurala

	NIK	IK	ARREK	GUK	SUK	SUEK	AIEK
NEI		naskik/n	naski		naskisu	naskisute	naskite
IRI	ttit/ttiñet diskit/ñiet		ttiik/n diskik/n	diskiyeu/ñeu			diskitten/k ttisten/k
AREI	diskiyot diskat	diskiyok/n	diskiyo diska	diskiyo(g)u diskagu	diskiyosu diskasu	diskiyosute diskasute	diskiyote diskate
GURI		diski(g)un/k	diski(g)u		diskigusu	diskigusute	diskigute
SURI	diskisut		diskisu	diskisugu			diskisute
SUEI	diskisutet		diskisute	diskisugu			diskisute
AIEI	diskiyotet diskatet	diskiyoten/k	diskiyote diskate	diskiyogu diskagu	diskiyosu diskasu	diskiyosute diskasute	diskiyote diskate

Lehenaldi singularra

	NIK	IK	ARREK	GUK	SUK	SUEK	AIEK
NEI		yaken/yanen	sitten sian		senit(t)en seniasun	seniaten seniasuten	siaten
IRI	niken/niñen nin/niñen		sinen siken sin/siñen	geniñen geniken genin/geniñen			sittenen sitteken
AREI	niyon	yoken/nen	siyon	geniyon	seniyon	seniyoten	siyoten
GURI		i(g)unen/ken	si(g)un		senigun senigusun	seniguten senigusuten	si(g)uten
SURI	nisun		sisun	genisun			sisuten
SUEI	nisuten		sisuten	genisuten			sisuten
AIEI	niyoten	yonen/ken yotenen	siyoten	geniyoten	seniyoten	seniyoten	siyoten

Lehenaldi plurala

	NIK	IK	AREK	GUEK	SUK	SUEK	AIEK
NEI		naskinen/ken	siskitt(en)		seniskitt(en) seniskiasun	senisklaten senisklatsuten	sisklaten
IRI	niskikien niskifinen niskin/ñen		siskiñien/ken siskiñien/siskin	geniskifinen/ken geniskifinen/geniskin			siskittenen/k
AREI	niskiyon niskan	iskiyonen/k	siskiyon siskan	geniskiyon geniskan	seniskiyon seniskan	seniskiyoten seniskaten	siskiyoten siskaten
GURI		iskit(g)uken/nen	siskit(g)un		seniskitgun	seniskitguten	siskitguten
SURI	niskisun		siskisun	geniskisun			siskisuten
SUEI	niskisuten		siskisuten	geniskisuten			siskisuten
AIEI	niskiyoten niskaten	iskiyotenen/ken	siskiyoten siskaten	geniskiyoten geniskaten	seniskiyon seniskan seniskiyoten	seniskiyoten seniskaten	siskiyoten siskaten

Datiboa singularreko edo pluraleko 1. pertsona denean ZUK eta ZUEKen pertsona ezaugarriak bitan agertzen dira adizki laguntzailean:

siasun = ZidaZUn

senigusuten = ZeniguZUten

Ahalera

	NIK	IK	ARREK	GUK	SUK	SUEK	AIEK
NEI							
IRI							
AREI	nesayoke	lesayokek/n	lesayoke	genesayoke	senesayoke	senesayoteke	lesayoteke
GURI							
SURI							
SUEI							
AIEI	nesayoteke nesayoke		lesayoteke lesayoke	genesayoteke genesayoke	senesayoteke senesayoke	senesayoteke senesayoke	lesayoteke

Alegiazkoa

	NIK	IK	ARREK	GUK	SUK	SUEK	AIEK
NEI		yaken/k	liake		seni(a)ke	seniateke	liateke
IRI	niken/k			genikek/n			littekek/n
AREI	niyoke	yoken yokek	liyoke	geniyoke	seniyoke	seniyoteke	liyoteke
GURI		iuken/kek	liguke		seniguke	seniguteke	liguteke
SURI	nisuke		lisuke	genisuke			lisuteke
SUEI	nisuteke		lisuteke	genisuteke			lisuteke
AIEI	niyoteke niyoke	yokek/n	liyoteke	geniyoteke geniyoke	seniyoteke seniyoke	seniyoteke seniyoke	liyoteke

Agintera

	NIK	IK	ARREK	GUK	SUK	SUEK	AIEK
AREI		(a)kiyon/k yok/n			yosu (a)kiyosu sayosu	yosute (a)kiyosute sayosute	
AIEI		(a)kiyen/k			yosu sayosu	yosute sayosute	

nor-nori-nork eta nor-nork nahasketa aginteran: esan nasute!

ADITZ TRINKOAK

Lehenaldian ekialdeko ereduari jarraituz orainaldiko -a- gordezten da trinko guzietan, baita -a- bigarren silaban gertatzen denean ere.

nAkiyen
sAbillen
nAkaskin

Pluraleko hirugarren pertsonako adizkiak osatzeko pluralgileak bikoizturik agertzen zaizkigu. Lehendik dagoen pluralgileari, edozein dela ere, bigarrena gehitzen zaio.

-TZA + Z + TE: dabilzaste
-Z + TE: dijuaste

Joan eta ibili aditzen lehenaldiko adizkiak jokatzeko:

Lehenaldiko formak “orainaldia + (e)N” arauari jarraituz osatuak dira. Salbuespena hirugarren pertsonak dira. Hauek eN ezezik adizkiaren hasierako kontsonantea aldatzen dute (d > s):

guas - guasEN
dijua - SijuEN
nabil - nabillEN
dabilzaste - sabiltzasteN

Lezon “eldu” aditzaren era perifrastikoak etorri aditzaren forma trinkoen lekua betetzen du. Horregatik ez dugu emen etorri aditzaren taularik jarri.

eldu da = dator, badator
eldu nitzan/eldu nitzen = nentorren

Egon

	ORAINALDIA	LEHENALDIA
NI	no	neon
I	yo	yoken / nen
URA	do	seon
GU	gaude	gauden / geuden
SU	saude	sauden
SUEK	sauste/saoste	sausten
AIEK	doste	seosten

Lehenaldia osatzeko ohiko “-N”z gain erro mailako hiru joera ikusten dira:

1.- Singularreko 1. eta 3. pertsonen adizkiak osatzeko NENGOEN adizkiaren analogiaz sortutako adizkiak erabiltzen dira:

nengoen > negon > neon
zengoen > zegon > segon

2.-Singularreko 2. pertsona nahiz Pluraleko GU eta ZU pertsonen adizkiak osatzeko “orainaldia +N” egiten da:

gaude + N > gauden
zaude + N > sauden
yo + N > yoneN / yokeN

3.- Hirugarren hau bigarrenaren aldaera da. Pluraleko ZUEK eta HAI EK pertsonen adizkiak osatzeko EGON forma zaharrari eutsiz N lehenaldiko marka gehitzen zaie:

zagozte + N > saosteN > sausteN
dagozte + N > sagosteN / segosteN > seosten
(ohar hemen ez dela -a- gordetzen)

Joan

	ORAINALDIA	LEHENALDIA
NI	nijua	nijuen
I	yua	yuaken / nen
URA	dijua	sijuen
GU	guas	guasen
SU	suas	suasen
SUEK	suaste	suasten
AIEK	dijuaste	sijuasten

Singularreko 1. eta 3. pertsona eta pluraleko 3. pertsonak JOAN aditzaren “j”ri eusten diote bai orainaldian, bai lehenaldian, ez hala, gainerako adizkiek.

Ibili

	ORAINALDIA	LEHENALDIA
NI	nabil	nabillen
I	(y)abil	(y)abillen
URA	dabil	sabillen
GU	gabiltza	gabiltzan
SU	sabiltza	sabiltzan
SUEK	sabiltzaste	sabiltzasten
AIEK	dabiltzaste	sabiltzasten / sebiltzasten

NOR-NORK erako aditzak jokatzenko:

Lehenaldiko singularrean GU, ZU eta ZUEK pertsonak bi aldaera dituzte kasu guzietan. Aldaera hauetariko batek pertsona ezaugarriak bikoizturik ditu:

GenakiGUn
SenakaSUn
GenakarkiGUn

Pluralean arau honi ez zaio horren estuki jarraitzen. Beraz, eredu honi eusten dioten formak topa badaitezke ere, ez dira besteak bezain sendoak.

SekiskiSUn
GenakiskiGUn
SenakarskiSUn

Bestetik, NI, HARK, GU eta ZUren kasuetan adizkiek bi amaiera dituzte. Batetik forma osoari eusteko, alegia, diptongoari eusteko, “yod” soinua tartekaturik duten formak ditugu. Bestetik, berriz, jatorrizko formaren -e- asimilazioz galtzen duten formak ditugu. Beraz:

Genakiskiyen - Genakiskin

Jakin

	ORAINALDIA		LEHENALDIA	
	SINGULARRA	PLURALA	SINGULARRA	PLURALA
NIK	dakit	dakiskit	nakiyen	nakiskin/yen
IK	dakik/n	dakiskin/k	(y)akiken	(y)akiskiken/ñien
AREK	daki	dakiski	sakiyen	sakiskin/yen
GU	dakigu	dakiskigu	genakiyen/genaki(g)un	genakiskin/yen
SU	dakisu	dakiskisu	senakiyen/sekisun senakisun	senakiskin/yen
SUEK	dakisute	dakiskisute	senakiten/senakisuten	senakiskit(t)en
AIEK	dakite	dakiskit(t)e	sekisuten sakiten	sekiskisuten sakiskit(t)en

Lehenaldiko ZUren forma singularra eta ZUEKen forma singular eta plurala orainaldikoari hasierako “d” “z” z ordeztu eta N gehituz ere osatzen dira. Forma hauek, ordea, salbuespenak dira.

sekisuN
sekisuteN
sekiskisuteN

Euki (Iruki)

	ORAINALDIA		LEHENALDIA	
	SINGULARRA	PLURALA	SINGULARRA	PLURALA
NIK	dakat	dakaskit	nakan	nakaskin/yen
IK	dakan/k	dakaskik/n	(y)akaken/nen	(y)akaskiñen/ken
AREK	daka	dakaski dauski	sakan	sakaskin sakaskiyen sauskin
GU	dakagu	dakaskigu	genakan genakagun	genakaskin genakaskiyen genakaskigun
SU	dakasu	dakaskisu	senakan senakasun	senakaskin senakaskiyen senakaskisun
SUEK	dakasute	dakaskisute	senakaten senakasuten	senakaskit(t)en senakaskisuten
AIEK	dakate	dakaskite	sakaten	sakaskit(t)en

Pluraleko formak -ZKI- pluralgileaz eraikitzen dira.

*daukazki > dakaski / dauski

Geografikoki DAUSKI eta kidekoak ekialdeko baserrialdean erabiltzen dira.

Ekarri

	ORAINALDIA		LEHENALDIA	
	SINGULARRA	PLURALA	SINGULARRA	PLURALA
NIK	dakarkit(t)	dakarskit(t)	nakarkin/nakarkiyen	nakarskiyen
IK	dakarkik/n	dakarskik/n	(y)akarkiken/ñien	(y)akarskiñien/ken
ARK	dakarki	dakarski	sakarkin sakarkiyen sakarren	sakarskin sakarskiyen
GU	dakarkigu	dakarskigu	genakarkin genakarkiyen genakarkigun	genakarskin genakarskiyen
SU	dakarkisu	dakarskisu	senakarkin senakarkiyen senakarkisun	senakarskin senakarskiyen
SUEK	dakarkisute	dakarskisute	senakarkit(t)en senakarkisuten	senakarskit(t)en senakarskisuten
AIEK	dakarkit(t)e	dakarskit(t)e	sakarkit(t)en	sakarskit(t)en

ADITZ ETIKOA

Ezin esan tamalez, gure herrian hizkera alokutiboa osasuntsu dagoenik, ez behintzat 35 urtetik beheitiko herritarren artean. Emakumezkoen artean hika aritzeko joera apalagoa dela antzeman liteke gainera. Orain 20-30 urte berorikako hizkera bizirik eta hitanoa nahikoa sendo baldin baziren, ohitura aldaketak berorika-koaren galera ia erabatekoa eta hitanoaren ahultze nabarmena ekarri ditu. Badira hitanoan aritzen diren gazteak baina forma sol-teak darabiltzate mintzaldi osoa hitanoan egiteko gai ez direlako. Gai direnak, berriz, baserrietako seme-alabak esaterako, ez dute kalekoengan hitano hiztunik ikusten eta hizkera neutro edo arrun-tera jotzen dute.

Hitanoaren kasuan ere bustiduraren fenomenoaz azpimarratu beharrean gara. Kasu honetan gainera, bustidurak garrantzi handi-agoa hartzen duela dirudi. Erregistro zenbat eta kolokialagoa, solasa zenbat eta azkarragoa, konfidantza zenbat eta handiagoa, bustiduraren presentzia handiagoa dela esan liteke, laburtzeak, galerak eta honelakoak bezalaxe.

Hiatuai eusteko "yod" hotsa hizkera arruntean baino gehiago erabiltzen dela dirudi.

Gizonezko pertsona marka -k- da beti eta bere horretan eusten zaio baita iraganeko formetan ere. Ez da, beraz, -k / -a txandaketa-rik gertatzen.

Hikako forman adizkia bokalez hasten denez aurretik duen eta bokalez bukatzen den hitza gehitzean “yod” tartekatzeak joerak indar handia du, dena den ez da beti betetzen. Badirudi diptongatzeak eta asimilatzeak saihesteko egiten dela. Ohar honek adizkera neutroko nahiz alokutiboko hikako formentzat balio du.

hi Yabil
Ba Yakaken
Ekarri Yuken
Etorri Yitzan

ADIZKI LAGUNTZAILEA NOR

Zutano batua Lezoko bitanoa

Indikatibo orainaldia:

naiz	nak/nan
da	duk/dun
gara	gattuk/gattun
dira	ttuk/ttun

Indikatibo lehenaldia:

nintzen	niñuken/niñunen-niñun/niñunen
zen	yuken/yunen-yun/yunen
ginen	giñuken/giñunen- giñattuken/giña ttunen
ziren	ttuken/ttunen

Baldintza ondorioa oraina:

nintzateke	niñukek/niñuken
litzateke	yukek/yuken
ginateke	giñukek/giñuken
lirateke	ttukek/ttuken

Ahalera oraina:

naiteke	nittekek/nitteken
---------	-------------------

daiteke	sittekek/sitteken
gaitezke	giñeskek/giñesken
daitezke	sitteskek/sittesken

Ahalera lehenaldia:

nintekeen	nittekeken/nittekenen
zitekeen	sittekeken/sittekenen
gintezkeen	giñeskeken/giñeskenen
zitezkeen	sitteskeken/sitteskenen

Ahalera hipotetikoak:

ninteke	nittekek/nitteken
liteke	littekek/litteken
gintezke	giñeskek/giñesken
litezke	littes(te)kek/littes(te)ken

NOR-NORI

Indikatibo orainaldia:

natzaio	-----
natzaie	-----
zait	saiek/saien
zaio	sayok/sayon
zaigu	saiguk/saigun
zaie	sayotek/sayoten
gatzazkio	-----
gatzazkie	-----
zaizkit	saiskiek/saiskien
zaizkio	saiskiyok/saiskiyon
zaizkigu	saiski(g)uk/saiski(g)un
zaizkie	saiskiyotek/saiskiyoten

Indikatibo lehenaldia:

nintzaion	nitzayoken/nitzayonen
nintzaien	nitzayoteken/nitzayotenen
zitzaidan	sitzaieken/sitzaienen-sayeken/ sayenen
zitzaion	sitzayoken/sitzayonen-sayoken/ sayonen

zitzaigun	sitzaiguken/sitzaigunen -saiguken/ saigunen
zitzaien	sitzayoteken/sitzayotenen-saiote ken/ sayotenen
gintzaizkion	-----
gintzaizkien	-----
zitzaizkidan	sitzaiskieken/sitzaiskienen-saiskie ken/saiskienen
zitzaizkion	sitzaiskiyoken/sitzaiskiyonen-sais kiyoken/saiskiyonen
zitzaizkigun	sitzaiskiguken/sitzaiskigunen-sais kiguken/saiskigunen
zitzaizkien	sitzaiskiyoteken/sitzaiskiyotenen- saiskieken/saiskienen

Baldintza ondorioa oraina:

nintzaioke	nitzayokek/nitzayoken
nintzaieke	nitzayotekek/nitzayotenen
litzaidake	litzaiekek/litzaieken
litzaioke	litzayokek/litzayoken
litzaiguke	litzaigukek/litzaiguken
litzaieke	litzayotekek/litzayoteken
gintzaizkioke	-----
gintzaizkieke	-----
litzaizkidake	litzaiskiekek/litzaiskieken
litzaizkioke	litzaiskiyokek/litzaiskiyoken
litzaizkiguke	litzaiskigukek/litzaiskiguken
litzaizkieke	litzaiskiyotekek/litzaiskiyoteken

Ahalera oraina:

nakioke	-----
nakieke	-----
dakidake	-----
dakioke	-----
dakieke	-----
dakiguke	-----
gakizkioke	-----
gakizkieke	-----

dakizkidake -----
 dakizkioke -----
 dakizkiguke -----
 dakizkieke -----

Ahalera lehenaldia:

nenkiokeen -----
 nenkiekeen -----
 zekidakeen -----
 zekiokeen -----
 zekigukeen -----
 zekiekeen -----
 genkizkiokeen-----
 genkizkiekeen-----
 zekizkidakeen-----
 zekizkiokeen -----
 zekizkigukeen-----
 zekizkiekeen -----

Ahalera hipotetikoa:

nenkioke -----
 nenkieke -----
 lekidake -----
 lekioke -----
 lekiguke -----
 lekieke -----
 genkizkioke -----
 genkizkieke -----
 lekizkidake -----
 lekizkioke -----
 lekizkiguke -----
 lekizkieke -----

NOR-NORK

Indikatibo orainaldia:

dut (d)it/ñet
 ditut tit/ttiñet- /-skit/-skiñet

nau	siek/sien
du	(d)ik/(d)iñ
gaitu	gattik/gattin- si(g)uk/si(g)un
ditu	ttik/ttin- -skik/-skin
dugu	yeu/ñeu
ditugu	ttiu/ttiñeu- -skiyeu/-skiñeu
naute	siatek/siaten
dute	ttek/tten
gaituzte	gattistek/gattisten-si(g)utek/si(g)uten
dituzte	ttistek/ttisten- -skittek/-skitten

Indikatibo lehenaldia:

nuen	niken/niñen-nin/niñen
nituen	nittin/nittinen-niskiken/niskiñen
ninduen	sieken / sienen
zuen	siken/siñen-siñ/siñen
gintuen	si(g)uken/si(g)unen
zituen	siskiken/siskiñen-siskiñ/siskiñen
genuen	geniken/geniñen
genituen	geniskiken/geniskiñen- genittin/geni ttiñen
ninduten	niñuteken/niñutenen-siateken/siate nen
zuten	sit(t)eken/sit(t)enen
gintuzten	siguteken/sigutenen
zituzten	siskit(t)eken/siskit(t)enen

Baldintza ondorioa oraina:

nuke	nikek/niken
nituzke	niskikek/niskiken-nittiskek/nittisken
ninduke	liakek/liaken
luke	likek/liken
gintuzke	ligukek, liguken
lituzke	liskikek/liskiken
genuke	genikek/geniken
genituzke	geniskikek/geniskiken
nindukete	liatekek, liateken
lukete	litekek/liteken

gintuzkete	li(g)utekek, li(g)uteken
lituzkete	liskittekek/liskitteken

Ahalera oraina:

dezaket	nezakek/nezaken
ditzaket	nitzakek/nitzaken
nazake	-----
dezake	lesakek/lesaken-sesakek/sesaken
gaitzake	-----
ditzake	litzaskek/litzasken-sitzaskek/sitzasken
dezakegu	genesakek/genesaken
ditzakegu	genitzaskek/genitzasken
nazakete	-----
dezakete	lesaketek/lesaketen-sesaketek/sesaketen
gaitzakete	-----
ditzakete	litzasketek/litzasketen

Ahalera lehenaldia:

nezakeen	-----
nitzakeen	-----
nintzakeen	-----
zezakeen	-----
gintzakeen	-----
zitzakeen	-----
genezakeen	-----
genitzakeen	-----
nintzaketen	-----
zezaketen	-----
gintzaketen	-----
zitzaketen	-----

Ahalera hipotetikoak:

nezake	nesakek/nesaken
nitzake	nitzakek/nitzaken
nintzake	-----
lezake	lesakek/lesaken
gintzake	-----
litzake	litzaskek/litzasken

genezake	genesakek/genesaken
genitzake	genitzaskek/genitzasken
nintzakete	-----
lezakete	lesaketek/lesaketen
gintzakete	-----
litzakete	litzasketek/litzasketen

NOR-NORK erako indikatiboko adizkietan bi pluralgile ditugu elkarrekin lehian: it / zki. Arestian lehia hori aipatu badugu ere, hitanoan are nabarmenagoa gertatzen da.

dixkit - ttit (ditiat)

dixkittek -ttiztek (ditzitek)

NOR-NORI-NORK

Indikatibo orainaldia:

diot	siot/sionet
diet	siotet/siotenet
dit	siek/sien
dio	siok/sion
digu	si(g)uk/si(g)un
die	siotek/sioten
diogu	siou/sioneu
diegu	siou/ sioneu - sioteneu
didate	siatek/siaten
diote	siotek/sioten
digute	si(g)utek/si(g)uten
diete	siotek/sioten

Indikatibo lehenaldia:

nion	nioken/nionen
nien	nioteken/niotenen
zidan	sieken/sienen
zion	sioken/sionen
zigun	si(g)uken/si(g)unen
zien	sioteken/siotenen
genion	genioken/genionen
genien	genioteken/geniotenen

zidaten	siateken/siatenen
zioten	sioteken/siotenen
ziguten	si(g)uteken/si(g)utenen
zieten	sioteken/siotenen

Baldintza ondorioa oraina:

nioke	niokek/nioken
nieke	niotekek/nioteken
lidake	liakek/liaken
lioke	liokek/lioken
liguke	ligukek/liguken
lieke	liotekek/lioteken
genioke	geniokek/genioken
genieke	geniokek/genioteken
lidakete	liatekek/liateken
liokete	liotekek/lioteken
ligukete	liutekek/liuteken
liekete	liotekek/lioteken

Ahalera oraina:

diezaioket	-----
diezaieket	-----
diezadake	-----
diezaioke	-----
diezaguke	-----
diezaieke	-----
diezaiokegu	-----
diezadakete	-----
diezaiokete	-----
diezagukete	-----
diezaiekete	-----

Ahalera orainaldia:

niezaiokeen	-----
niezaiekeen	-----
ziezadakeen	-----
ziezaiokeen	-----
ziezagukeen	-----

ziezaiekeen -----
 geniezaioken -----
 geniezaiekeen -----
 ziezadaketen -----
 ziezaioketen -----
 ziezaguketen -----
 ziezaieketen -----

Ahalera hipotetikoak:

niezaioke -----
 niezaiieke -----
 liezadake -----
 liezaioke -----
 liezaguke -----
 liezaieke -----
 geniezaioke -----
 geniezaiieke -----
 liezadakete -----
 liezaiokete -----
 liezagukete -----
 liezaiekete -----

Aditz trinkoak

Adizki trinkoek erroan -a- gordetzen duten orainaldian nahiz lehenaldian. Orainaldiko forma batzuetan (JAKIN aditzarena da sendoena), aldiz, a/e txandaketa gertatzen da. Zenbait kasutan txandaketa hau beste aditzetara ere hedatzen da, indar ttikiagoz ordea.

Egon eta joan adintzen pluraleko 1. pertsonan bikoiztasuna gertatzen da. Indar gehien duten formak GAUDEN/K eta GUA-SIK/GUASIÑ baldin badira ere, hauen ondoan, maiztasun apalagoz, GIOSEK, GIESEK adizkiak ditugu.

NOR-NORKeko adizki trinkoetan pluraleko 1. pertsonaren pertsona ezaugarria -YEU/-ÑEU da -GU soilaren ordez. “Diagu / dinagu”ren bilakaeraz sortutako marka da, antza.

Egon

Orainaldia:

nago	niok/nion
hago	yo
dago	siok/sion
gaude	gaudek/gauden - gausek/n- giosek/n
daude	siostek/siosten

Lehenaldia:

nengoen	nioken/nionen
hengoen	yoken/yonen
zengoen	sioken/sionen
geunden	gaudeken/gaudenen-gioseken/giosenen
zeuden	siosteken/siostenen

Euki (Iruki)

Orainaldia:

(singularra)	
daukat	sakat/sakanet
daukak/n	dakak/dakan
dauka	sakak/sakan
daukagu	sakayeu/sakañeu
daukate	sakatek/sakaten

(Plurala)

dauzkat	sakaskit/sakaskiñet
dauzkak/n	dakaskik/dakaskiñ
dauzka	sakaskik/sakaskiñ
dauzkagu	sakaskiyeu/sakaskiñeu
dauzkate	sakaskittek/sakaskitten

Lehenaldia:

(singularra)	
neukan	nakaken/nakanen
heukan/nan	(y)akaken/(y)akanen
zeukan	sakaken/sakanen
geneukan	genakaken/genakanen
zeukaten	sakateken/sakatenen

(Plurala)

neuzkan	nakaskiken/nakaskiñen
heuzkan/nan	(y)akaskiken/(y)akaskiñen
zeuzkan	sakaskiken/sakaskiñen
geneuzkan	genakaskiken/genakaskiñen
zeuzkaten	sakaskitteken/sakaskittenen

Joan

Orainaldia:

noa	niek/nien -nijien/k
hoa	(y)ua
doa	siek/sien-sijien/k
goaz	guasik/guasiñ -giesek
doaz	siestik/siestiñ

Lehenaldia:

nindoan	nieken/nienen -nijienen/ken
hindoan	yuaken/yuanen
zihoan	sieken/sienen -sijienen/ken
gindoazen	guasiken/guasiñen -giesinen/ken
zihoazen	siestiken/siestiñen

Sigularreko 1. eta 3. pertsonan, orainaldian nahiz lehenaldian adizkiak eraikitzeko bi jokabide daude indarrean. Bata “j” rik gabe-ko JOAN-en erroa (IOANetik abiatuz) eta bestea “j” duna (JOA-Netik abiatuz).

niek - nijiek

Jakin

Orainaldia: (singularra)

dakit	sekit/sekiñet
dakik/n	(d)akik/(d)akiñ
daki	sekik/sekiñ
dakigu	sekiyeu/sekiñeu
dakite	sekittek/sekitten

(plurala)

dakizkit sekiskit/sekiskiñet

dakizkik/n	(d)akiskik/(d)akiskiñ
dakizki	sekiskik/sekiskiñ
dakizkigu	sekiskiyeu/sekiskiñeu
dakizkite	sekiskittek/sekiskitten

Lehenaldia: (singularra)

nekien	nakiken/nakiñen
hekien	(y)akiken/(y)akiñen
zekien	sakiken/sakiñen
genekien	genakiken/genakiñen
zekiten	sakitteken/sakittenen

(Plurala)

nekizkien	nakiskiken/nakiskiñen
hekizkien	(y)akiskiken/(y)akiskiñen
zekizkien	sakiskiken/sakiskiñen
genekizkien	genakiskiken/genakiskiñen
zekizkiten	sakiskitteken/sakiskittenen

Ibili

Orainaldia:

nabil	nabilek/nabillen
habil	(y)abil
dabil	sabilek/sabillen
gabiltza	gabiltzak/gabiltzan
dabiltza	sabiltzastek/sabiltzasten

Lehenaldia:

nenbilen	nabileken/nabillenen
henbilen	(y)abileken/(y)abillenen-
	(y)abillen/(y)abillenen
zebilen	sabileken/sabillenen
genbiltzan	gabiltzaken/gabiltzanen
zebiltzan	sabiltzasteken/sabiltzastenen

Eaman

Orainaldia:

(singularra)	
daramat	samakit(t)/samakiñet
daramak/n	damakik/damakiñ

darama	samakik/samakiñ
daramagu	samakiyeu/samakiñeu
daramate	samakittek/samakitten

(plurala)

daramatzat	samaskit(t)/samaskiñet
daramatzak/n	damaskik/damaskiñ
daramatza	samaskik/samaskiñ
daramatzagu	samaskiyeu/samaskiñeu
daramatzate	samaskittek/samaskitten

Lehenaldia: (singularra)

neraman	namakiken/namakiñen
heraman	(y)amakiken/(y)amakiñen
zeraman	samakiken/samakiñen
generaman	genamakiken/genamakiñen
zeramaten	samakitteken/samakittenen

(Plurala)

neramatzan	namaskiken/namaskiñen
heramatzan	(y)amaskiken/(y)amaskiñen
zeramatzan	samaskiken/samaskiñen
generamatzan	genamaskiken/genamaskiñen
zeramatzaten	samaskitteken/samaskittenen

Ekarri

Orainaldia: (singularra)

dakart	sakarkit/sakarkiñet
dakark/ dakarran	dakarkik/dakarkiñ
dakar	sakarkik/sakarkiñ
dakargu	sakarkiyeu/sakarkiñeu
dakarte	sakarkittek/sakarkitten

(Plurala)

dakartzat	sakarskit/sakarskiñet
dakartzak/ dakartzan	dakarskik/dakarskiñ

dakartza	sakarskik/sakarskiñ
dakartzagu	sakarskiyeu/sakarskiñeu
dakartzate	sakarskitttek/sakarskitten

Lehenaldia: (singularra)

nekarren	nakarkiken/nakarkiñen
hekarren	(y)akarkiken/(y)akarkiñen
zekarren	sakarkiken/sakarkiñen
genekarren	genakarkiken/genakarkiñen
zekarten	sakarkitteken/sakarkittenen

(Plurala)

nekartzan	nakarskiken/nakarskiñen
hekartzan	(y)akarskiken/(y)akarskiñen
zekartzan	sakarskiken/sakarskiñen
genekartzan	genakarskiken/genakarskiñen
zekartzaten	sakarskittéken/sakarskittenen



ADITZONDOAK

Aditzondoak denborazkoak, lekuzkoak, moduzkoak, zenbatekoari erreferentzia egiten diotenak eta iritzi aditzondoak izaten dira. Mota bakoitzaren adibide zerrenda erakusgarri bat jarri dizuegu. Dena den, zerrenda honek ez ditu aukera guztiak agortzen.

Denborazkoak

aspaldi	beti	mais
atzea	biar	noisonois
atzena	bitartian	noisiketabein
atzo	ereun	oan
auro	etzi	oneskeo
aurrena	eunero	orduan/ordun
bein	gaur	seittuan
bela	geostik(anen)	sekulan
beñe/beñes	laxter	tarteka

	1. gradua	2. gradua	3. gradua
NON	emen	or	an
NON INDARTUA	ementxe(n)	ortxe(n)	antxe(n)
NONGO	emengo	orko	ango
NORA	onea	orrea	arrea/area/ara
NORAINO	oneaño	orreaño	arreaño/areaño/araño
NONDIK	emendik(an(en))	ortik(an(en))	andik(an(en))

Lekuzkoak

aldian	basterrian	noabatte
atzian	bertan	onuskaldian
aurrian	bian	tartian
auskaldian	erdiparian	tokitan
ayekan	goyan	txokuan
barrena	goyen	

	1. gradua	2. gradua	3. gradua
NOLA	ola	ola	ala
INDARTUAK	olaxe	olaxe	alaxe

Moduzkoak

aixa	errax/errex/	muturka
alamous	arrax	muturresaurrea
ankasgora	farres	nolapatte
aspikosgain	garais	ongi / ondo
atzekosaurrea	gaxki	oñes
bakarrik	generalian	orruka
banaka	geyo	presaka
beorriberian	gutxiorabeera	pulliki-pulliki
beriertan	ixilik	seuru
betia	jeneralmente	sutan
bultzaka	kaskasian	tapa-tapa
dardarka	korrika	txintxo
debalde	makal	ujuka
ederki	marrues	sarra-sarra
erdipurdi	motel	oimbestia

Zenbatekoari erreferentzia egiten diotenak

asko	geina	pranko
bakan	gutxi	purrusta
bastante	kantidadia	puxka
deus	makiñaat	ugari
ederki	neikua	
errus	obeki	
eser	pixarra	
galanki	pixka	
aiñ	dexente	
arrunt	erdi	

1. gradua	2. gradua	3. gradua
Oimbeste	orrembeste	aimbeste

aski	naiko /neiko
asko	orren

Maila aditzondoak

oso
txoil
arrunt/arront
señen
xamar

Iritzi aditzondoak

akaso
ayan
balitteke
baldimetan
noski
numbatte

SINTAXIA. PERPAUS EGITURAK

Sintaxian, testu bateko esaldiek euren artean duten harreman motaz ari garelarik, perpaus bakunak eta perpaus elkartuak bereizi behar ditugu lehen-lehenik. Bigarren hauek harturik, elkartuak alegia, juntaduraz eta menderakuntzaz hitz egin behar dugu. Esaldien arteko lotura juntagailu bidez gauzatzen bada, juntadura izezez deituko dugu: eta menderagailu bidez gauzatzen bada, berriz, menderakuntza. Hala ere, perpausak beregainak izanik ere, euren arteko lotura-ñabardura bat ezartzen duten elementuak ere badira; lokailuak.

LOKAILUAK**Emendiozkoak*****(R)E BAI / DE BAI***

- Eta geo kaliane, kalian bertan debai
- Grasi beresi bat sun baa, o granilluan o txinpartian o kolorian baa, ta ean-gustuan e bai
- Geo poxpoliñak eta sea espata dantzak ebai!

(R)E ES / DE ES

- Enas goatzen... Ni re es
- Nik emene es nuen nabaittu eserre
- Iriñik etzen isaten, gariyik de es

BAITA... (R)E / DE

- Oitamabost urtian baita Sanjuandike, motorrian pasata, ta trambian ebai
- Ara juaten tzen, ta baita sean ee, oain Xelextina o bisittu dien tokiyan, orre ondu nitzan neskame
- Saardoteita Errenteitik etortzen tzien ta baita Sanjuandike

ESTA... (R)E / DE

- Estapentzature!
- Esta aldeatzekore
- Esta ideike! Biño mordoska e!

NAIS... (R)E / (D)E

– Muellian beti, muellian, nais denbora batian de

EZ... (R)E / DE

– Enas goatzen sein isandu diene...

(R)E / DE

– Gu re poxpoliña giñen, e!

– Aik e onea etortzentzien saar billa

– Or de sagardotei politta sen

GAÑ(E)A

– Eta beak eskondu omen tzun gañea

– Ta linbisiko gudaritakuak gañea

– Gañea, geo beiartan aik aguantatu itte suten urtitan ta urtitan

BIÑIPIN / MIÑIPIN

– Etzeit ondo o gaiski o, biñipin...

– Miñon an geldittuak, oyek biñipin badakit

– Batzuk igual enak guatzen, bakik, biño, biñipin, sea Diago, o delakuoi

BEINTZAT / BINTZAT / MINTZAT

– Gue atta senak eta baserritar askok beintzat, askok oo batzuk beintzat diskusiyua o sea bat isatentzuten

– Noabatte eamantzittusten beintzat

– Attak eta ekartzen tzittusten lampernak eta nei bintzat deitzen tziaten

– Bai, bai, jende asko etortzen tzen, ya uda dembuan bintzat, Madrillik sela ta, ene!

– Errentei ta Irun mintzat asko onea

– Biño lenbisuyan mintzat dena baldeka

BENIK

– Denak es, miñon lan benik etorri sien

GUTXINIAN

– Martin Kerejeta ta oik, amabi urte gutxinian sarro ni biño

GEO

- Geo kalian bertan goyen, Kabitte, o Kabitteaundi
- Eta geo kalia, bertan de bai, kalia iru o lau basian da
- Geo Urrulokok Txerrimuño ibiltzentzun, geo Bordatxo au, ta orrea goitti kokkorren bat o beste

Hautakariak*GAÑEKUAN*

- Berdion, berdion, miño gañekuan emene, arrantzane aitze ttuken
- Ikusten tzuen ondo iña Lesoko gastiak ayengatikanean, bai, gañekuan emen etzan sesioik eta sortzen
- Nonnai isaten tzien, Urrullon ta isaten tzien, biño, ola gañekun.

GAÑUNTZIAN ((D)E)

- Lautan ateratzen giñanian, gañuntzian es, ta geo jayetan
- Falta balimbasen, Tolosatik o ingurutatik ekartzen tzen, miñon gañuntzian bertakua
- Ba Leson besela gañontzian de, orduan saardua ittia denian jetxi san ee!

BESTELA

- Ola baldin bada, bien, bestela beintzat estut nai ne soldadoik konpañitit aldeitteik
- Argiya itzaliya sakanian, o bestela gabian
- Seatikanean bestela selayan, etorri sea su bero-beroina, ta an barrika, ta artusu saardua, ta jenealment bintzat, sasoyian donian traguan litrokua

Aurkaritzakoak*ALA(R)E / ALADE*

- Ta bukatzen genunian ordu pare bat pasatze genun, alare, e!
- Ikastola bialtzene, ikastola, ta alare erderas gurasuak!

ALATAGUSTISE

- Eniyun joaten ni, estimatua yun, alatagustise
- Alatagustise Leson saardi asko san

BERRIS

- Nik naikua ittenun auro ta besteatzuk, berris, ean ta ean
- Ni enitzan beñe aserretzen, ta oan, berris, beti aserre no.
- Jendia an bian eoten tzen beida eta su, berris, teatrua itten an goyartan.

ORDIA (N)

- Eñ imbiar, es itten ordia
- Astu itten, ordian, gausa asko
- Es itten ordia, oire

Erdarazko egiturak

- Beak, enkambio, Billafrankakuak sien, miño dena erderas
- Gu, enkambio, gu memoris dena
- Ta enkanbio emen berris alako saarrak sien

Ondoriozkoak**ALA / ALA BA / ALA BEINTZAT**

- An serenuak ikusi ta ierri eana seola, ala serenuak beak
Errenteiko mugaño eo, estasiyoaño eamana isango sun
- Ala ba, joan giñan Gantxusketa biriora
- Ala beintzat, pentzasu, pasamontañas se isaten den

BA

- Emen esan o Errenteikua isan ba iru duron diferentziya ibil-
tzen tzen gutxineko
- Karga terdi ematen tzittunes, ba, berreun da ogei litro
- Es oik saardogintzalliak bertzittusten iñondik iñoa ba beste saa-
rrakin naasi eta beste saarduorri alako bisitasun bat emateko

JAKIÑA (=BERAZ)

- Jakiña, askeneko, askeneko ordura beitzen balimbayogu
isango sien orduan oitamar urtekuake.

Erdarazko egiturak:**OSEA / OSEAKE**

- Oseake kargasaarra irureundairurogei bat kilo o ola isatentzan

- Oseake berreundaogei litro
- Oseake, estala oaingua alkatia kentzia
- Osea, orduan ni estakitpa sembat isango sittusten aik

Kausazkoak

SE(RG)ATIK / SEATIKAN / SEATIKANEN

- Gastiena ni isango nitzan seguruasko, o gastienetakua, seatik, Anttonio Pikabea ta oik denak sarro sien
- Estakit nois isango sen oi, sergatik soldaduak, onea nasionalak sartu biño lenuo isango sen.
- Attak etzun nai, sea, atatzia seatik beakin eotia naisumba.
- Gue amak lan gutxi ingo sun seatikan dendan eoten tzen.
- Seatikan or kampotik saarra ekartzem basenun
- Seatikanen orduko arbolak oandikan gurian badaude
- Seatikanen nais Santrakruzak, eta nais Paskuak eta nais Sanjuanak eta denak selebratzeituken emen, denak itte ttuken.

SE

- Jostaketa esan disutpa leno, orduane diferentia sela, sergatik, klaro, se es giñan igualak.

BA

- Ikusi in nai ba
- Andik etorri ber ba
- Subiyik etzeon ba, subiyik nik enun isautu, subiya riadak bota men tzuen.

Erðarazko egiturak:

ESKE

- Eske baserrirako obia baita pittar pixkat
- Eske Lesoko saarrik etzeon
- A! Eske suek estusute isautu

JUNTAGAILUAK

Emendiozkoak

(E)TA

- Saardi aundiyak eta, ta onea etortzen tzian jeneralmente
- Aike onea etortzen tzien saar billa genealian, eta oik isaten tzien onea etortzen tzien seak saardosaliak
- Ortxe biltzen tzan, eta tratua or erabakitzen tzan

(E)TA juntagailua bigarren elementu bezala

a) Juntagaia isilpean

- Salaberria ta, Nikolas Larrea ta, Xanti Rekaola ta Ariñen oyek eta,
- Kalian! Kalloketan ta, sokasaltuan ta, Goiko plazan ta,
- Errerako Sanluisetan fiestak eta, juan giñan ta iya tranbiak arrapatu ta... ooo!

b) (E)TA OYEK/OIK

- Saku saarrak isaten tzittun emengo saarra Txalaka ta oik
- Fiestak itte ttuken, eskudantzak eta oyek
- Gregoriok eta oyek esan tziguten

Aurkaritzakoak

BAÑA(N) / BIÑO(N) / MIÑO(N) / BAÑO

- Bañan etzien konforme
- Gaur es da biño orduan beti
- Ayei eamaten geniyon, biño itxeko saarra
- Oan atzea pixkat pixtua siokpiño.
- Ser estakit biñon, beatzireundaberrogeitaamalabian, noski, ieki genula
- Miño batzuek basitteken auskaldetikee
- Errenteia gaur beselakua etzan miño
- Astian jende mordoxka miñon, jayian, jayian isaten tzen, ba oneako, egualdi onian prosesiyua
- Kollo gukin ibiltzen tzen, miñon geroa juntzen, seara, ser da oi?

Hautakariak

O

- Argiya itzaliya sakanian, o bestela gabian
- Eta geo negu sean; kromoketan o kalloketan sototan sartu ta eskalletan jarri ta...
- Estakit ser tzian, olluak sien o ollandak sien

RO/O gutxi gora behera esanahiarekin

- Seatik Lesoko jayan inguruan o sen
- Ua iru pesta o durua o
- Ayek, amalau bat o sien

O, elementu berdintsuak lotzen dituenan

- Sosialista, o komunista o, o zeneteko jendia
- Esan tzuten sozialista o republikano jendiorrek
- Beren banderak o beren inkurriñakin

O, juntagaia isilean dagoenean

- Orduan isate sien autobusak lusiak, tolduakin, dena aurretik atzea toldua, korredera o nola isatea, tipuorta
- Emen tolaría jeneralmente, o anaya, o, tolaríoik ondo genittun orduan da
- Oain Xelextina o bisittu dien tokiyan

ALBORAKUNTZA

Banakariak

BAI..., BAI...

- Bai Leson, ta bai beste lekutane saardiya bintzat asko isangoia galduak...
- Bai lisarra, ta bai aitza ta, ta bai eoser
- Bai nobiyotan diela, ta bai geore, erderas itte ttek beak

ES..., ES...

- Arrek laneako etzun es gogoik, es fundametoik

(E)LA..., -(E)LA...

- Leson esun deuse, es sinea dela o, es billera dela o, deuse es baisen
- Patzulosaarra sela, ta Ispurua sela, ta

NAIS..., NAIS...

- Seatikanen nais Santrakruzak, eta nais Paskuak eta nais Sanjuanak eta denak selebratzettuken emen, denak itte ttuken.
- Nais sarrak eta nais gastiak eta solteruak eta eskonduak eta gastiguak eta denak itte tzitteken orduan emen garayartan

BAT.. BESTIA / BATZUEK... BESTIAK / BATETIKAN... BESTETIKAN

- Bata ayeka batian eskondu, bestiak Errenteyan bañon beti Lesokua
- Gañea batzuek aundiyak, bestiak, ttikiyak e bai.
- Or tzien bi emakume, bat illa da, bestia bizi da oandikan
- Batetikan bildu ta pixkate txukundu ber du, ta seatu ber du ta, lan asko da. Geo bestetikan, oaingo basarritarra geina do, gaude jarriyak, aragita o esneta

Adizkiarekin egiten dena

- Egualdi na in, txarra in, beti lanian

*MENDERAKUNTZA***Baldintzazkoak***Adizki jokatuaz***a) Errealak**

- Egualdiya bate itxura pixkatekua balinbasan ba, isatentzan, ba, prosesiyo bat
- Dantzan ibiltzen bagiñan mutillakin, sinta lasua moria eman ber genun
- Eta errenteiarrak Altzibarra joaten basien, kamiyoiz etzien tortzen.

-ian

— Ua alperra yun eta lan pisarra ittentzunian gustoa.

b) Alegiazkoa

— Oan esango banuke nik, ... or geatuko duk dena ta estuk komeni

— Katalanak besela bagiñake es giñattuken ola eongo

— Oain bagiñake Xixili ta Kollo ta denak ederki seatuko geniñe... giñake, akklaratuko giñake.

Baldintzaren aurrekariari berez ondoriozko formari dagokion-KE jartzeko joera nagusi da gure herrian.

- bagiñake

- banuke

Adizki jokatuabeaz

ESKEO (partizipioa + eskeo)

— Jakingottek galdetu eskeo

— Eñ eskeo alare, kontentu nioken ni, eñ imbiar, es itten ordia

— Kastigatu igual, euskaras arrapatu eskeo isketan o

ESKEO (partizipioa + eskeo). Harriðurazko esaldiz amaitua.

— Andik atea eskeo, akabo!

— Euskara galdu eskeo, or kompon ta kitto!

Erlatibozkoak

Adizki jokatuaz:

-N

— Patza isaten da saardua in ta geo gelditzen den saborra

— Urak asko jotze sun tokiyan gorriya

— Bear du basuan sortzen den arbola

-N+*Mugatzailea*

— Itxian itten tzenun itten tzenuna ta geo juatenitzan Donostira ba bordatzen ta eskulana pixka bat ikastea

— Gaur esaten estena, gaur ikusten estena mintzat, denak launak eta pakian

- Sanjuandarrak Lesoa tortzen tzienin, basien kantore onak e, kanta asko sakitenak.

Aposizioan

- Eta bandera republikanua, garayartan tzena, jarri san beroxio
- Neska bat bakarra isango sen eman etzuna deuses
- Meikuak oañ arte isaututtutenak, bueno, urte askuan sea, Don Pedro Barrios, kastillanua

Galdetzaileekin:

NOLA

- Lenguan beida ondu nitzan ta, nola goiko plazatik jaxten da
- Gerratian nola bonbak iltzun
- Neskame, arekin, arekin beakin, ta jarri ta, Polentzi ta biyek, Juana, Marikarmen oan nola do Iberduero

SEGUN ... NOLA

- Bi erriel, segun nola seatzen tzen
- Segun saarra nola etorri den o, se saasti ttun gutxiorabe-
era
- Segun nola sabillen bortzillotik

Aðizki jokatuabeaz:

-TAKO

- Leno gerratian ibilitako mutillak ematen sittusten kartzela
- Arrek nik emantako propina dik
- Andik etorritako kampoko jendiak emen jarri ttuken

Kausalak

Aðizki jokatuaz:

BAIT-

- Guk geina rekorridua saardoteitik saardoteira, emen nonai bai baisen saardoteya.
- Nola esango sionet? Es baigenakiun erdaras
- Baserrirako obia baita pittar pixkat

-TA

- Guek es genuen an, bagenuen ta ser jana
- Berua, berua ikaragarriya lau labe sien ta!
- Oi! Se erremeyo! Beste ser janik etzen ta!

-LAKO(S)

- Ayek arrapatu sittustelakos dena barrena
- Atta seatu selakos, neskame eta arraisaltzen eta ibilli ber isandu nun
- Arrek esin tziun traatu de in, mutillakin dantzan ibiltzen giñelakos
- Kantari asi omen tzialako eman tzittusten

-(E)LA (E)TA

- “Ataques epilepticos” ematen tziyotela ta, ta attack nai sun ni beakin eotia.
- Jendiak saarronduak jartziai utzi, kontuik etzula ta

NOLA... -N

- Nola “Acha”k influentziya isam bertzin erriyan sebatte ta
- Nola etzen orduan artzen tentziyuik
- Andreonea, or, euskis nola isaten tzen ta orrea juaten giñan

NOLA... BAI(T)-... -N

- Nola aurreko kinta nola lisenziatua baiton
- Nikaxi nola baisen launa...
- Atta nola miñes baiseon eta ni nola sarra nola baintzan, attack ni eotia naisun beti.

*Aðizki jokatu gabeaz:**Aðitz izena+ (N) + -(G)ATIK*

- Oi! Ikastiangatik geo eskola juaten tzeneako basenekisun ua, orratx!
- Askotan Kaputxinota es iyotziangatik, an baxterretik es iyotziangatik, trenbiretik, oi, tuneletik barrenetik sartzan giñan.
- Bueno neskak asi ttuken emene lembisi erdara jotzen, importantziya emateatik

Denborazkoak

-NIAN

- Ola ona senian, ene! esin abasto eman
- Sanjuandarrak Lesoa tortzen tzienin, basien kantore onak e, kanta asko sakitenak.
- Ikuste sigunian kamiyuan ola baloyakino, baloya kendu ta, joe, ta potoketane, ua tortzen tzenian... aguasilla!

-(E)LA (1) *Une jakin batean gertatzen den ekintza.*

- Gu ttikiyaguak giñala, dena ua sen, esen batzokiyik eta orduan
- Konejutan, koskorrian umia ateatzen ai dela, akatu itten
- Elurra tiraka muellian ai diela, begiya jo ta begiya galdu.

-(E)LA (2) *Denbora epe bat bete dela adierazten duena.*

- Gaur, o atzo oitabost urte erretirua artu nula

Aðitz izena + -AN

- Forrua juatian ikusko sitteken

Aðitz izena + -KUAN

- Oi usteut dotriña astekuan isaten tzen, otubre inguruan o ola...

BEIN... ESKEO

- Ua ate onduan eta bein ebanjeliyua eskeo etzela mesa entzuten eta atiak itxi.
- Bein sartu eskeo presik isaten es itxeako, eta enkambio, bein sea batzuek eskeo, ya, sesiyua.
- Bein amalau bat urteskeo, arbola dezentia, arbola aundiya ittentzen

ESKEO

- Eskondu eskeo enas poxpoliñ atea

Aðitz izena+ -AKO

- Ayek garbitzen tzuten makina, dena, gu juateako
- Emesortzi-emeretzi urte gu kalea asteako
- Geo eskola juaten tzeneako basenekisun ua, orratx!

ARTE / -EN ARTE

- Ortxe oten tzen ya aterarte
- Ala eondu sen urtietan kendu sen arte
- Ua jan arte an eondu giñan

(E)TA GE(R)O

- Patzá isaten da saardua in ta geo gelditzen den saborra isaten da
- Fabriketan lana in ta geo sagardoteyak ttuken orduan emen tabernaik esyukén iya

-TA

- Koskortuta... ttunttuna, ttunttuna, oi bai.

BESELA

- Bakalluak gatza bota ta ua ustutzen dijuen besela bakallua jartzeko

E(R)A

- Goiko plasan ta, bestela... geo aunditzea, sea... dantzan, dantzan
- Geo koskortzea juan giñen... Gualupea juaten giñan

BIÑO LEN(UO) / BIÑO LENOSTIK

- Onea nasionalak sartu biño lenuo isango sen
- Trintxerpen lan in baisuen, amasei urte kumplittu biño len
- Ni ua biño lenostik allatzen nitzan

Helburuzkoak*-T(Z)EKO*

- Urtia etorri ta beti esin allatuik errenta paatzeko
- Trenbiriai puska bat jarri siyoten pasteko, Kaputxinota joateko
- Postiayek denak imber tzien kalkulatu, panelak, denak igual baliyo isateko

Aðitz izena+ (-N-) + -GATIK(AN) / -TE(A)TIK(AN)

- Partikular, gu, geixio ikastetik o ola jungo giñun

- An baxterretik es iyotziangatik, trembiretik, oi! Tuneletik barrenetik sartzen giñan
- Bueno neskak asi ttuken emene lenbisi erdaraa jotzen, importantziya emateatik

-T(Z)EA

- Orrea juaten giñan Flora ta denak, sea, bañura, bañatzea
- Saarra jotzea tortzen tzian, pixkat launtzea
- Balentzitan joan giñan frentetako bombak lertzea

Kontzesiboak

BA- ... (E)RE

- Apropos, euskeras ai bagiñan e, sumatzen genuenian eldu sela o ola, erderas asi
- Lana geinian batian o bestian o sean, geo espasene itxian imber isaten tzen
- Saardoteyan amabost amasei laun balinbaseostene denai ronda atea

-ENIK

- Bikayuai, uste, beorrika itten tziyoten, ta bestiai suka, anayak sienik, e!

BA-... TA ES BA-

- Beurriya balimbadu ta espalimbadu kusiko yeu

Aðizki jokatugabeaz:

NAIS (TA)

- Orduan jendia bisitzea (...) naista Errenteyan isan, nais Leson isan (...) denak emen jarri ttuken.
- Egin, nais ankasartze batzuk isan, egin
- Nais batek eta bestiak elburu bera duen, biriak diferentiak
- Aurrekuak igual guatuko nak, paño oik, nais, seoguak isan, berriyak isan oaindikan, igual nois intzien enak guatzen

ARREN

- Bai, biño, ni beti biskarresurra ondatua nola isandu baiduten lana iñ arren, pues, enas guatzen searte

TA RE / DE

- Geo noispatte gure eskondu giñun ta, eskondutare, bixi
- Londrestarroiketa, (azeria) atrapatuta, bisiya arrapatutare, eskian ibiltzen tzian
- Gerra asitare, batzokiya eondu sen

-ANGATIK(AN) (D)E

- Ta sosak isanangatikande jeneroik es genun arrapatzen

Moduzkoak**-LA**

- Itxitzen tzuten Errenteiko birioi, geo gure kalia eta panade-yoi (...) kanpotikanen ibiltzen tziela xexenak

-eN BESELA

- Antzerkiya itten genun eakusten tziguten besela

Partizipioa + GABE

- Afaldu gabe joan isandu nak ni dantza
- Soldaduxka Loyolan ingo genula ta, oandik kontzegittu gabe ttek

Partizipioa + -S

- Denak ola balantza iñes, “aita guria” iñesta, erresuoik
- Ikatza attu itten tzen, ikatz ona, biño txui-txui autza geatus
- Bai, kantatues erresuak.

Partizipioa + -TA

- Bandera berdía ta txuriya jarrita oñes juan giñan Donostira

Konparaziozkoak

Gehiago / gutxiago adierazteko erabiltzen direnak:

BAÑO(N)... -(AG)O

- Santrakruzak baño sortzi eun lenuo
- Emen biño bost duro merkio
- Lesoko saarra beti gaextiyo isan da

- Erroteta biño auntzuo ta orrea juaten giñan Flora ta denak
- Arrebak sittun, pues, ni biño bos gutxiyo, anayak uan il denak, arreke, sei urte o saspi gutxiyo
- Jarri arri arai puska bat ardiyana, ardi puska bat sasindua, bakallua miño iarro, mekaunen!

SEMBAT ETA... AGO

- Basarriyan sembat eta lan geyo in, orduan ta isorratuo

Berdintasunaren adierazle direnak:

BESIN

- Oik egiyaktia, jaungoikua den besin egiyaktia
- Orduko saardua etzen uangua besin gosua

BESELA

- Frentia euki emen, ta bestiak basarriyortan balia besela, gorriyak
- Dena saardi bat balitz besela
- Beira jartzen bagea saardi bat besela

BESELAKUA

- Errenteya gaur beselakua etzan miño
- Eyuken ondartzza sea, playan beselakua

AÑA / AÑAKO

- Geo seatzen tzenun, sea, duruañeko sea, lapa aundiya isaten tzen.
- Galleteran, fabrika aundiyan aña irabasten tzenun iya

AIMBESTE

- Inguruan gaur aimbeste ferreteire esuan isango ta orduan

Superlatiboak

- Leson, ttikina ni isango nitzan, gastiena ni isango nitzan seguruasko
- Sarrena ni baintzan, ta ni naisuen eukitzia
- Oi! Aurren-aurrena, limbisikua ba letzen ta ikasten isango sen

Konpletiboak

- Nik uste oi sela bates ere saar motangatikan
- Esan nai nuke neiko arregluan pasa siela
- Italianua sela esaten sitteken

Jokatuak:

-LA

- Ur ertzian, or, oñutzik eta ibillita, iruitzen tzizaigun bañatu itten giñala
- Arrek jarri sun elisan alde batian emakumiak eta beste batian gisonak eon biar tzutela
- Uañe ola ibiltzen diela usteut marru-marruketan

NOLA

- Saninazio eun batekin goatze nas nola tiro, tirua, tirua bota sittusten ta ikarak.
- Goatze nas nola ikuste nun, itxetik ikuste nun, reketiak, sea, a!
- Ni irunesana goatze nas (...) nola etortzen tzen irunesa ta jar-tzen tzun puesto aundi bat

-(N)ES

- Biñon isebak kontatzen tzuenes, dena mertxeros betia ber tzuen, dena.

Konpletiboa markarik gabe

- Ona itten omen tzen oso feriya, esaten tzuen arrek

Jokatugabeak:

-T(Z)IA

- Ura botzia estuk nai ta nik ser nai duk likidua kentzia
- Nai isaten tzan biltzia beintzat sortzi eunetik sortzi eunea
- Esun nahi isaten arrek galtzak eta kuleruak eta ikustia

-T(Z)EKO

- Ayek beti, ikares ayek sartzeko
- Beldurrak amorratzen antxe maisuak serbatte esateko

Zehargalderak

Galdetzaileen bidez osatuak

- Eztakit ze numero izango den
- Geo goatze nas se ijiene eoten tzen...
- Ta nik estakit e! nola gallendu sen ua

BAI/EZ erantzuna eskatzen dutenak:

-N

- Estakitt seguru Diburtxio jarri suten
- Estakit emenguak sien

Erdarazko egitura

- Torri sien aber erekiko niyoten sea, atia
- Gui galdeska gue amai galdeska, aber se amaberjin, se amaberjiñen kapilla sen ua
- Denian juaten giñan itza ittea, e! Denea! Aber artuko siguten

Kontsekutiboak

NOLA... -N

- nola etzen orduan artzen tentziyuik
- ta nola lana seon ta jendia

NOLA... -(n)ES

- igandia nola senes gañea

NOLA... BAI-

- Pratikua gison aundiya nola baisen

BAI-


- Ibilli baisien treintaitresian, ikaarrisko uelga in tzuten arrantzaliak
- Fusilla galdua, ta arto salla baisen, subiyan onduan urtiartan, artua, artua bakisu, arto aundittua
- Pixtola isaki, garaiaitan espaisun iñork pixtolik

-TA

- Guardiasibillan kontuan asi gea ta (jarrai dezagun)

-NES

—Karga terdi ematen tzittunes, ba, berreun da ogei litro



Lexikoa

LEZOKO EUSKARAREN
AZTERKETA



IZEN SORTZAILEAK

Atal honetan eratorpen atzizki nagusiak edo ohikoenak bildu ditugu sortzen dituzten hitzen kategoriaren arabera multzokaturik.

Izen abstraktuak

- (t)asun: bisitasun, postasun, osasun, maitasun.
- keya: txoakeya, serrikeya, bekaiskeya.
- tza: lanbide edo jarduera adierazten du; alkatetza, arrantza, sagardogintza.

Egile edo lanbidea

- ketai: jarduera bat egiten duena adierazteko, garraiatzearekin lotua; esneketai, arraiketai, bazkaiketai, sesenketai.
- lai: bertzolai, axkolai, txistulai, aurrelai.
- ai: dantzai, pelotai, palankai.
- gille: ekoizlea, egiten duena: sagardogille, langille.
- kin / -gin: argiñ, arakiñ, okiñ, ikaskiñ.
- gintzalle: bi atzizkiz osatua (-gin + -tzaile), egiten duena, ekoizlea adierazteko: sagardogintzalle, landagintzalle.
- le: eale, jale, eskale.
- sale: Lanbidea: sagardosale, arrantzale. Zaletasuna: abertzale, bertzosale, mendigoisale.
- sai: artzai, mandasai, itzai, aursai (= aurdun)

Multzoa adierazten dutenak:

- aje: zerbait biltzen duen elementua, multzoa denean batez ere: ostaje, illaje, pintaje.
- ti / -di: saasti, sagardi, gastañei.
- tei: piñotei
- tei (= -teria): gastei.
- ka (= -kada): Neurria adierazteko. Gurdika, platerka, sestoka, kaxuelka, baxoka

-tada: kolpea adierazteko. Porrustada.

-te: gerrate, elurte, leorte.

Produktua edo objetua adierazten dutenak

-ki: jakiak izendatzeko: jaki, tripaki, txerriki, olki, eltzekiya.

Tresnak izendatzeko: buruki. Berezko materia izendatzeko:

tupikiya, altzairukiya, plastikokiya.

Fruituak ematen dituzten landareak izendatzeko:

-ondo: sagarrondo, gastañondo, udareondo, intxaurrondo, gesiondo

Izenari nahiz aditz oinari lotzen zaizkion atzizkiak:

-kai: (= -kari): goakai (=burutazio).

-ale (= -gale): Behar fisiologikoa adierazteko. Pixale, kakale, loale.

-gai: egiteko dagoena, gero izango dena: txertagai, andregai, salgai.

Izen bereziari lotzen zaizkion atzizkiak:

-ne: Leku izenak adierazteko, batez ere etxe izenak. Etxearen jabeari egiten dio erreferentzia eta emankortasun handikoa da: Indione, Lopene, Tximixione, Patxikune, Andreone.

Lekua adierazten dutenak

-te(g)i: lantei, sagardotei, arostei, aratei, arrandei, piñotei.

-pe: itxaspe, arkupe, estalpe.

Aditz oinari atzizkiak erantsiz sortutako izenak

-(k)era: ibilera, pentzakera, jaskera, asi(y)era, buka(y)era.

-keta: Jarduera adierazten duen atzizkia. Jokoek azpisail emankorra osatzen dute eta inesiboari loturik agertu ohi zaiz-

kigu: marru-marruketan, kartaketan, sipoketan, kalloketan,

gorde-gordeketan, jostaketa, isketa.

-tun: jarduera bat garatzen duena izendatzeko. Jatun, eostun, jostun.

-t(z)e: nominalizazio hauek indar handia dute. Bete-betean eratorpen atzikia ez bada ere, lexiko sorkuntzarako iturri emankorra dira eta zenbait eratorpen atziki ordezkatzeko du: sartzia (= sarrera), jatia (= janaldi), eatia (= edanaldi), txikitzia (= txikiketa).

Galdetzaileari lotzen zaion atzikia

-txo: Galdetzaileari loturik, gutxi gora beherakotasuna markatzeko erabiltzen da: seintxo, senbatxo, sertxo

IZENONDO SORTZAILEAK

-dun: jabegoa adierazten du. Euskaldun, erdaldun, bizardun, dirudun, biotedun

-(t)ar: jatorria adierazteko erabiltzen da. Oso emankorra da eta herri izenez gain baserri eta familien izenekin ere erabiltzen da: lezoar, sanjuandar, oyartzuar, baserritar, arkirundar, epintzatar, xorroxtar, laboatar

-kor: emankor, iraunkor

-garri: isugarri, soragarri, ikaragarri, amorragarri, pasagarri

-ti: gesurti, bildurti

-sar (-tzar): Neurri handia adierazten du. Mendisar, arrisar, gisonsar

-ska: 1.- txikitasuna (neurritz edo kopuruz) adierazteko: mordoska, ardaska. 2.- Koloreetan kidetasuna adierazteko: gorriska, berdexka...

-sta: koloreekin, -ska-ren adiera berean: orista, gorrista

-sko: 1.- Gaia edo materia adierazten du. Bustiñeskua, metaleskua 2.- Izaera adierazten du. Saldiskua, gizoneskua,

ADITZONDO SORTZAILEAK

- ka : moduzko adberbioak sortzeko atzizkia: beorrika, ejuka, mareaka, bueltaka, arrastaka, korrika, tiroka, tiraka.
- ki: 1.- aditz lagunak sortzeko erabilia: txarki, ederki, generalki, galanki.
- ero: maiztasuna adierazten du: iñulabarrero, eunero, jayero, gabero, igandero.

GAZTELANIAZKO HITZ ERATORRIAK

Ohikoa da hiztunen artean gaztelaniazko hitz eratorriak erabiltzea. Atzizki horiek, ordea, ez dira emankorrak, mailegaturiko hitzarekin batera hartuak baizik, eta horrela erabiltzen dira. Hauetariko asko lanbidea edo teknologiarekin loturikoak dira, beste zenbait, berriz, kontzeptu abstraktuekin loturikoak. Hona hemen zenbait adibide:

alkolera	drogeya (= -eria)	enkoladora
ayuntamentua	eskabetxei	esplikasiyo
bakasiyo	esmaltei	estasiyua
dibertziyua	ferreteya	galletera
kabesudo	kongreasiyo	raketixta
konpaasiyo	panadeya	rodamentu
kantidade	kontratista	sakramentu
kantore	mandamentu	sapaterua
karlixta	mariskei	empaketadora
kastillanua	mertxero	sosidadia
kasualidade	miseriya	sosialista
komodidade	nasionalista,	tamborrero
katekista	republikano	
komuniyo,	nebera	
konfirmasiyua	okasiyo	

AURRIZKIAK

Aurrizki bakarra jaso dugu (des-) eta adibide bakar batean: desgarayan.

ERATORPENAREN ETA ELKARKETAREN ARTEKO SAILA

Sail honetan atzizki edo hitz beregainak diren zehazten zailak diren kasuak bilduko ditugu. Hartzen duten bigarren osagai hori batzuetan hitz beregain gisa erabiltzen baita eta beste batzuetan, berriz, beste hitz bati loturik atzizki gisa. Ez dira asko hona bildu ditugunak:

- alde: Lesakalde, Errekalde, Naparroalde, arratzalde, goisalde, atzealde
- aldi: esanaldi, janaldi, billualdi, egualdi, inñaldi, dantzaldi,
- abarra: gasteabarra, buruabarra, ostoabarra
- jende: gastejende, republikanojende, ardiende, sarjende
- kume: guardiasibilkume, txakurkume, katokume, astokume, arkume



ELKARKETA

Ondotik datozenak gure dokumentazioan agerturiko zenbait adibide besterik ez dira.

Kontuan har bedi, askotan zenbait hitzen forma mugagabea zein den zehazten zaila gertatzen dela, eta halakoetan jaso bezala eman ditugu.

anaiarreba
 ankamotz
 arraisaltze
 arratoitxakurra
 attasana
 attaseme
 aurkontu
 aurdenbo
 bakalloisatza
 baskain
 bisilaun
 biskarresurra
 dantzatoki
 gerraurre
 itxeoandria
 kanpantorre
 mutilsarra
 neguparte
 ollotoki
 ondarrikitza
 oñutzik
 otordu
 semarremaste
 trembire
 txertagai-arbola
 urardua
 urertza
 urixkiña

ESAPIDE ETA LOKUZIO BILDUMA

Grabaketetan agertu zaizkigun zenbait lokuzio eta esaera:

LOKUZIOAK

- Armoni onian eon: giro onean egon
 Armoniyan aittu: eztabaidan aritzea, ez sesioan.
 Arrika bota: zerbait jaurtitzea edota zaborretara botatzea.
 Arrika eman / in: harriak jaurtiz erasotzea, uxatzea.
 Aspikosgain jantzi: jantzia barrukoa kanpotik duela jaztea
 Astelen pisarra izan: astelehenetako ajea izatea
 Atzeiña artu: kolpe handia hartu.
 Atzekosaurrea jantzi: jantzia atzekoa aurrean dela jaztea
 Axertu ona izan: punteria ona izan
 Beldurrak amorratzen egon: oso beldurturik egon
 Bere buruai eman: norik bere buruari eragitea, beti ere, neurritz gain.
 Betiko jangoikua izan: betiko izan.
 Dzanga-Dzanga ean: Trago handiak eginez edan, gogo biziz edan.
 Ibilli-ibillinta: batera eta bestera ibili eta gero
 Itto biarrian: itozteko artean.
 Kalea bota: baserriko mozkinak kalera eramatea saltzeko
 Konpaasiyo batea: esate baterako
 Kontu in: kontuan hartu.
 Mintxo egon: gaiso egon, gaisotasun larririk gabe.
 Miñ in, miñ in tzayo: zorabiatzea, konortea galtzea
 Muturres aurea eroi: aurrerantz erori
 Ondo etorri: bi pertsona elkarrekin ongi moldatzea, lanean esaterako.
 Ondoes pisarra izan: gaisotasun zantzuak sentitzea
 Patz in: blai egin.
 Piper in: hala nahita eskolara ez joatea
 Presaka ta muturka ibilli: estu eta larri, presaka ibili.
 Sasoyian eon: osasun ona izan, indarrean egon.
 Siplu erori: luze-luze erori, zorabiatu esaterako.
 Siplu gelditu: harri eta zur gelditu.
 Sipoka aittu: zirika aritzea

ESAERAK

Alajañana!: harridura handia adierazteko.

Amolai!: hor konpon!

Arritzekua!: ironiazko harridura adierazten du.

Eonai ortan!: solaskidearen ustea okerra dela adierazteko.

Erki emane!: Baita zera ere! / Ezta pentsatu ere!

Gaitzerdi!: Eskerrak! Gerta zitekeenaren aldean gertatu dena horren larria ez denean.

Grasiyak!: Eskerrak!

Ierriko yon/k!: solaskideari oker egingo duela iragartzeko

Isorrai!: hor konpon!

Ondoale!: solaskideari arrazoia aitortzen dio.

Tokitan egon / Tokitako amonan itxian eon: zerbait edo norbait oso urrun dagoela adierazteko.

Beidok!: Ironiazko kontuz!

HIZTEGI HAUTATUA

Lezoko hiztegi hautatua. aipagarriak edo galbidean dauden hitzen bilduma.

1. abezedayua. Alfabetoa
2. abittu / abiyatu. Abiatu
3. adar. Zuhaitz adarra / animalia adarra
4. adaska. Ardaska
5. agiriya. Dokumentua
6. aitza. Haritza, harkaitza
7. aixa. Erraz
8. akatu. Akabatu
9. Aldako saarra. Sagar mota
10. aldeatu. Konparatu
11. aldia. Diferentzia
12. ale(gi)ya. Alegia
13. ale. Unitate
14. alubita. Pertsona bihurria izendatzeko
15. alleatu. Iritsi
16. amaindiña. Amandre
17. amorratu. Zaletasun itsua izan
18. amorrazi. Haserre bizia eragin
19. andoaña. Sagar mota
20. andria. Emazte
21. anka. Zango eta oin
22. apaindiña: Aitajauna
23. apopilo. Egoiliar
24. aproposa. Egokia
25. ariapustua. Ahari talka
26. arin. Zama gutxikoa
27. arkaitza. Haitz
28. arpillera. Oihal latz eta gogorra
29. arraiketai. Arrain salerosketan aritzen dena
30. arraiketai. Arrain saltzaile
31. arraisaltzen. Arrai salmenta egiten
32. arrastaka. Herrestan

33. arratoitxakurra. Zakur mota
34. arratza. Gaua
35. arregluan. Modu onean
36. arrimatu. Hurbildu
37. arritxintxarra. Harri ale ttikiek osaturiko multzoa batez ere, harri alea ere izan daiteke
38. arrixkua. Ezbeharra gertatzeko aukera
39. arroka. Haitz
40. arrunt. Oso, zeharo
41. artaburua. Arto aleak biltzen dituen burua
42. artesittu. Pitzatu
43. artesiya. Pitzadura
44. artosalla. Arto landare multzoa
45. artoselaya. Artasoroa
46. asienda. Abere
47. asiguruntxuak: Paperak
48. asnasiya. Arnas hotsa
49. atorra. Alkondara
50. attu. Agortu
51. atzea. Berriz
52. atzeatua. Adimen urriko pertsona, garaiz kanpo gelditu dena
53. atzeiña. Atsegina,
54. atzen. Azken
55. aulearra. Estomatitis gaitza
56. auleya. Ahulezia
57. aur kontu. Haurrak zaindu
58. auro. Bizkor
59. aurreaatzeaxeo. Gutxi gora-behera espazioarekin
60. aurreatua. Aintzindaria
61. ayazi. Adierazi
62. ayeka. Alde
63. bakallo. Bakailao
64. bakandu. Urritu
65. balantzetaya. Sagar mota
66. baldia. Hamar litro inguru biltzen dituen ontzia
67. bañura joan. Bainua hartzera joan
68. baporía. Itsasontzia

69. baraderuak. Itsasontziak lehorreratzeko lekua
70. barren. Barru
71. barrikote. Sagardo berria dastatzeko barrika ttikiaren inguruan egiten den jan-edana
72. baskaiketai. Bazkaria garraiatzen duena
73. batelikua. Txalupa ttikia
74. bazkainta. Bazkaldurik
75. be(r)iartan. Bere hartan
76. beartu. Bortxaz, gogoz kontra eragin
77. begiya galdu. Begi bateko ikusmena galdu
78. belar soro. Belardi
79. belaxka. Bigun-bigun
80. benik: Bederenik, behintzat
81. beorriberian. Bere horretan
82. bera. Biguna
83. beratu. Bigundu
84. berobero inta. Oso beroturik
85. berrittu. Gaitzekin, sendabidean zen gaitza indartu dela adierazteko
86. berua. Alkoldun edariaren kalitateak
87. betti. Behera
88. bettikua. Beherakoa
89. bexi. Bereizi
90. bialdu. Bidali
91. biartu. Zerbaiten beharrean gertatu
92. bikañ. Oso ona
93. billera. Erromeria edo jaia adierazteko, jende biltzea
94. billotsa. Arkume
95. bisiketa. Bizikleta
96. bisilaun. Auzo
97. bisitza. Etxearen solairua edo familia baten bizitokia, dela solairu bakarrekoa, dela bikoa
98. bisiya. Pertsonaren bizialdia
99. bolada. Aldi
100. bortzillo. Poltsiko
101. botia. Txalupa ttikia
102. budina. Erdaraz "flan"
103. bulla. Iskanbila

104. burla in. Iseka egin
105. burniya. Burdin
106. buruabarra. Zuhaitzaren adar eta hosto multzoa
107. burukiya. Almohada
108. Burutiya. Buru gainean ontziak karraiatzeko jartzen zen
ohialezko babesa, zapi bat egoki bilduz egina
109. bustiña. Buztina
110. danba, danba, danba. Urratsez-urrats ibili, pauso sendoz
111. danga-danga-danga. Tiro andanaren hotsa
112. debrasete. Besotik helduta
113. derrior. Nahitaez
114. desgarayan. Garai desegokian
115. dezentia. Handia.
116. dibertziyua. Dibertsioa
117. dotriña ttikiya. Zazpi urte egiterako ikasi beharreko
dotrina
118. durdo. Arrain mota
119. eaman. Jasan
120. eana (egon). Mozkorra
121. eangustua. Edariaren zaporea, bouquet
122. eatxi. Erantsi
123. edadekua. Adinekoa
124. ederki. Ongi
125. egurketai: Basotik egurra ekartzen duena
126. ejuka, ojuka . Oihuka, makakorroka
127. eldu. Etorri
128. enkarguak. Mandatuak, erosketak
129. entendittu / enteittu. Ulertu
130. erain. Eragin
131. erdara. Euskara ez dena
132. eroi. Erori
133. errapia. Behiaren ugatzak
134. errenditu. Amore eman
135. errenka: Ilada
136. errentan artu. Alokatu
137. erresatu. Otoitz egin
138. erresua. Otoitza
139. erretira. Etxera joateko ordua

140. erretirua. Jubilazioa
141. Erribera. Lezo ibaiaren ingurua
142. erribire. Herri-bide
143. erriel. Garai bateko txanpona
144. erriko eskola. Eskola publikoa
145. errus. Ugari, asko
146. esanera. Esaera edo erantzun xelebrea
147. esia. Urtsu, umel
148. eskalaproyak. Arrantzaleen garai bateko egurrezko oinetakoak
149. eskapo in / jun. Ihes egin
150. eskasiya. Urritasuna
151. eskian ibili. Eskean ibili
152. eskobatu. Erraztu
153. eskribittu. Idatzi
154. eskudantza. Aurrezku dantza
155. eskulana. Joste lana
156. eskusoñua. Akordeoia
157. esneketai. Esne saltzaile
158. eukittu. Eduki
159. eunsentiya. Egunsentia
160. euntalako. Izugarrizko
161. exkalua. Pertsona ahul eta iharra, arrain mota
162. exkaxa. Kaxkarra
163. exureskuak. Hezur ttikia, arrainena edo animalia ttikiena
164. eya. Korta, ikuilu
165. f(i)esta. Jaiak
166. fiestak. Ospakizunak adierazteko
167. flakatu. Argaldu
168. flakiya. Ahulezia
169. gabierrota. Sagar mota
170. galanta. Handia, ederra
171. galasi. Galarazi
172. gastañeiya. Gaztainadia
173. gasteabarra. Gazte multzoa
174. Gaufretiak. Gaileta mota
175. gerratia. Gerratea
176. gisasemia. Gizonezkoa

177. gisatxarra. Pertsona gaiztoa
178. giya. 1) habea, eraikuntza lanetarako erabiltzen den ohol euskarria, 2)haragi edo zuraren “zainak”
179. goakaya. Burutazio
180. gobara (in). Erropa garbitzeko ekintza
181. gobernatu. Jabegoa zaindu, mantendu
182. gor in. Gogor egin, norberaren jarrerari gogor eustea
183. gordegordeketan. Haur jolasa
184. gordian. Ezkutuan
185. gorontza. Gerrikoa, faja
186. gosetia. Gosetea
187. gotti. Gora
188. gottika in. Oka egin
189. gottinaya. Goragale
190. gurdibiria. Gurdi
191. gurdisaarra. Gurdikada sagar
192. i(r)uki. Eduki
193. iar / ier. Lehor, ihar, argal
194. ibilttu. Ibili
195. idiapustua. Idi-dema
196. ierri. Igarri
197. iisi in. Ihes egin
198. ikara. Izua
199. ikasi. Jakin
200. ikuttuketan. Haur jolasa
201. intza. Ihintza, basura
202. iñaurkiña. Ganaduaren azpitarako den iratze ihartua
203. Iñurriya.Txingurria
204. iragaskiya. Isurkinak (esnea, belar ura...) iragazteko oiha-
lezko bahea
205. irauli. Mugitu, buelta eman
206. iraun. Iraun
207. irixiya. Zerbaiten behar handia sentitzea, gutizia
208. i(r)uki. Eduki
209. Ispurua. Sagar mota
210. itxaspe. Itsasorantz, maldan behera doan eremua
211. itxepe. Inmueble esateko
212. itzasua. Itsasoa

213. itzuli. Ihesi joan
214. ixkanbilla. Istilua, bulla
215. ixkira. Izkira
216. iza: igo. "Izan gtti", igo goiti
217. jai. Lanik egiten ez den egun handia
218. jantziya. Ikasia
219. jatena. Animalientzako bazka
220. jatia. Janaldia
221. jayoseñalia. Orina
222. jende aundiya. Posizio sozial altua duen jendea
223. jendia. Multzoa adierazteko hitz elkartuen bidez
224. jeneralian. Maiztasun handiz gertatzen dela adierazteko
225. jetxi. Behiak jetzi
226. jipoya. Astinaldia
227. joale. Zintzarri, joare
228. jornala. Soldata
229. jostaketa. Jolasa
230. jostatu. Jolastu
231. kabittu. Sartzeko adina leku izatea
232. kakallia. Kakagalea
233. kaldera. Ontzia, baldea
234. kaletarra. Kanean, eta ez baserrian, bizi dena
235. kalloka. Kurkuluxa
236. kalloketan aritu. Kalloka jokoan aritu
237. kamiyo. Errepide
238. kampakantorre. Elizan ezkila duen dorrea
239. kanilla. Txorrota
240. kan-kan-kan. Atea jotzearen soinua
241. kamposantu. Hilerrri
242. kantore. Abesteko zaletasuna duena
243. karabinerokumiak. Karabineroen seme-alabak
244. kardia. Bi metroko luzera duen barrika, sagardoa garraiatzeko erabiltzen da
245. kargasarra. Sagar neurria
246. karraka. Biraka eraginez hots ozen eta jarraia sortzen duen zurezko tresna
247. karramarroa. Karramarroa, baserriko tresna
248. karraskillo. Landare mota

249. kaskaildu. Kaskartu, txartu, zaharkitu
 250. kaskaldu. Zahartu eta txartu
 251. kasketa. Haserraldia, burugogorkeria
 252. kastillanua. Kastillatik etorritakoa, euskararik ez dakiena
 253. kaxkarin. Txoriburu
 254. kaxuelka. Kazuelkada bete jaki, tabernetan “Cazuelita”
 deitzen dutena
 255. kaya. Kaia
 256. kier. Kider, elduleku, kirtena
 257. Kirikaka. 1.- Zelatatzea, 2.- Dardarka ikusten den argia
 (izarrak, urruneko suak edo gaizki jarritako bonbilak).
 258. kixki. Larruzko pilotaren barneko zatia
 259. kiyua. arnas hartzerakoan egiten den ziztu tankerakoa, eri
 dagoen jendeak batez ere
 260. kolkatu. Oiloa oilar eske jartzea
 261. komeyak. Gora-beherak
 262. komuniyo aundiya. Bederatzi urterekin egiten zen jaunartzea
 263. komuniyo tikiya. Zazpi urterekin egiten zen jaunartzea
 264. konejua. Untxia
 265. kontu. Konorte
 266. kontu. Zaindu, begiratu
 267. kristauseñalia. Orina
 268. krixkitin-kraxketan. Onomatopeia, kristala apurtzean egi-
 ten den hotsa
 269. kukutxa. Tosferina gaitza
 270. kupel. Barrika handia
 271. kutzatu. Kutsatu
 272. laboriak. Joste lanak
 273. laja(tu). Utzi
 274. lamara. Sutargi
 275. landagintzalle. Landaregile
 276. lantei. Ofizio, langintza
 277. leitua. Oskoldun animalia, erdaraz “navaja”
 278. lesosaarra. Sagar mota
 279. letu. Irakurri
 280. liberdi. Libra erdi
 281. lirdinga. Gorpuzt batek ez solido, ez likido egoeran dagoe-
 nean, sortzen dituen hari modukoak

282. listai. Soka mehe mota edo soka muturra
283. loalia. Logalea
284. loya. Lohi
285. ma(g)ala. Altzoa
286. maindiria. Izara
287. maisua. Irakaslea, gizonezkoa denean
288. maixtra. Irakaslea, emakumea denean
289. majara. Behiek bazkatzeko aska
290. makatza. Txertatu gabeko fruta-landarea
291. malda. Malkar
292. mamuxela. Panpina
293. mantala. Amantala
294. mareaka ibili. Marearen arabera arrantzan aritu
295. marranta. Eztarri lakartuaren ondorioz ahotsa urratua izatea
296. marru. Negar soinua, pertsona nahiz behiarena
297. marrumarruketan. Haur jolasa
298. martzielsaarra. Sagar mota
299. Maruka. Arrain mota
300. maska. Zerri bazka
301. maxura. Matxura, "averia"
302. mendealaisia. Mendebaldeko haizea
303. mentu. Landare, kimu
304. mertxero. Herriz herri tresna salmentan ibiltzen dena
305. mertzi. Eskerrik asko
306. minkatz. Mikatz
307. mintxuriya. Odol tentsioa jaitsi ondorengo ahulaldia, zorabioa
308. mintzatu. Hitz egin
309. miñes. Gaisorik
310. mira in. Norbaiten edo zerbaiten hutsunea nabaritzea
311. mordoska. Multzo adierazgarria
312. morrokillo. Sarraila
313. mospela. Laiotza
314. motel. Geldo
315. motorra. Motordun txalupa
316. muiitu. Ernatzen hasi
317. muña. Jakien mamia

318. muskilla. Kimu
 319. mutikoskor. Koskorturiko mutila
 320. mutilsarra. Edadeko gizon ezkongabea
 321. muttiko. Haur jaioberria, harra dela adierazteko
 322. muturjoka. Elkarri joka, borrokan aritzea
 323. muturka. Muturrez aurrera erori, gauzak azkarregi egitea
 324. muxika. Fruitua
 325. obispua. Gotzaina
 326. ollanda. Oilo gaztea
 327. ollaorra. Hegaztia
 328. ollotokiya. Oiloak gordetzeko lekua
 329. ondarrikitza. Harearria
 330. ondoesa. Gaisotasun zantzua
 331. ondorian. Ondoren
 332. ordian. Ordea
 333. ostaje. Zuhaitz baten ostoa multzoa
 334. otordu. Janaldia, gosari, bazkari nahiz afaria
 335. oxkilla. Hozbera
 336. oya. Ohea
 337. oyesura. Ohearen egurrezko egitura
 338. palankai. Palanka jaurtiketan aritzen dena
 339. pareta. Horma
 340. patrika. Poltsiko, sakel
 341. pattarra. Alkohol graduazio handiko edaria
 342. patza. Sagarra tolaean jo ondoren gelditzen den sagar
 mami lehorra
 343. patzulosaarra. Sagar mota
 344. pentze. Belardi
 345. perlesiya. Tronbosia
 346. pertzegittua. Errepresaliatua
 347. pesta (dirua). Pezeta
 348. pintarratua: Motaduna, kolore bat baino gehiago dituen.
 349. piontza. Peoi lana
 350. pirril / perril . Gurpil
 351. pisarra. Apurra
 352. pisatu. Pisua neurtu
 353. pitarra. Sagarraren zukua eta ura nahasiz egindako edaria
 354. pixa. Gernu

- 355. pixale. Txizagale
- 356. pixo. Zama
- 357. pontoia. Badia erdian itsasontziak ikatzez hornitzeko zegoen gabarra
- 358. po-po-po. Trenak dabilenean egiten duen soinuaren onomatopeia
- 359. porroya. Ardoa edateko mutur estuko kristalezko ontzia
- 360. portxan. Bortxaz
- 361. potoketan. Haur jolasa
- 362. potruak. Barrabilak
- 363. poxpoliñak. Neska dantzariak
- 364. pranko. Ugari
- 365. propiyo. A.lag., aditzari loturik espreski zerbait egitea
- 366. pulliki-pulliki. Geldo-geldo
- 367. purrusta. Gorabehera, marmarra
- 368. purrusta: Edari txurrustada bat
- 369. saarbeltza. Sagar mota
- 370. saardiya. Sagastia
- 371. saardosalia. Sagardogile
- 372. saasti. Sagardi
- 373. sabaldia. 1) Lautada, zelai ttikia. 2) Etxe aurreko gunea, erdarazko "porche" adierazteko
- 374. sagardei. Sagasti
- 375. sakarra. Leuna ez dena
- 376. sakotia. Otordua eramateko erabiltzen den zorroa
- 377. sakusaarra. Zakukada sagar
- 378. salamburua. Kolunpioa
- 379. saldakoaragiya. Salda egiteko haragia
- 380. saltza. Liskarra
- 381. sama in. Kargatu
- 382. samarra. Berokia
- 383. sanbulla. Gorputz osoa iraultzea, uretara jauzi egiteko adibidez
- 384. sapela. Txapela
- 385. sapetakuak. Zartakoak
- 386. sarberritu. Eraikuntzak berritzea, txukuntzea
- 387. sardintzarra. Guardiazibila, sardina gatzatuak
- 388. sarpak. Arropa zikinak

389. sarpalla. Baldarra
390. sartako. Zapetako
391. sasoya. 1) Indarra, osasun ona. 2) Garai
392. satarra. Garbitzeko zapia
393. sasindu. Haragia gatzetan jarri
394. seguraski. Ziurrenik
395. sekulan. Inoiz
396. sesenketai. Zezena behia estaltzera eramaten duena
397. sesiyo. Liskar, bi baino gehiagoren arteko haserraldia
398. sialdo. Mozkorraren balantza
399. sintziliska. Zintzilik
400. sipoketan. Haur jolasa
401. sira. Euritako jantzia
402. sisarra. Sagarra tolarean jo eta ateratzen den ura
403. sispatu. Alkolak eraginda egotea, erabat mozkortzera iritsi gabe, ordea
404. sokasaltuan. Haur jolasa
405. sokilla. Lurra irauli ardotik gelditzen diren lur kozkorrak
406. sokua. Bazter iluna
407. soñua. Zarata
408. soñujotzallia. Eskusoinua jotzen duen pertsona
409. sosidadia. Elkartea
410. soto. Ezkaratza, etxeko ataria
411. subia. Sugea
412. suburni. Beheko suak eta su ekonomikoak suari eragiteko eta laguntzeko duten burnia
413. suilla. Ontzi mota
414. sumatu. Nabaritu
415. surimenta. Oihalki zurinez osatutako etxerako janki sortari esaten zaio. Mahai gaineakoak eta abar
416. surriya. Nahia
417. surruterua. Alkola edateko zaletasuna duena
418. susmurra. Susmoa
419. tapakiyak. Manta eta maindireak
420. tenore. Garai
421. tiniya. Kupel erdia
422. tira. Bota
423. tirriya. Nahia, guraria

424. toka. Jolas mota
425. trakatran. Zaldiek lasterka doazenean egiten duten hotsaren onomatopeia
426. tratua. Hitzarmena
427. trembire. Burdinbide
428. tripakiyak. Zenbait abereren barrenkiez prestaturiko jakia
429. truka. Karta jokoa. Oarso-Bidasoa eskualdean indar handia du
430. ttaka-ttaka. Haurraren lehen pausoak adierazten dituen onomatopeia
431. ttantta. Kafeari gehitzen zaion edari alkolduna
432. tti. Txiki
433. ttotta. Anixa, kafeari gehitzen zaion anisa
434. ttunttuna. Txistulariak erritmoa markatzeko esku bakarrez jotzen duen atabal edo danborra
435. tur-tur-tur. Oinezko mugimendu adierazten duen onomatopeia
436. Txalakasaar. Sagar mota
437. txambra. Emakumeek garai batean sorbaldan eramaten zuten estalkia
438. txapagaña. Su ekonomikoak duen txaparen gaina



439. txarki. Gaizki
440. txarranpiña. Sarampión gaztelaniaz
441. txatxua. Gaiztakeria puntua duen pertsona inozoa
442. txertagabia. Zuhaitz landare basatia
443. txertagaiarbola. Txertatzeko dagoen zuhaitza
444. txinalka. Oinetakoak ondo jantzi gabe ibiltzea
445. txingoketan. Haur jolasa
446. txinparta. 1) Gasdun edariek sortzen dituzten burbuilak eta hauen zipriztinak. 2) Suaren pindarra
447. txirla. Gure itsasertzean arrunta den oskoldun ttikia
448. txirrikak. Haria edo soka biltzeko ardatza, erdarazko "carrete"
449. txituak. Etxeko hegaztien umeak
450. txoakei. Tontokeria
451. txokona. Sakona
452. txukatu. Xurgatu, lehortu
453. ugeldia. Uholdea
454. ujuka. Oihuka
455. urardua. Ardoari ura nahasiz egindako edaria
456. urertza. Itsas edo ibai ertza
457. urixkiña. Itsas edo ibai ertza
458. urrittu. Gutxitu
459. urtabilla. Sagar mota
460. urteko Pasagarriya
461. usayaartu. Susmatu
462. ustai. Pieza luzanga baten muturrak elkartuz eratzen den zirkulu formako objektua
463. xamurra. Erraza, biguna
464. xankarra. Behiaren gorputzeko zati jakina.
465. xelebria. Berezia, barregarria
466. xerra. Haragi xerra
467. xexto. Saski
468. xipotia. Zirikatzeke joera duen pertsona
469. xoxak. Diruak



Lekukoen zerrenda eta etnotestuak

LEZOKO EUSKARAREN
AZTERKETA



Ondoren datozenak gure azterketa egiteko erabili ditugun testuak dira. Bistan da ez daudela egindako lekuko guzien testuak, ez eta jasotako guziaren transkripzioa ere. Testu hauek lekuko hauei dagozkie:

- Gregorio Arruti
- Melintton Garmendia
- Joxe Migel Treku
- Fernando Legorburu
- Rafael Agirre
- Pepita Salaberria
- Luix Pikabea
- Nikomedes Pikabea
- Erramun Salaberria
- Manoli Pikabea
- Xixili Pikabea
- Kandida Salaberria
- Juan Joxe Zabaleta
- Elena Garmendia



GREGORIO ARRUTI (1927-XI-08)

Lezoko sagarra oso famatua izan zen garai batean, zein dira ospe horren arrazoiak?

Baa, bat, beste erritako, o bai Billabona o Astiasu o, Urnita, o Aya o aldi ortako sagarran aldian esia sela, likido geyo ematen tzula beorri berian. Ta bestia, berris, sagardua itteko, lengo sagardosaliak, o sagardoe gintzalliak beak o, emengo sagarra enpleatzen tzuten beste sagarra alako espiritu bat emateko, emengo sagarrak sun alako, alako grasi beresi bat sun baa, o granilluan, o txinpartian, o kolorian baa, ta ean-gustuane bai, ba, emate sun alako grasi espesial bat ematen tziyon. Ta nik uste, nik uste oi sala bates ere saar motangantikan. Seatikan or kampotik saarra ekartzem basenun, o bai Aya aldetikan, o bai Urnita aldetikan, o nombattetik Astiasu aldetik ekartzen basenun, etzen arrapatzen, es txalaka saar bat, es gabierrota bat, es aldako saar bat, ta olako eser etzen arrapatzen. Ta enkambio emen, berris, aldako saarrak sien, txalaka ta gabierrota ta olako saarra ta, ta saar beltza ta, saar gasiyak sien oik, eta oik saardogintzalliak ber tzittusten iñondik iñoa ba beste saarrakin naasi eta beste saarduorri alako bisitasun bat emateko, ta alako grasi bat atetzen tziyayon emengo saarrakin, ta netzako oi sen emengo seaik onena, emengo saarrana.

Kanpotik ere etortzen ziren Lezora sagarra eroatera. Non, noiz eta nola izaten zen tratua?

Ba, Lesoa, eske Lesoko saarrak etzeon iñolare Leson sartzeikan, Leson kupelata ya bastante basian, baña, alatagustise Leson saardi asko san, saardi asko es! Beira jartzem bagea, saardi bat besela, aste san or beetikan Arretxenetik o sean ta Gantxusketaño ya elkarren segidan dena saardi bat kamiñuan ayeka artatikan, ta aldiontatikan de berdin, asi Minkura-Goyenetxe inguru ortatikan ta Gantxusketarte ba, saardi bat balitz besela, dena elkarren segidan, saardi aundiya eta, ta onea etortzen tzian jeneralmente baa, Oyar tzundik pareat bai, ta Astiarraatik denak, ta Donostitik beste bi o iru basien ta, aike onea etortzen tzien saar billa jenealian, eta oik isaten tzien onea etortzen tzien seak, saardosaliak, saardoeintzalliak. Eta geo presiyua itteko ta muimentua ta jenealmente isaten tzen,

gaur Gure Borda deitzen tzayo, orduane batzuek Gure Borda, baño oi jenealменте san Indionia, oi Indionia, lengo sarran sea sen oi, Indionia, isena beti. Noa? Ta Indionea. Noa? Ta Indionea. Dena Indionea. Orrea tortzen tzien, or isaten tzen reuniyua baserritarrak ta saardogilliak. Jenealmente oi isaten tzam ba ortxe Santrakutzak baño sortzi eun lenuo, Santrakutz inguruan beintzat, ortxe, eun batzuk aurrea-atzeaxeo, ortxe biltzen tzen, eta tratua or erabakitzen tzen gutxiorabeera, ta or itten tzanakin, bestiak e gutxiorabeera, ba, or, or segi, errenditzen tzien beste erriyake, emen biño bost duro merkio, o iru duro merkio, o gutxiorabeera or errenditzen tzien.

Sagarra hain ona eta sagardogileak hain ugariak izanik, tolare asko izango ziren. Zein etxe eta baserritan zeuden tolare jatorrak sagardoa egiteko?

Ba ola, tolare jator samarrak ola, aundi samarrak eta dexente itten tzutenak, ba, baserritane bastante bai, eta geo kalian de, kalian bertan debai, kalian de iru o lau basien ta. Asiko gea kaletikan, da, kalian basuen Bonifazio Pagolak, Adrian Salaberriak, Jose Ramun Salaberriak, nik oik, oik, iru ok isautu ttut or. Geo kalian bertan goyen, Kabitte, o Kabitteaundi, arrek, Belintton Pikabea o arrek, difuntuak, geo, basarriya Olatzarrek, Lopenek, Urrullon. Geo beste ayekontatikan, Iturrin, Txatxamendi, Abendaño, Amuntene, Bordatxo, Mattejuan, nik iru o lau kontatzen ttutenak... beste bakarren bat igual isango sen, baño oi.

Nolakoak izaten ziren sagarrondoak?

Sagarrondoak emen ordun garayartan, sagarrondo aundiak, sagarrondo aundiak, itxian guk isautu ttugu, ser, saarrondoak bai iya iya bi gisonen buelta artuko estutenak, saarrondua, eta buruabarra, berris, aundiya, emate suten ba aitzak o ola ematen tzuten, arbol aundiak. Emen txokuontan ta, Urrullon ta, otan, baño arbol aundiak, kontua atea besteik esto, saarrondo asko sen emen garayartan, saarrondo asko sen garayartan, ba, lareun, irureundi gotti kilo sittustenak saarrarbolak, asko sien orduan, asko sien, ta geo beste, beste ostaje, klase, beste osto bat, dena osto berde-berdiakin dena arbola, adarrik etzisayon ikusten, dena tapa-tapa-tapa iña, ostaje berde-berdiakin da, fruta dena gordian eote sen orduan, garai artan saarra biltzen tzan, nai isaten san biltzia beintzat sortzi

eunetik sortzi eunea, saardogilliak ala esijitzen gendun. Garbiya ta ustelik gabe ta biltzeko. Eta, gaur bildu ta emendik sortzi eunea juan, ta an etzen esautzen o billua sen, o illabete basaman bildu etzela. Berris e tapatua ta bera, gora beitu ta “Bai, saar puxkat basakak, biño oimbeste estik ematem ba”, ta alaxe beste iru-lau billualdi alaxe itten tzittun arrek, arbolak. Saarra asko ateatzen tzen emen, emen saarra asko ateatzen tzen. Arbol onak dia, arbol onak eta ondo eantzuten tzuten garayartan. Olatzar batian da, Jesus! se arbolak sien Borda baster ortan, aik arbolak! Puf! Isugarriyak!

Gero, 1936ko gerrak zein eragin izan zuen Lezoko sagardogintzan edo sagardogileen artean?

Grabia, bakisu, gerra nola san, mixeiya, gosia, ta sosak isanangatikande, jeneroik es genun arrapatzen. Geo, politika sikiña o seortan, o ditaura sikiñoi torri sen eta euskaldunak eta seoik denak, bakisu se etorri sen, etorkisuna denai, iñorre kantari arrapatzen ba... Emen bertan tokatu sien batzuek, torri onea saardua eatea ta, kantari ta torri ortikan seak, besti oyek, beste alu oitakuak, guardiasibillak etorri ta ortik tiroka ai ta, gue atta sena ta, or tzienak beste sortzi o amar artu ta biajea, kartzela, aman tzittusten, ta jendia ikaatu ta, seatu in tzen. Gue atta sana juxtu-juxtu erriraño jetxi suten, ta erriyan libre utzi suten, baño bestiak geo estait noa eman tzittusten, Martutene aldea o, nik estait noa eman tzittusten, aman tzittusten, noabatte eaman tzittusten beintzat, Errenteiko Txingurri ta kuadrilla kantari asi omen tzialako eman tzittusten. Jendia ikaatu ta, geo gosia ta sea ta, geo gasteabarrare dena soldao, eta saarduak ber du alimento puxkaat, jateko puxkaat, eta orduan jatekoik etzen da, neetzako beintzat orrek ein tzun dena. Ba Leson besela gañontzian de, orduan saardua ittia denian jetxi san ee! denian, ta ordun denian, saarrak or geldittu sien denak ta, ordun saardua ittia denian jetxi san.

Eta zer egin ziren, Lezoko sagardotegi guztiak itxi, edo bakarren bat irekita gelditu zen?

Orduan, segi, segi sen beri artan beno, urte betian eo sean, miño geo, geo denak itxi sien, denak itxi sien, denak, denak, denak itxi sien, kusten tzen etzela seaik eta etorkisun besela txarra sela ta etziotela pakian usten, euskaldunai bisimoduik etzioten usten da, itxi in tzien.



ELENA GARMENDIA (1919-VIII-17)

Zertan hasi zinen lehendabizi lanean?

UUU! Ni lanian... Neskame lendabisiko, bi tokitan neskame eondu nitzan. Bar Sabi bakisu nun den. Bar Sabi, sean, estasiyua biño len. Billa Bat eta Billa Bi o sea? Or Billa Sabi bada? An eondu nitzan, eta ara juate nitzan, eta andria kastillan... Bizkaitarra sien eta esaten tzitten, olako ekarri nasu "Traeme medio de cocido y eso..." An koperatiban, oañ nola se... Kutxa, sea, laborala? Or ama nuen, ta amai esate niyon; Ama! Ola esanau Sabiñak, etxekoandriak: "Me traes una libra de cocido" eta nola esam beyot nik arakiñai? Eta, ola esam beyosu: libra bat saldako aragiya. Eta ola. Polentzi, Polentzi re orduan gukin, bueno nekin ibiltzen tzen asko ta ara juaten tzen, ta baita sean ee, oain Xelextina o bisittu dien tokiyan, orre ondu nitzan neskame, arekin, arekin beakin, ta jarri ta, Polentzi ta biyek, Juana, Marikarmen nola, sea, Lopetegi? Bakisu sein den? Arren ama seon mimbisiyakin, ta gaxua ola oten tzen ta baa! "Esa pobre mujer también como está! Tiene un mal! ¿Y qué mal tiene? Ta Polentzik: Nola esango sionet? Es baigenakiun erderas, eta "enfermedad" miña da, ta "vida" bisiya. "Enfermedad vida". Oañe Polentzik semat bider esaten "enfermedad vida". "¿Qué mal es ese?" Ta ola, ola... Nik amai galdetze niyon, arek erderas esaten tzittenak, arei, amai esate niskan ta ala juate nitzan enkarguta. Ola, ola bisittu nas ni. Ta geo lanian, ba eskabetxeyan, lanik, lana etzen biar besela orduan eta eskabetxeyan ibilli nitzan, bakalluan ibilli nitzan, bestia, eskabetxeyan, bakallua... Geo galleteran sartuko nitzan, galletera, ta galleteran eerki, sean, eskabetxeyan e bai. Ooo! Denak barrura! Bat bagenun ba, ta, enkargatuak ¡Mekaguen los istintos! Los intestinos esam biarran, Mekauen los istintos! Ta farres ala aitzen giñan ta an eerki ibilli giñan, oi bai, Sanjuandarrakin ta, eta geo bakall... oi... galleteran asi giñan, asi nitzan. Bai ederki an! An oso ederki! Denakin! Denak, sea, ondo etortzen giñan, ni enitzan beñe aserretzen, ta oan, berris, beti aserre no, beti aserre, oan beti, beti aserre eta orduan oso ondo, amabi urte oso ondo pasa nittun, oyarztuar mutillak genittun ta! Aikin, mutillakin kontentu! Oso ondo pasa nun. Amabi urte oso ondo pasa nittun nik.

Zein izaten zen zuen eguneroko lana han?

Es, es, es, lau biaje. Lau biaje itten genittun, eta goisian jun ta eguardiyan itxea eta pake... A! oi goatzen nas bestia. Anastaxi, Manson ama, Manson ama... Asi nitzan sea, asi nitzan ta; Aisan! Tor yai! Tor yai! Ta petua, mantal txuiya genun ta petuan galletak sartu siskitten ta: Ai ama! Nik nola jam biar ttut abek? Jan tzin lasai! Jan tzin lasai eta arrek eman siskitten galletak ta geo oso ondo seatu nitzan, ta geo, sea, plegadora, plegadora jarri siaten, iseba Karmenekin, iseba Karmen, Konsuelon amakin, eta errosayua erresatzen aitzen giñan biyek, gois gusiya errosayua erresatzen, ta lau lata aundi artu ta almasenea ematen... emanen, oso, oso, klaro! Karga aundiya, orduan oan miñon sasoi obia nakan ta eerki ibilli nitzan.

Egun hark zu Donostian harrapatu zintuen, hortaz?

Nei bai! Gerratiak Donostiyan. Oi! Gaxki! Ua bai gaxki pasa... ! Sea, arostei batian, goatze nas, amasaspi urte kumplittu nittun, arostei bat genun, an sartu giñan denak, eta, amasaspi urte, oi! gaur amasaspi urte, eta, bai... Agostuan amasaspiyan eta gaxki pasa genun orduane an tiroteo tartian. Oi! Tirua! Reketia... Reketiak Daitatik barrena nola sartu sien, nik, neonek ba, goatze nas nola ikuste nun, itxetik ikuste nun, reketiak, sea, a! Errenteyan nitzala, amasaspi urtetan, orduan, atta ilta... eta Daitatik barrena reketiak eta geo (...) pasa sien ta "Ahora de aquí a Bilbao vamos a entrar! ¡Vamos a entrar en Bilbao enseguida! -Parrato! Patras! jum ber isandu suten. Saldiyak, trakatran- trakatran-trakatran! Eta atzea bota sittusten reketiak orduan. Txarki pasatu nun nik gerratia.

Eta gosea-eta, izango zen, ezta?

Gosia! Gosia! Sea, litro bat oliyo, "setenta pesetas" o, asko orduan, eta gue ama gaxua flakatu sen, Jesus! Gaxua! Flakatu sen ua! Oso gaxki pasa genun... Ta gue mutilla, sarrena, Trini Askasibar ba al dakisu sein den? Ayek, amalau bat o sien ta ederki etortzen tzien, eta Rikardo ua eaman tzuten seara (...) Aguasilla re bai, aguasilla re, Antonio, baita eman tzittusten. Bestia Juan Joxe Intxarraundieta, eman tzittusten batzuek, ill in tzittustela batzuek, eta Rikardo an, eta Trini Askasibar arrek gue Nicolas, gue ama... ne anaya (aitakin iltakua) seatu sun, salatu sun, arreatatik men tzela sea, eta ama-

bostetik amabostea, baño es! Erritik etzun atea biar gue mutillak, etzen ateatzen, etzioten lajatzten guardiasibillak, erriyan bakarrik eom ber tzula ta ola pasa sittun arreke. Gue ama gaxuak asko sufrittu sun orduan...

FERNANDO LEGORBURU (1908-V-03)**Eta maiz izaten al ziren?**

Iya jayero, nonai saardoteya basen ta, emen Leson bertane Patxikunen, Errekalde, Saizarren, Apaisiartzan, Torrojillen saardua, iya basarri, kompaaziyo batea, kupel bat o beste, txandan, itten tzuten, sea, ereki ta etortzen tzenak, gison galantak bai, arrantzale jendia etortzen tzen, oimbesteko tripakin, bai, sea, Ondarraitik eta bai sea, e, Sanjuandik. Saardua erdiya ondatu itten tzen ordun.

Zergatik?

Basuan ateatzen tzuten, basua, ba al dakisu se basuan... sosian, senbatian... aste masiñan bota, erdiyao pixkat ean, itten tzen, iual da, lau o, bost o amar joatem baia denantzat ronda atea, eta ik geo ean tzak ua! Eman itten tzun eurra. Basien attonak ordun, juaten tzien amaiketako mesa nausira, andik atea eta oain Indione deitze... bai, bai, bai, an ingo suten sea, amaiketakua... In ta geo ser da ta itxea torri berrin saardoteira basarrira, an isaten tzien komeyak, borrokan ta atton zarrak. Gu, askotan gu, afiziyua isaten tzen toka, ronda sea itten bagendun ta geo ni enais beñes zurruterua isandu, nik naikua ittenun auro ta besteatzuk, berris, ean ta ean, geo beste gausa isaten tzen, trukian, bai, trukian, basien iru o lau basarriyan, monatxotarrak eta, basien, sesiyua ta muturjoka ta tantuan kontun, miño ordun grasiyak, guk oiken artetikan ta alde itten genun, bai.

Diruarekin egiten al zuten jokoan?

Saarduakin. Diroik es, ba, dirua isate al tzem ba? Geo gerra ondo-ren ta, jai ta aste lana sen Alkoleran-eta, biño eskopetai es geniyon utzi. Errekitxe gizaajua, ua pena eman tzian. Andria gaxotu ta bea ill. Pasa genittun, pilla aundiya sien gaña, Errekitxeko oitakua, Luzia. Orko semia sen, biño seara... sean bisitzen tzen, Errenteyan bisitzen tzen, topuan bi txakur sartu ta konejota, eta geo andik oñes, bai ta geo emendik eta arratziane igual, ta ua Errenteyan bisi sen, Santaklarakuortan, ondo ibiltze giñan.



NIKOMEDES PIKABEA (1918-XII-10)

Baitare! Esangoisut arren isena

Oi sein tzen?

Arantxan atta. Arantxa difu... etzenun isautuko, gerratian nola bonbak il tzun

A, es, es nun isautu.

Ines nola? Arren lengusua

Oik Txutxon bisi sien. Bombak il tzun atta ta alaba, atta ta illoba. Xebastian Sein, oi sen, launarteako ona, miño serbisiyuan sereno, e, arrek etzun launik, e! Ta oi, Bekoerrotan, o, oan ya bada, oan poli-deportibua, or, oi toki itzusiya sen garai batian, oso itzusiya, gurdi-biria, ta oi, taka-taka-taka, rekorridua itte sun sereno seola, denian, e, erri gusiyen. Alkatia, Patti, o, Patti isango sen, Patti Lopetegi alkatia, eta, bueno, i! ordubatian tabernak itxi, e! Fuera, e! Bai, bai, ondo, eun batian joan duk koperatiba ta, gue osaba isango sen tabernakin, orduan, Inaxio, tabernakin, ta alkatia komedorian, afaldu ondo ta tertuliyen, serenua torri sun ta, kan-kan-kan, atea sun osaba ta: “Alkatia emen do”, “se esateiak alkatia or dola, nik oloko ordutan ixteko ordenait, bueno bueno, torko nak geoxio, atian kieto serenua, alkatiak eta denak kampo atea, oan itxi, arre sittun potruak!

(...)

Miño arrek espaisun itten, beste serenuek besela itteik, ua, arrek konsientziya garbiya baisakan, ta iñorrek arpeira botzeik es, arrek garbiya, konsientzi garbiya, arrek espaisun engañatzen, osabak engañatuko sun, “sartu ai..., ala!”, “Alkatia emen, nei se esateiak alkatia or dola nik orduatian ixteko seait eta”, biarren bueltan torri senian, ala!, Oik! Oik! Ola! Es gaurko kaxkariñak, kaxkariñak, gaur kaxkarin asko do autoridadetan, asko! Oik es, oik sien sutenak, gisonak biar ttunak.

(...)

Emen tiroka ta ola, ta atzeatu in tzien, ala atzeatu sien, eta geoberrise etorri sien onea gorraño, onea emendik, biño es... ala, Santiyoye euna isango sen, Trintxerpe bakisu, fama txarra sun Trintxerpe garai batian...

Zergatik?

Zergatik? Ibilli baisien treintaitresian, ikaarrisko uelga in tzuten arrantzaliak, orduan sien “guardias de asalto”, gison bikañak, e! Es kompaatu oango guardiasibillakin ta polisia nasionalakin, balkoya jotzeko mokuak denak, tesateute, bai, gaur libre da, gaur demokrasia do, bai esan isanduit lanteiyan emakumiak, bai gaur demokrasia do ta, libre da, libre? Orduan, “el año treintaitres, treintaitres isango sen, orduane sea sen, libre, demokrasia sen, republika seon, ta kolejiyotik eldu geala jende asko, Panier Fleuri estusu isautuko, ta or ai sien Papelera Oarso, berriya itten, oango papelera orren atzian do, usteut botia dela, Papelera Oarso, ta orko langilliak eskatzen tzuten seoser, estakit, aumentua, jornala, ta Antonio Mendisabal, kontratista Donostikua, arrek esetz ta baiez, ta eses, ta, Portugesak ekarri nai sittun, ta langilliak, jo! Eskolatik atera nitzan, kolejiyotik, ta andik etorri ber ba, Panier Fleuritik barrena itxea, jende asko, langilliaik denak, uelgan tzeostenak, torri sien bi autobus, seak, guardiasaltuak, ta orduan isate sien autobusak lusiak, tolduakin, dena aurretik atzea toldua, korredera o nola isatea, tipuorta, ta au dena, asientuan ate ttikiyak, au dena libre, ..., au dena libre ola, ta ni an, ain tartian, mekauden! Kotxia martxan, salta nola! Martxan, e! Geldittu be! Oandikane, ta danba, danba, danba, etorri sien, meka! Ni korrika itzuli, es demokrasia sen orduane, baño, mekau! Ooo! Bi autobus etorri, aik garrote soñuak, ni itxea susenian, estait sertan geldittu sien baño, aik esuten esplikasiyoik, leña! Miño leña, e! Gaur esateu demokrasia data, demokrasia? Orduane demokrasia sen. Esangoisut, “el año treintaitres”, arrantzaliak uelga in tzuten, teskatzen tzuten, goardiasaltuan jornala, “trecientas pesetas dan y una... porra y una pistola dan...” takit, kanta basen orduan guardiasaltuai ata siyotena, kanta bat, osea, “trecientas pesetas” irastan suten, jornal aundiya baisen orduan, joe! Ta arrantzaliak oi eskatzen suten, “trecientas pesetas”, guardiasaltuak besela, ta armadoriak esetz, ta esetz, denbo askuan, iru illabetian eondu sien, uelgan, ta gosia, ta asiyak sien, onea esien etorri, baño or Oyartzun aldea ta, basarrita ta, eskian, sosik es, ta eskian ta ola, ta or organisatuute manifestasiyo bat Donostira, gobierno sibilla, ta, nombatte, kuartelea abisatute, eta kuarteleko soldaduak, asko es sien torko, konpañi bat o, seziyo bat o, pelotoi bat o, orrea, Arzak nola do, or jarri sien, ta an manifestasiyua, bestiak alto, soldaduak, eses ta,

aurrea! “An bian kotxeretan guardiasibillak doste, e, guk utzikoi-sugu, baño andik etzeate pasako, e”, krixton manifestasiyua, kotxerasea allea..., arrimatzen ai diela, seak, guardiasibillak alto, keba! Esta pentzature, eta tiroka, dale! Ta nik arateya nakaneko ondoko dendako Lola gisona, andria, ta gisonak estait se isena sun, uare an, manifestasiyuan, ua il tzuten, ta geyo rebai, ua re an il tzun, ta geo berrise Lola oi eskondu sen beste batekin, tiros, ola! Demokrasiya baño, bakisu se errespetua sen orduan, guardisibillak bakisu kapote beltz ua, se errespetua sartze suten, ikara ematen tzuten, e, emen karabineruak, ara, ementxe, karraskilluoin kontra, ta oi sabala sen, ta or itten tzuten, torko sien inularrian, saspিয়ak aldian o, ola, dose-nerdi bat karabinero, ta tenientiakin o, o sargentuakin igual, baño askotan tenientiakin, ta or, ortxe grupuan eongo sien, ta destinua, seak emango siyoten, tenientiak, olako pareja bati, bestiai ola, bestiai ola, bestiai ola, bestiai ola, destinua, ta geo emendikan, joango sien destinoa, ben destinoa.

KANDDI SALABERRIA (1928-VII-25)

Katekista ere izan zara. Nola antolatzen zenuten dotrina?

Bakisu, apaisak esaten tzuten, aik ematen tzuten ta gu ba eakusten. Nik isandu dut por ejemplo kuadrilla... jeneral isaten nittun, nola esango nisuke nik? Pixka bat atzeatuak o, geyena kostatzen tzisayotenak o, oik artzen nittuen nik, miño beti mutillak e! Erderas eta euskeras, bita. Oi ya bakotxak beak nola nai suen ikasi o...

Nola ematen zenituen eskolak?

Eserres. Dotrina eakutzi bakarra. Memoris ikasiasi dotriña, ta batzuei nola kostatzen tzisayoten, itxian ikasi... etzuten ikasten, su ua eakusten, biñon memoris bakarra, es esplikasiyo bat eta eser es genuen... Oan, geo seorrek nai balim basenun seem bat, esan iruizen tzisaisuna, es im ber lutekela ua, bai biño ola. Oañ emateuten giruakin, osea, moduan, es. Gu enkambio, gu memoris dena. Eta im ber... guk es, eser es eta geo dotriña jaisten tziñan bakotxak be gelan eman tzuenian dotriña, jaxten giñan denak bera, mutillak alderdi batea ta neskak bestea, koro azpiyorta, eta orduan ya apaisak itten tzuen bee esplikasiyua, ordu erdi bateko... o ola! Bai, bai, bai, memoris bai dotriña memoris ikasten tzen etzun importa entendi-tzem basenun, es bazenum biñon atzetik aurrea; aurretik atzea basekisula.

Zein maila izaten ziren?

Asten tzinan, komuniyo ttikiya. Komuniyo ttikiya itten tzenuen ta ordurako ya ikasiya juaten tziñan Auxtiñana, juaten giñanak, ta geinak juango sien orduan jeneral dotrin ttikiya ikasiya isaten tzenuen, ta geo ya asten tziñan dotriñ aundiyakin.

Zer diferentzia zegoen?

-Klaro! Sallagua, aundiyagua, emen galdera xamurrenak isango bagenuke besela ta otoitzak... eta oi. Eta geo ya amaika urtekin itten tzenun komuniyo aundiya, eta geo amaikakin (...) saspikin, eta geo jeneral asten tziñan ba katekista o ola sartzen tzisuten ttikiyakin o ola ta ya.

Eta konfirmazioa?

Konfirmasiyua es, ttikitan itten tzen orduan, orduan ttikitan itten tzen konfirmasiyua, jayo, jayo ta audo.

Dotrinarekin batera zer gehiago ikasten zenuten Auxtiñakin?

Abezedayua, abezedayua. Kantuak eta, estut uste... Letzen ta es, oik, es,es, es, es, otoitzak eta...

Abezedarioa zertarako ikasten zenuten?

Oi! Ikastiangatik geo eskola juaten tzeneako basenekisun ua, orratx! Bai ttikiya, bai. Orrek dena euskeraz ematen tzuen bai.

Eta kaira joango zineten, ezta?

Ooo! Politta kaya! Ura bertaño! Geo or eskoitan basen suen itxian pariortan itturri bat, eta arriya-ta ola, ta karramarro biltzen. Geo tronkuakin-ta asi sien. Geo baraderuak e bai! Nik baraderuak isautu ttut...

Jendea aritzen al zen ixkiretan ta almejtan eta?

Gu beñe... Eske au geyo ibilttu da ta... Leitotan! Nola oañ mejilloyak? O esaten tziela? Oyek biñon lusiaguak biñon zakarrak. (...) Oi! Se erremeyo beste ser janik etzen ta!

Jendeak ba al zituen batelikoak?

Bai... oten tzien batelikuak or, bai, gutxi, e, biñon eoten tzien, bai. Juan isandu gea arrantza. Ni bi anayakin juan isandu nas, or artu batelikua osabana ta, pontoia eoten tzen artan, arrantza. Miñon emen politta sen seatikanen... Arriyak altxa ta karramarruak, ai! Ixkiretan ni es biño, anguletan e or ibiltzen tzien...

Jendea bainatzen aritzen zen?

Emen ainbeste es, geyo juaten tzen Erroteta, Erroteta geyo, bai.

Santakrutzetako feria ezagutu al duzue zuek?

A! Nik idea serbatte baut, biñon es nas, irunesana... Biñon oi politta isan biar tzuen... iseba Austiñak kontatzen tzuen oi, bai. Pena isandu sen iseba es artzia, ola gausak, ixtoriyak... Dena betia... Ni irunesana goatze nas, beste iñor... es, enas goatzen, irunesa bai, nola

etortzen tzen irunesa ta jartzen tzun puesto aundi bat erropana ta...
ola jartzen tzun biño jendia errus... e! Dakat ideoi bakar-bakarra
dakat. Biñon isebak kontatzen tzuenes, dena mertxeros betia ber
tzuen, dena. Ona itten omen tzen oso feriya esaten tzuen arrek. Geo
jartzen etzittusten, seak, otorduak, e, itten etzittusten bertan eta
ola? Xerra pipermorruakin, denak menu bea...

Santakrutz egunekoa?

Ala isango sen! Santakrutz egunekua isango sen oi, feriya, es?

ERRAMUN SALABERRIA LOPETEGI (1928-V-02)

Zein ziren zuen jolasak umetan?

Bueno, gue ttikitako jostaketak, bakik, i esas..., kaniketan ta, aako kulebrillak inta ta, kaniketan ta, ola bota biatzakin ta, kaniketan ta aitze giñun, ta beste seakiñe bai, lurrian markak inta, an xuloat in, ta bueltan-bueltan alkarri pasten ta, alkarri kampoa botzen ta, geo beste jostallua rebai, seane, beste pirrillake artu ta, ola manilla, pirrila artuta, ta ari ola pirrrrrra! Pirrillakin ibiltze giñun ta, gustoa.... Gañekuan sokakin sokasaltuan ta, o ikuttuketan tzela o, marru-marruketan, ik bestela aittuko yun, alkarri ola paro jarrita ta, oitan ta, gue jostaketak oik ttuen.

Eta zipoketan?

Bai, ta neskak berris, seakin, kayola, osea, kallo esaten, neskak aikin ta gu re aitze giñun tarteka, kallukakin ta neskak, ta gu, berris, ... sokasaltuan ta ola, jostaketa, gue, garai batekua oi yun

Eta pilotan?

Es, es, gutxi, ola, lotriña joatian ta, goiko plasan ta tarteka aitze giñun, gu gutxi aitze giñun guk itxea torri ber isate genin ta, biño, tarteka ta sea aitze giñun pelotan ta, ta sean, jostaketan, orduerdi bat pasa ta itxea korrika, olako, olako saltzaatzuek.

Eta gainerakoan, herrian zein dibertsio zuen gazteriak?

Erriyan, orduan, gasteyak es, es, erriya, gasteya orduan juan itten yun, esuan, Leson gaña esuan deuse ta, Leso erri ttikiya orduan, Leson esun deuse, es, sinea dela o, es billera dela o, deuse es bai-seon, ta Lesoko gasteya itten yun atea... gasteya kale aldekoa, sinea Errenteira askotan, orduan sinea..., sinea Onbidea ta Reina ta, gasteya ta, bestia, berris, basarritar olako, berris, dena billereta joaten yun, kale aldetik joaten ttuan, miño, basarritarra jeneralmente billereta, ta geo, geo Errenteyan Alameda re, geo Errenteyan Alameda o orrea rebai, ta orreke, bueno, orrek bolada aundiya eman tzin, or esuan kaittu re itten garai batian ibiltzeko re, pasiatzene, or...

Zuk zenbat sagardotegi ezagutu dituzu lanean?

Nik saardoteyak? Bai, isautu denak es, miño aitzea bintzat bai, nik isautu ttit emengo seoik, Olatzar ta, gue itxian ta, Bordatxon ta, Txatxamendin ta, etzekit Saisarren basen bestia ta, bai emen olako saardoteyak ttuan martxan ibiltzen, ta saardua bertan partitzene, berris, Bordatxo or eongo yun emen saardua... Guk saardua kalea botzen genin, miño saardua saltzeko itten tzutenak Bordatxokuak mintzat, ne demboan,

Zein jaki izaten zen sagardotegietan orduan, tortila, txuleta...?

Orduan ebai, bai, bai, gu beti ortan ibili gattuk, Bordatxoa juaten giñan orduane, arratzaldiane joan ta tokan ai arratzaldian ta, o, o exei, askotan partidoa saardua jokatu o, o sebatte olako xaltxa in ta geo aspertzian, o iñularrian pixkat garai batian... atea, orduan bi mai luse eoten yun or saardoteyan da... limisi gaurreun mintzat tortilla bakalluakin ta aragiya geo

Famatua omen zen, ezta?

Fama, bai, bai, fama, ta ondo jartzen tzin Bordatxon-ta amak Martxelinak, ondo jartzen tzin jateko

Norberak ez zuen etxetik eramaten jakia, ezta?

Es, es, norbeak ola senarremasten batzuek arratzaldian jun ta, merienda umiakin juanta, o olako, olako... Gañekuan ola soltero, sea juaten tzenak bertan ematen tziyan.

Koadrila handiak joaten al zineten?

Bai, gu re dosenerdiat laun biltzen giñan-ta emendik eta kuadrilla, kuadrilla batian aundiyak es miño, itxe gusitatik mintzat bai jendia, emengo itxe gusitatik mintzat bai, orduan Leson emengo buelta au dena orrea saardoteira juate yun, ta ola ibiltze giñan.

Zer izaten zen jaietan?

Fiestetan? Fiestetan Leson mintzat Santrakrutzetan ta, Paskotan ta, oitan mintzat oan miño amiente obia, dena, osea, Lesoko beko plasa re asi ausko kanttoitik eta onea, onea Kaja Laboraleko kantoyan bueltontan dena erremintes ta betia eote yun, dena, erre-minta klase gusitik ta makinei ta dena ote yun or Txutxoko pati-

yo... Kollobi ta oyen attak orrek jartzen tzittun or, amientia ona eote yun orduan.

Beraz, zuk ezagutu zenuen feria.

Nik oi bai, ta oan besela...

Eta Goiko Plazan jartzen al zuten?

Orduan es, geo asi yun, goiko plasan geo asi yun, orduan bian bakarrik jartze yun, bian itten yun fiesta gusiya, beko plasan, orduan goyan pelota partidua bakarrik, osea, pelota plasa bakarrik yun, besteik es, oik oan, geostik indako lanak ttuk, bian bai miño, amientia bai bian amientia ona isate yun orduan fiestetan, jendia ta asko isate yun Leson.

Kanpotik etorriak?

Bai, bai, bai, Santrakrutzetan ta, onea Santa, goisian naparralde ta jendioi gañea ikiarri tortzen yun onea, sortzi autobus-ta torri isandu ttuk onea, sea Napparotik ta, goisian nobena, orduan nobenak bakik ser tzien ta, nobeneta torri ta geo bein torri eskeo orduan bertan jaten ta, bertan ta, fiesta eun gusiyan orduan, kam-poko jendia asko ibiltze yun orduan, asko, asko.

Ferian zer izaten zen salgai?

Basarri kontuko erraminta, bai, basarri kontuko erramintoi

Eta famatua al zen?

Bai, bai, bai, ta orduan esuan gaur aimbeste, inguruan gaur ainbeste ferretei re esuan isango ta orduan...

Erreminta asko artzen tzin basarritarrak eta, gaur aukera siok nonai ta gaur esta oimbeste seatzen miño, orduan bai, erreminta asko, klase gusiyak.

Zer besterik izaten zen?

Musika gabian, oan besela, ta gañekuan, gañekuan soñua arratzaldian o, soñua ta gañekuan orduan esuan besteik isaten, ola sea, axkolaim batzuek o karga... batea o bestea esaten basen o, seatzuek, ari apustu ta, olako seatzuek, ta gañekuan gabian musika ta...

Jendea goiz erretiratzen zen, ezta?

Bai, orduan gabian, bakik, bein amaikak eskeo erretira isaten yun ta, atea gois itten iñularrian, es oam besela, gabian... atea iñularrian atea, ta geo gabian, amaikak, amabiyak, non ta olaxe, gu re torri sanduattuk eta, gabian afalduta o, gabian taberna atia itxita barrenan o gaupasa esbau itten, gañekuan mintzat kampoko jendia erretira, orduan serenuak-eta ibiltze ttun gaña, garai bat eskeo erretira isaten yun.



PEPITA SALABERRIA (1920-VII-13)**Herrian jendeak gosea pasa zuen?**

Bueno, emen gutxi-geyo baserriyak-eta re basien ta, beti bakisu baserrira juan eskeo eskeintzen tziuten ta, artas, miño gañekuan, ta geo esnia ta re basen ta, orduan baserritatik etortzen tzen esnia re, ekartzen tzen, etzen oain besela, ondo, ta geo gutxi gora bera selai ttikiyake basien ta, patata ta, isaten tzen ta bueno, oinbestian.

Eta gazteek zer egiten zuten?

Bueno, ya gastiak, ya, joaten tzien, bueno, mutil olakuak eta, joaten tzien Errenteira, Lartzabala, partiduak isaten tzien, Turin ta oyek, eta ola ta, aik-eta ikustea ta, gu berris, pues, o seara, Txikierdira, jute giñan baitare, dantzaldiya isaten tzen, o bestela Errenteira, jute giñan baitade, banda-ta isaten tzen alamendan ta, ikustea ta, ola, se, gu garayartan, sueltuan bai, miñon gañekuan esin, gañea, esin, orduan, seatik ya kongreasiyua sen ta, dantzatzem bagiñan mutillakin kastigua, eta ola.

Zein zigor jartzen zizueten?

Pues, denan aurrian illian bein o ola isaten tzen kongreasiyuak, ola, funtziyua, pues, denan aurrian, bakar-bakarrrik aurrian jarri ta, sin-ta urdiña amaten tzen besela, moria jantzi, ta denan aurrian an, pues, kastigatu, faltatu senuela. Miñon geo ondo pasatze genun seatik jayero, oi emen isaten genun... txistulayak-ta tortzen tzien Pasai Sanjuandik etortzen tzien, ta jayero, bai, ta jayero-jayero, pues, labak aldian o asi, ta geo estakiba nik, sasiyak o iñularra bitarte isaten tzen da, ondo.

Dantzan egiten zenuten?

A, bai, bai, gustoa, oixen!

Eta jaietan?

Jaitan-ta emen banda basen, e, bai, banda basen, eta bueno, ya, Gurutze Santuak-eta asten tzienian ola, aldeatzen, pues, banda entzayuak-eta itten asten tzen ta, ua poxa! Ta ola, ta geo, pues,

gotzen tzun, eta geo, jayak alleatzen tzienian, baitade, basen, geo feriyak etortzen tzien, kampotik etortzen tzien ola, besperatik, eta orduan etzen oaingo errextasunik, ta besperatik-eta etortzen tzien, ta emen, Goiko Plasa deitze geniyon, ayuntamentuan atzealde orrei, ua sen dena arbolakin-ta, geo sen, frontoya, ta frontoya goialdian tzen exerleku bat, eta andikanen, askotan de baitade an eoten giñan baitare seatik beti partiduak-eta isaten tzien ta, entretenittu ola, ta goiko soruoi atzeiña sen oso, or isaten tzien, or isaten tzien festa geinak, ola festak sienian

Feria, pelota, zer gehiago izaten zen goiko plazan?

Dantza tokiya de an itten tzen.

Eta beheko plazan?

Beko plazan de itten tzen miñon ya illundu eskeo, o, ola, miñon gañuntzian goyan, ta geo, Sanjuanetan-ta dena apaintzen tzuten ta berbenak-eta itten tzien baitare.

Eta antzerkia, zuk egin al zenuen?

Bueno, guk, ni bai aittu nitzen, bueno, oi sen, oi etzen oain besela, geo asi sien batzokiyen antzerkiyak itten tziusten, ta ayek bai, miño, gañekuan, guriak sien dotriñako-ta aurrak giñan ta total, gui esaten tziuten au im ber dusute, ta ematen tziuten ikasteko, ta ola, miñon, antzerki besela eser askoik es miñon bueno, ola dotriñako gausak, miñon geo asi sien or batzokiyen gesalatar oyek, eta oyek asko itten tzuten, geo asi sien.

Eta garai hartan Lezora jende asko etortzen al zen?

Bai, bai, jende asko etortzen tzen, ya uda demboan bintzat, Madrilik sela ta, ene, fama aundiya sun, jende asko etortzen tzen.

Zer egiten zuten Lezon?

Jeneralian alde in, seatik oyek ya Donostiyan-ta isaten tzien. Donostira etortzen tzien, ta geo Donostitik onea, ta orduan, ba, isautu genittun, baitade, kotxiak saldiskuak, tortzen tzien.

Francoren andrea ere etortzen zen?

Bai, bai.

Eta jende asko izaten al zen?

Es, keba, abisatzen suten, aleiya, nola etortzekua sen, ta, bikayua, jakiña, oitakua sen, ta seaundiya sun jendia biltzeko-ta ola, miñon, es, etziyon oimbesteko importantziyik ematen.

Eta bikarioa?

Xorrotxa sen.

Zertan?

Denian oi, pentza sasu, arrek, arrek jarri sun elisan alde batian emakumiak eta beste batian gisonak eon biar tzutela, elkarrekin es, geo baitare, basun, elisako atiak itxi ta ereki itten tzittum bat, ola, eta jaitan, mesa-ta isaten tzen, ta bueno, jartzen tzun ua ate onduan, eta bein ebanjeliyua eskeo etzela mesa entzuten, eta atiak itxi, ta es ate-atzeik ta es sartzeik, obligatua dena.

Herriarekin zer moduzko tratua zuen?

Es, ona es, seatik sen oso, xipotia sen, oseake beria ta, beti gaña seatzen tzittun eosin entierrez siela o basiela ta, denak, pues, aberatzak aberas besela, ta bestiak, bestiak besela, apais jantziyak eta denak, desberdiñak. Eta geo, baitade, aurrak jayotzen basien, es, ola, esaten den besela, be garayian ta ola, pues, itten tzien, goisian gois, o gabian inulabarrian o, ta an goiko elisan batayua, exkutuan, gausoyek,

Eta haren anaia?

Bai, don Luix, ua ya seogua sen, seatik bitu, itxian bertan de, arre-bak basittusten eta, bikayuai uste, beorrika itten tziyoten, ta bestiai suka, anayak sienik, e! Miñon, orratx!

Horiek denak erdaraz aritzen omen ziren, ezta?

Denak, denak, bai, beak, enkambio, Billafrankakuak sien, miño dena erderas, illobak eta denak.

Eta baserria?

Baserriko sea trixtia, seatikanen nik, ni guatze nas, guk Bonatxo, guria sen ta, bi sien ola, eta, urtian bein estait se.... sen orduan, biñon, asko, seatik etzien alleatzen miñipin, urtia etorri ta beti esin allatuik errenta paatzeko.

Eta sagardogintza?

Bai, guk sagardua itten genuen, geok itten genun sagardua, tolariak genittun, eta bertan sagardua in ta, ui! Fama aundiya isaten tzen, ta emen denian sagarra bai balim basen, denian, denian, sagarra, ta bertako sagarra, geo falta balim basen, Tolosatik o ingurutatik ekarzen tzen, miñon, gañuntzian bertakua, geok biltzen genun sagarra, eta, anayak-eta, tolarian aitzen tzien, ta geo ni sagardoteyan.

Eta gero saldu?

Bai ba, ola, baxoka, baxoka ta pitxarrian familikuak juaten tzienian pitxarrian, miñon gañuntzian bertako jendia ta Sanjuandik asko tortzen tzen iñulabarretan, ta, ortxen, meriendak-eta iñes.

Janik eskaintzen al zenuten?

Es, beak ekartzen tzuten, bai, seatikanen bakisu, Sanjuanguabek, iñulabarrero Lesoa etortzen tzien dembora batian tzen, joaten tzien goisian txalupa ttikiyakin-ta goisian, ta iñularrian tortzen tzien arraya arrapatuta, eta arrayua itten tzuten iñularrero saskitan artu makumiak, eta kales kale saltzen arraya, eta ortako, pues, gisoneskuak, berris, itten tziusten ola, sukaldia de basuten sagardoteyan, eta, sua itten tzuten, eta beak ekartzen tzittusten berdelak, txitxarruak, sardiñak, ola, ta, bertan in ta jan ta, sagarduakin, umore bat, ene!

RAFAEL AGIRRE (1926-V-19)

Lanera oinez joaten zineten, ezta?

Lesotikan, subiyik etzeom ba, subiyik nik enun isautu, subiya riadak bota men tzuen, subiya riadak bota men tzuen, nik enun isautu, geo, geo in tzuten, sea, jarri siyoten seai, trembiriai, puska bat jarri siyoten pasteko, Kaputxinota joateko, geo orduan guek subitik pasten giñan, trenan subitik pasten giñan, eta askotan Kaputxinota es iyotziangatik, an baxterretik, es iyotziangatik, trembiretik, oi, tuneletik barrenetik sartzen giñan, ta batian miño geyotan bi trenak barrenen, ta gu barrenen, xakotiakin an basterrian arrimatu ta “andik eldu dela!” ta “bestia eldu dela” ta raka! Trena gañetik popo-po, ta gu an sartuak, suluan sartuak, sea, trembirian, ta bueno, oitamabost urtian baita Sanjuandike, motorrian pasata, ta trambian ebai, osea, Errenteira joan, trambiak, orduan trambiak siem ba, geo autobusak geo in tzittusten, trambian ebai, miño lendabisi Errenteira, karo, lendabisi ebanisteian eondu nitzanian Panierraño joan biar isaten genun sea, Papeleraño joan biar isaten genun onea, kalle, onea, etortzeko, bueno, sea seon, tallerra seon, nola krusatzen da oain Iztieta, eta seana Urbietan tallerra seon, or bado sea bat, oan jarriute sea, kosmetikos o almasen aundi bat, ba, Iztieta pasatu seara, beste alde, (Avenida de Navarra?) Bai, miño oan berriya jarriute or sea bat, kosmetikos ta, bai, mariskeya bakisu nola don? Mariskeyan frentian jarriute oi, ta mariskeya miño sea, oi biño auntzixio seon tallerra, oandik bado sea, denda, kalle Biteriko denda, jostalluak-eta an eukitzeute, oi esposisiyua, or muebliak esposisiyua eoten tzen ta tallerra seon barreno, alde batetik suen Niesen ta besetik sea, Carasa, o, Laboratorios Carasa, eta or, or, “del cuarenta”, ta orduan ni beti biyurriya isandu bainas, eta sea, makinak martxan eoten tzien, makinak, tallerreko makinak martxan eoten tzien, eta etzen aitzen geo sea, orduai beira ta, es sea sen, eta ni txistua jotzen... korrika pii! ta bisiketa baseon an, txirinda basen, artu nun da batian Pisbekoat eldu sela ta, ni onea eldu nitzala, jo biyek, eta aidian biyek joan giñan, oi amalau, amaost urte o, ola, eta geo bat kompontzeko diroik es, eta seak sakan, kojoat sen, kalle Santa-klaran o, Errenteyan ta nolaspatte ara eamanuen da, seatu sitten,

susendu sitten erruera, ara juateko, an jun im ber tzen geo, tallerrea, mekaben! Oi amalau-amabost urte, osea, oik, ebanisteiko kontuak dia, geo Trintxerpen beste ixtoriya sen, orduan tamborradan, orduan atea nitzan ni amalau-amabost urtekin, Leson, ttikina ni isango nitzan, gastiena ni isango nitzan seguru asko, o gastienetakua, seatik, Anttonio Pikabea ta oik denak sarro sien, denak sarro sien, Martin Kerejeta ta oik, amabi urte gutxinian sarro ni biño, ta Gesalana sen sea, direktoria, Barttolo Salaberria ta oik denak illak dia, geyo estait, bueno, pillaat ateako giñan, miño ni orduan atea ta, karo, atea nitzan tamborradan, attak etzun nai sea atatzia seatik beakin eotia naisum ba, atta, tallerrea juateko etzeon seik piño, geo, beakin eotia naisun. Atea nitzan tamborrada miño, ne gustoa es, ata nitzan miño, jo tamborrada, geo launeta etorri nitzan, ta Xebaxtian da, Xeberiano ta, Juanjoxe ta oik denak, len Oriotarran porroyakin eaten tzen ardua, orduan etzen sea botilla ta, orduan porroya, porroi bat ardo atea niyoten, esa niyoten, “mutillak, ni itxea niek” ta itxea jun da oyea sartu attakin, bai, bai, sarrena ni baintzan, ta ni naisuen eukitzia, konprenitzen? Bai, “ataques epilépticos” ematen tzioten da, ua emateko bildurra, arek beti bildu... arekin beti bildurra.

Trintxerpen zein lan egiten zenuen?

Terranoban ibiltzen tzien leatzetan bakarrian, baño geo asi sien Terranoba, sesenta, sesentauno o, sinkuentaiotxo o, ola, sesentaino, o ola asi sien, ta orduan Terranoba asi sien, ta Terranoban ibilttu sien aimbeste dembuan bakallotan, ua dena ondatu suten bakalluakin, arrapatu sittusten arriyak ebai, emenguak beti igualak isandu dia, eta geo oneako jarri ber tziela, Irlandako “costas de Irlanda”, sea, maruka ta sea ekartzeko, orko leatza-ta ekartzeko, eta bakallotta joateko, amateute sea, este, gatzakin, osea, almasena balitz besela, geo gatza emateko, eurrakin da jarriya, geo lanian asteko utza, toki utza, osea bakalluak gatza bota ta ua ustutzen dijuen besela bakallua jartzeko, ta geo im ber tzen, orrea, Irlanda juateko im ber tzen, nebera im ber tzen, izotzakin, osea, frigorifiko bat balitz besela, ta onea ekarri genittun iru barko, iru urontzi onea, seara, este, astillerota, ta astillerua, astillerotan artu sun Intxauspe o ixtoriyak, astilleruak eta, artu sittuen eta, nei jarri siaten “como cabeza de serie”, an ua seatzen, organisatzen, bijilatzen, ta sean, “por el otro”, an etzun iñorrek eser itten, artu nun nik ne regla ta ne metrua, ta saltzan ni asi nitzen,

dena organisatzen, jo! Ata sen de marabilla, atea sen, iru urontziyak astillerotan in etzutena orduan, seatik panelak, oik panelak emate ttuste, panelak o, ol batzuek, sea, orisontal, sea itteko, este baldak itteko, apalak itteko, ola ta geo ixteko, mate ttuste sea batzuek, este, postiak, o, sea batzuekin, lau aldetan, emen sea bat, tarte bat, emen bestia ta emen bestia ta, emen bestia, ta or sartzeko panelak, sea itteko, eta panel oyek denak igual itteko ua im ber tzen dena kalkulatu, postiayek denak im ber tzien kalkulatu, panelak denak igual baliyo isateko, es sea, po ejemplo in au emendik ara ta geo, aurrekua ttikiyak geldittuia, es, es, es, denak iualak, e, denak iualak geldittu biar, eta geldittu sen dena “de marabilla”.

JUAN JOXE ZABALETA (1923-V-06 / 2000-XI-06)

Eta sagardotegira?

Es, ni saardoteira-ta, es niyun joaten. Basarritan ta battuken saardoteyak ordun baño, es, ni saardoteira es.

Hemen ohitura handia zen ba?

Bai, oixe, kaliane, saardotei asko gaña Leson orduan. Jo! Gerraonduan ni goatze nak,..., nola ibiltzen tzen saardoteitik saardoteira jendia. Or saardoteyak asko ttuken, Txerrimuñon de saardoteya yuken, kalea re, Gure Bordako seortane bai ta, Sanjuan kaliortane bai ta, saardotei asko yuken.

Gerra etorri zen eguna gogoratzen al duzu?

Bai, gerra derrepentian torri yun onea ta, emen kaleko seoyek, bakik, erdi kastillano ta, kastillanuake battuken franko ta... kotxia koltxoyakin brindatu ta ayekortan eskupetakin, sartu ttun, ta atzeatu in ttuken seakuortan, Irunen Sarmartzialea etorri siela ta atzeatu in ttuken pixkat biño demboa gutxiako in tzitteken. Geo bera ta, aik bera, onea torri sienian gu kalea biali basarritik, beak jarri basarriyan, dena beentzako, bestiai kontra itteko tiroka ta tiroka aitzeko. Basarriya jo ta txikitu zitteken, biño etziguteken erre ba guri, Errekitxe basarriya, sea, erre in tzitteken ua seana baisen, Mondaisena o, jende aundiyana sen basarriyua ta guk, berris, ordun eosi berriya geniken basarriya... ola, ta guri osoik utzi siguteken, erre gabe.

Eta gerra ondoren?

Bua! Gosetia galanta etorri, ogiyik-eta es siguteken ematen ta, gosetia etorri, Frankon garayian, "el año cuarentaiuno" esaten tzio-teken, beti, gosia, ogiyik es ta gosia, etzekit senbat urte iraun tzun, iru bat urte o, aguantatu siken gosiak. Ogiya pixkat asi sen garayian sen, es genian pentzatzen limisikuan geyo jango genunik ogiyik, eta oan, berris, oan okerro niok ni, ogi earra eman da jateik es, oi trixiouk oandike. Ordun sikera, gaur espada biar akaso jango yeu baño, oan es. Es oan ta es geo, au tristiouk.

Baserrian moldatuko zineten nolabait, ez?

Bai, limisiko urtian es, miño urrungo urtian artua in geniken, ta artua errota emanta, limisiyan kendu itten tziuken emanta karabineruak, eta arrapatzem baute kendu, ta ola ibiltzen ttuken, kontra-andua, Lesotikan Lesaka-ta astuakin, artua eman ta iriña ekartzea errota, Endarlatxa-ta, ola ibiltzen giñattun puxkaatian, ogiya gallendu sen arte, biriane kendu itten-ta ola, bildurrak amorratzen.

Nork kentzen zizuen bidean?

Karabineruak, guardiasibillak-eta, ordun... puf! Bijilantzi aundiya.

Baserrian kalean baino hobeto, dena den, ezta?

Bai, kalian dembo geyo..., guk sikera artua in genunian, talua, talua in ta jan, iriña ekarri ber tzun errotatik, iriña ekarri ber, artu ta, joan ta, iriña ekarri. Bildurrak ibiltze giñun, Endarlaza-ta, jendia-ta, Naparroa juam biar astuakin ta iriñan billa.

Eta Lezon ez al zen, bada, errotarik?

Es, Oyartzunen bai... baño, Oyartzunen battuan iru o lau, Biurna ta, Txalaka ta, sean ebai bestia, Uarteko errota, Ergoien, battuken...

Meipin zein lan zenuen bakallotan?

Meipira bakallotan ta jelafabrikan limisiko. Bakallotan? Bakallua deskargatu ta, karga-deskargan.

Bakailao ugari izango zen?

Bai, or isaten ttun urtiak bakallua errus tortzen tzena, parejak, leno, Pisbeko pareja joaten yun, Pisbeko barko aundiyak bakalluta, etzekit sembat isango siem ba, dosena bat o, ta geo asi ttuken parejak, emen freskua asi senian pixkan bat bajatzen o bakalluta jua ttuken parejak... Krixton bakalluak ekartzen tziskitteken limisi. Deskargan aundiyak eta asko, barkuak kargatuak bi illabetian-ta, kargatuak etortzen ttun, biño ua re urritzen joan yun, ta geo askenian, askenian barkuake gutxitu ta, oan etzekit, oane isango ttuk... baño asko es.

Eta gainerako lezoarrek non egiten zuten lan?

Baserriyan ta, Papelerane asko Lesoko jendia asi yun, baserriyane bakik iru o lau seme ta denak esim ba, ta al tzen tokira, Papeleran

ta asko aitzen yun baserritarra papelerane asko, ta alkoleran ta oita jendia, basarritako jendia aitzen yun lanian.

Normala al zen baserrian eta lantegian batera aritzea?

Bi, bitan aitzia, basarriya pobria sen, oan besela.

Eta basarritik bakarrik bisi senik bai al zen?

Bai, battuken miño, battuken miño asko es, bertan bisi sienak baka-
rrik, asko es, alen batzuk. Geo, ordun, garayartan, basarritan jende
asko yuken, gaur es, orduan matrimoniyuak sei-saspi semealaba
isaten tziskitteken, oam, berris, oan estuk,... oañ estuk.

Eta gaztetan nesketan aritzeko nola ibiltzen zineten?

Es giñun gu nesketa arrimatzen. Iandetan joatem bagiñan Iruna,
billarak itten tziem ba, sean. Nesketa, ara billera joaten giñun ta,
ta an neskaatzukin, isautu... aikin dantzan-ta, puxkaat ibilli ta,...
itxea, arratzian, udapartian, sea, Irundik Lesoa oñes.

Neskaren batekin?

Es, es, bai! Neskak an bertakuak ttuken, emengo neskak ettun ara
juaten. Emengo neskak Txikierdira ta, or Errenteiko Kalle Biterira
ta joaten ttuken gabian o, ta gu Iruna joaten giñun, sea, Xoruan ta,
Extebane ta billarak an ta, udapartian bakik amarretan argi ta,
topua askenekua amarretan Irundik.. Errenteira ta ua utza in, ta
geo oñes Irundik, pixkaatzuk ean, bette-bette in ta balantxaka-
balantxaka kamiyotikan etorri yai kamiyuontan Irundikan oñes,
Irundik Lesoa goisian, ordubik aldian, ordubik aldian, an trambia
utz ein da andik aurea, amabiyak abitzeko ta, oñez, itxea oñes
makiñaat pauso trixte emanak. Geo goisian torri itxea, ta oyea joan,
labak aldian o, irutan o, al genunian, bosterditan geo beyak jextea.
Beyak jextea joan, ta beyik esin jetxi, lo artzen loaliakin, beyan
sean, errapian lo artzen. Ola pasiak ttugu geen demboak. Geo nois-
patte gu re eskondu giñun ta, eskonduta re bixi. Lanea jun fabrika
ta, dirua gutxi irabasita. Etzen es ordun kotxeik eta olakoik, bisi-
kleta xarra noispatte, bisikleta xar batekin.



JOXE MIGEL TREKU (1920-X-05 / 2000-VI-13)

Bomba bota sutenian, orduan il tzitteken Felix Arriaga, ni orduan seara nieken, attak bialduta, erramolatz billa, Erribera, Erribera deitzen genioken, or pintura fabrika sen... bi, sean, trembirian ausko aldetik eta guk onuskaldetik geniken baatza, miño batzuek bazitteken auskaldetikee, urai kenduak, baño baatza onak ttuken, e! Joee! Ta ara erramolatz billa, attak bialdu sieken, banieken sakuakin, orduan urixkiñatikan, fuuuu, bunba! Sea, egualdi earra yuken, ustailian, ustailan itten tzela usteit, bakasiyuakin giñattuken, jayakin giñattuken, orduan ematen siskiguten jayak, bai, bueno, ba, nijuela, bruuun! Euntalako soñuak! Andakoño, ser da au mutillak! Limbisiko bomba... E? Geo, geostikakua yuken seoi, almejetakuoi, geostikakua, joan niyun, saku ta gusti, nun ote da ta sea, jo! Ordurako ya, ni joateako, ya seatua o, ya illa, seoi, barren-derua, Felix, eta be illoba, sea Experantza, bai, Experantza, be illoba, illak, ta txurrero bate bayun orduan, ta uare, saurittua, ta beste nexka bate, etzakit illa, o, enak ondo goatzen, nexka batei re serbatte pasa sayoken, euntalako sulua utzi siken or, espaloyan, e! Sentro republikanuan onduan bota.... Oan, noa bota suten etzakiyeu, baño, ttaka! Antxe, ta, ño! An tokatu barren-derua, isketan... bai, barren-derua, baño, be illobakin isketan da abar, saldiya dena illa, saldiya karrua ta dena puskatua, ta oik denak ikusi nixkin, da geo, nik, itxea etorri niñun, ta esan nioken, denak enteatu giñattuken orduan, ta, geo berrise erramolatz billa joan im biar ba, karo!

Eta medikuak?

Meikuak? Joe! Meikuak oañ arte isautu ttutenak, bueno, urte askuan sea, Don Pedro Barrios, kastillanua, eniyun eoten ni, miño oso, sea, estimatua yun, alatagustise, juan itten yun ua basarrita ta oñes, takataka-takataka, ta saartuta re, itxeta deneta juaten yuken, sea, Don Pedro Barrios, oi, sean eondu yun apopilo, mutillarra sela usteit, enin seguru esango, bai, Indionekuak jakingo ttek, baita Gesalanekuak ebai.

Eta sendagile erdaldunarekin jendeak ez al zuen arazorik izaten?

Oixe! Oixe! Gue atta bat esin joango yun, etzin miñik isandu aske-neko urt... beñe meikoa... biño, in tzaun kontu ba gue attan moukuak, area juan ta etzekittek! Gue attak kastillanos etzakiken, ta gue amak esaten tzioken makina bat aldis, su beti kastillano tartian, or kastillano kudrillak baisian or, pintura fabrikan, geinak Errenteyan bisitze ttun miño orrea tortzen ttuken ta, kastillano tartian ta ik kastillanos ikasi es? Kalian gañian beti, ta eskolatik piper in, beti eskola joan gabe, bueno, ta, orduan aleya girua espaisen alakua, gue amak basakiken bai serbatte.

Eta alguazilak?

A! Aguasilla, bat isandu genin euskalduna, searte, ua re detenittuta eman tzitteken karlista selakos, arrek La Konstantzia artze siken, karlixtana, bueno, bai, biño euskalduna, Goyerrikua yuken, etzekit nungua, mutiltzarra, ua sean eote yun, Manuelenea deitze geniyon tabernai, nola esango nitek oaiñ, belardenda nola do oaiñ, or eote yun apopilo, or taberna yun orduane, ta Manuelena deitze geniote-ken, deitzen genioken, or eote yun bastoyakin, miño errespetua! Joe! Gaurko aguasil gusiyak miño geyo! Joe! Sakurra re basiken angua, bertako tabernakua, Mokre siken isena, Mokre, arrek in ibiltze yun, sakurrakin beti, bo, sakurrak segi itte sioken ta karo, ta joño! Ikuste sigunian kamiyuan ola baloyakin o, baloya kenduta, joe! Ta potoketane, ua tortzen tzenian... aguasilla! aguasilla! denak eskapo, errespetua, oi gausa, e! Ta aguasil bat bakarra yun, serenoik es yun leno, geo nik esautu niken serenua, limbisiko serenua sea isandu yuken, a bai! Barkatu, bayun, bai, jarri sitteken, etzakit errepublika dembuan o aurretik, nola, ua eyun sea, abertzalia, e, Felix Arriagan illoban atta, sea, Sebastian Sein, oi sereno, jarri suten, or (...) gauero-gauero sereno, oi limbisiko serenua isautu nuna, geo Isetana, sea, Joxe Iseta, arreke, barrendero, ta sean i, sea, kamposantuan suluak-eta arrek itte xixkin, enterratu o, lurperatu ta, dena, bai, ta lenuotikane battuken geyore... bai, momentuan oi guatzen nak, e, aurrekuak esin esangoixkit oan, ya aurreatu nak eta, eta bueno, oi, oi isandu yun serenua... ta aguasillak orduan ya asi yuken aguasilla bat orduan, bat o bi, etzeit sembat jarri sittusten, bat aguasil tikiya deitzen geniyona, sea, naparra, ee, Paolanekua-

kin eskondu yuken, bueno, bai, Larral, or Estella inguruko ontakua, etzekit, ... euskeras esta pentzatu re, ta geostikan kastillanauak aguasil gusiyak, eta barrenderuake kastillanauak ttuken orduan, orduan emengo, emenguak etzitteken nai, bestela lana bai baisen orduan, ta oi bajesa iruitze sitzayoteken, gaur berris, Joder! Nola dien gausak e!

Lezon izen ona zuten familiak euskaraz ala erdaraz aritzen ziren?

Denak euskeras, gaur beste aldea gertatzen duk, gaurko senarremaste gastiak, bai nobiyotan diela, ta bai geore, erderas itte ttek beak, oi duk oi pekatua isugarriya! Orduan es, orduan es, es, eyun olako giroik, nei esan tziaken batek kartzelan, lenuotik falangista isandua maño geo komunixta, ba, igual duk, esan tziaken, "Oye Treku, ¿Cómo piensas tu?, ¿Cómo "pensar"?, ¿En euskera o en castellano?, ¿Cómo voy a pensar yo? En euskera. ¡Jode, tenéis toda la razón del mundo para ser independientes!" esan tzieken. Oi goguan tzakat oandik, oi esan tzieken, orrekin esan nai nitek emen dena euskeras, pentzatu re es, esta, esta bikayua be espagnolista gusiyane gukin, sekulan, esta seatu re, intentatu o nola esango yeu. Bueno neskak asi ttuken emene lembisi erdaraa jotzen, importan-tziya emateatik, Errenteira joan ta, joño, euskeras de aitziorrek eta, e, dantzan o baltzian-ta ibiltzia, koño! Ba, neskak isandu ttuken aurrelayak, erdera seatu sutenak, ta bueno, oi bajesa iruitzen, sea, bai, baserritarra, kaxeros, ta ni beti ttikitatikan sei, joo! berris, se esangoit nik, erri maitasuna beti, ola.



XIXILI PIKABEA (1920-I-25) eta MANOLI PIKABEA (1925-IX-05)
(Manoli Pikabearen hitzak letra larriz)

Gaileta puskak jendeak eramaten zituela entzuna dut...

Bai! Bai! Saldu rebai itten tzuten. Saldu, saldu! Saldu, bai. Sea-tuak... galletak... falluakin etortzen tzienak, ala punttak autziyak, okerrak, o, bai... ola... ayek saltzen tzien. Kampotik etortzen tzen jendia Santokristoa, asko etortzen tzen orduan, oan es. Ta birian... klaro. Kotxeik eta esen oan besela. Pasiatzen etortzen tzien aberatzak, e! Ola, ta sartzen tzien asko Olibetea. Olibetea asko! Olibetea... "Galletas partidas" bai. Eta or, oain estankua den tokiyortan, or, or sien bi emakume, bat illa da, bestia bisi da oandikan, Lorentxa, oyek suten denda bat, josten tzuten ta...? Ta en eukitzen tzuten kandelak, maya ttiki bat kandela sintzilikanen sutela eta guk pasatzekuan "señorita guapa y bonita, un sos al aire" ta "¿Quiere uste velas, señorita, señora? ¿Velas? ¿Velas? Guek denea sartze giñan, ta ayek gu eoten bagiñan e, nayo. Geo esaten geniyon, Lorentxa! o Maria! Kandela nai ttuste, ta ala... ala. Gue dibertzizyua oi sen... Bai. Ta jaitan e batzutan lamperna dembua isaten tzen, ta gu pagenun laun bat, Joxe Leon Treku sen aita, eta alaba sun Nikaxi, nola unan sea... Sein du anaya? Joxe... Joxe Miel, Treku. Oyen attak eta amak... Attak eta ekartzen tzittusten lampernak, eta nei bintzat deitzen tziaten, ee, Nikaxi nola baisen launa, ba esen atrebitzen bea bakarrik, eta antxe jartze giñan lamperna saltzen. Xexto batian artzen tziun bero-bero-beruak, sako batian, xako garbi ta txuri batian sartu eta, xox batenak, bi xoxenak...

Jende asko etor tzen zen hortaz Gurutze Santura?

Bai, bai, bai! Askok! Uu! Kotxiak eta ibiltzen tzien, e! Bai, saldiyakin ta, e! Tortzen tzien, bai, bai! Uañ ya oitturoik estia eserre ta... deuses, biño leno gu ttiki-ttikiya giñala ta. Bodak e bai, bodak elegante askuak! Kampoaño... Miño orduan kampoaño itten tzen sea, e! Jartzen tzuten kampoaño alfombra. Alfombra! Loria e kampuan jartzen tzittusten, eta kotxe.. kotxero bat oso isauna genun guk, e? Bai. Gue amaita re an eoten tzen... ESKE, BETI BEA, Beti bea. Nobiyuakin ta beti kotxero bea sen, sar bat. Goatzen? Bai,

bai... Eta nobiyan kotx... Kotxia antxe oten tzen gure itxe onduan oan...? Ortze oten tzen ya aterarte. Ta se saldi ederrak! Ombre! Oixe! Saldiyak... Arratzaldetan ta bodak eta...!

Lezon jende aberatsa ezkontzen al zen?

Bai, bai, bai, bai! Asko isaten tzen, Balentzikuak eta Madrikuak asko ta Donostikuak eta bai, bai. TA MILITARRAK, eta... Zaragozakuak eta, militarrek eta... bai, bai. Oañ etorri sandu da, oañ in tuste, lengo... oañ dela amabost egun o ola etorri sien, ni elisan nitzan, torri sien aber erekiko niyoten sea, atia, itxiya do rejakin, ta esan tziaten: “ Ee... tu... ¿Está el párroco? Y, no. No está” ta “No, porque nosotros venimos, tenemos una boda de oro” “A pues” ereki niyoten atia eta sartu sien ta “Porque este ... hace cincuenta años se casó aquí, y yo mismo le casé”. Eta esaniyon “ Ta euskaldunak al tzeaste?” “Bai, bai, Donostikuak”. Bueno, iya esaniyoten; “ez al dakisute euskaras? Ta erdaras...! E? Bañan, ayek e an eskonduak sien, emen eskonduak oañ dela berrogeitamar urte o, ta orrea etorriyak, eta beak eskondu omen tzun gañea, ta apais arrek beak, eta an geldittu sien. Geo Joxe torri sen ta an geldittu sien.

Gogoratzen al duzue gerraren hasiera nolakoa izan zen Lezo?

Bai! Oi! Ikara... IKARA EARRAKIN, BAI. Ikara earra denak. Gu, baldakisu noa juan giñan? SE REFUJIYO GENUN? Ortzen, txabola oi... Nola Fernantxok du? Fernantxok eta sea? Or, or, OR GENUN TXABOLA POLIPAT. Baratza genun guk or, bai, ta txabola poli pat. Eta olluak eta eukitzen genittun an goyan ta, denak ara arratzian, sea, refujiyua! Maria... Basien or, Mar... MARGARITA ALBERDI NOLA? Ayen isebak or tzuten, ISEBAK ETA, denda. Oain nola do erboristeya? Bueno, or tzuten oyek ba denda, karameluak eta saltzen tzittusten, ta denak arrosayua erresatzen, denak... Maria neskasarra ta, Margarita... MARGARITA, MARIA TA KARLOTA. Karlota sien. Eta, IRU AISPAA, denak an arratzian e! Bai, seatikanen sartu im ber tzute-la ta asi sien Daitatikanen, ta or, kanpantorrian, Santokristo kanpantorrian, asi sien, sartu sien batzuek... estakit emengua sien Lesokua sien o kampotarra sien o ta tiroka asi sien. Kanpantorretikanen e erantzun itten tziyoten ta. Daitatik barrena sartu sien. Ta geo sartu sienian, ba Jesus, Maria ta Jose! Ui ama! Reketiak

eta denak... Oi! "Habla en cristiano! Ta estaki ser ta ... oo! Gui galdeska gue amai galdeska, aber se amaberjin, se amaberjiñen kapilla sen ua... ES AL DAKI... ES AL TTEK, ES AL TTEN OYEK IKUSTEN SANTOKRIXTO DOLA BERE BESO SABAL-SABALAKIN...? Bañon, ba reketiak... ba! Sea sien oyeke, oso onak, ona, onak, karlistak (ba!) onak eta geo emen asi sien geo emenguak, e! Desfiliak itten asi sien, eta obligatu itten tzittusten, e! Gure atta ta baratzatikanen inñulabarrian, desfiliak ittea, e! Leson or plasan, ta... Emen ta nonai isango sen, emen mintzat... desfiliak itten...

Alkateak eta denak aldatuko zituzten orduan, ezta?

Bai, bai! Uu! Bota sittusten goitik republikanoko, republikako, seak, Alcalá Zamoran retratuak-eta seosten nunbatte goiko ayuntamientoan ta damba! Ni goatze nas nola bota sittusten ta autzi ta aa... bandera republikanuak eta denak su... sutan erre ta denak desein in tzittusten, ta geo beak, estakit sein jarri sen orduan... Sein tzen lendabisiko alkatia? Estakit sein isango sem ba... Enas goatzen... Ni re es. Diburtzio, o?, ENAS GOATZEN. Estakit, estakitt seguru Diburtzio jarri suten o enas goatzen sein tzen alkatia lendabisikua jarri sutena. ARANJUELO TA TIBURTXIO TA OYEK EONDU SIEN GARAYAITAN.

Etxeetara sartu zirenean zer?

Bai, uu! Denak, lapurretak eta, bai, bai, bai... BAI, BAI REKISATU ITTE SUTEN. Maindiriak eta platerak eta bueno, dena beak, beak agintzen tzuten, dena. An sartu itxea ta ala! Gue itxea re sartu sien, e! Sartu sien, ikustea o bi..., bijilatzea o estakit serta etorri sien... Miño salan eukitzen genun guk Gernikako Arbola, aundi bat. KUADRO AUNDI BAT, ta euskaras, ta pikatu itten tzien... Esuten eserre in, e! Geo trabajadoriak etorri sien, trabajadore asko etorri sen. Oi jendia... Guk... e? Gerua... Geruo, trabajadoriak etorri sien, orko kamiyuak eta ittea. Bai, guk garbitzen geniyoten...

Nongo bideak?

Jaiskibelekua. Kamiyuak in tzittusten, bai gorriyak, gisajuak isango sien ayek (...) eta arropa asko garbitzen geniyon guk, gue amak,

Jesus Maria! dena debalde, e! Ikusten tzitteken alkandorak ta galtzak TA DENAK ESKIAN GEO, GIXAJUAK... Ta etortzen tzien ta, "Señora, me puede" ta, miño esin dugula, esin genula denai, esin genula ta, ai! Mesedes artzeko... Oixe komeya, artu berko sionat onei re... Gue amak, oso ona sen ta. Amaseira allatu isandu sen! Amaseira, e! Plantxatu ta dena itten genittun, ta esere kobratu gabe, e! eta Jesus! Ayek... Esakiten geo se in gaxuak. Oañik gero, geo re etorri isandu dia, eskonduta Madriko batzuek, e? Bai. Etorri sandu dia gue itxea geo. Bai, bai, bai. Asturiaskuak bagenittun. Bai. ASTURIANUAK. Geo... juate giñan, bakisu, Elena gue lengusua sen ta ayen itxea de juaten tzien trabajadoriak eta, inulabarretan ta, basakiyen jendiak garbitzen tzittustenak eta... Eta tallista sen eta estutxiak itten tzittun ta kapitanantzako ta, estutxiak eta itten tzittun forratu geo sedakin, tallatzen tzittun ta geo... aspiyan jartzen tziskaken isugarrisko... Ola, kabron, estaki ser eta eta fuera... ta an aspiyan, aa! Geo forratu ta yasta! FORRUA JUATIAN IKUSKO SITTEKEN. Bai, bai, bai, ala, e! Kabron, estakiser, tolako gausa jartzen tziskaken, egitian... Miño forruan aspiyan... Gixajuak! Amaika gose pasa siskitteken oik e... ! Bai. Gue Atzekoatian itten sittusten geo... seak, e! Or eondu sen, or eta bestia, sean, Ixkulin den ortan isango sien.... Bai, TA BESTIA, SUKALDIA, SATZA DON ORTAN. Satza don ortan, klaro. Or, or eoten tzien, or tzittusten sea, SUKALDIA BIÑIPIN, sea re... estakit se denuntziya sen, e! Ai! eltze aundi-aundiak eta ibiltzen tzuten ta ortik eamaten tziskaten ayei re basakayak eta...

Presoak izanik, ez al zuten ihes egiten?

Es, presuak, bai. Basittusten soldaduak... Basittusten! Txatxuas-kuak basien! Bai... Batei aman ayuntamientoa ta joka. Ta ematen tziskaten. Se deitzen tziyotem ba? Pinotxo. Pinotxo o etakit se deitzen tziyoten, sapetakuak ematen ta negarres. GUE ITXETIK AITZEN TZIELA ORRUAK. Mutillak negarres ta. Bai, bai, bai, basittusten soldado gaixtuak beak, e! Bai, bai, basittusten.

Elizan zer antzerki mota egiten zen erlijio gaikoak..?

Es, es, es, es, bestela, bestela, denetik. Basen... estaki se... Denetik itten tzen e. Batek kanta ta, kantatu re itten tziñenen.

Jangoikoaren esku altzua
isan dedilla gaur goratua
garbi-garbiro esagutu da
maite duela beti mundua
maite duela beti mundua

Seruko eguski beti pistua
Jangoikoaren begiratua
nais emen bisi erbestetua
nigan baisaitut es nais galdua
nigan baisaitut es nais galdua

“Zalaparta” antzeslaneko kantua:

Jangoikoaren amar agindus
gañera gorde ditzatzu
beste lauetan ta isango sera
ludi onetan soriontsu
sarrak ospatu ta ongi eginas
seure etxea maitatu
jokatzallea etzaites isan,
edanarekin es moskortu
ola euskaldunak egingo degu
Euskal Erriya goratu!

Poxpolin kanta bat

“Jesus au posa nerea gona gorri onekin
begira seiñen poliki dagon alosa obekin
aisiak jotzen duanean, ikurriña baidut diruri
trinka-trinketa, trinka-trinki,
nere gona gorri, gorontza orlegiya eta
trinka-trinketa, trinka-trinki
gorontza orlegiya eta gona gorri.

MELINTTON GARMENDIA (1922-VII-28)**Nolakoak ziren Lezoko jaiak?**

A! Jaya pai, Leson beti isanduuk, sea, jayak iteko pronto eon duk Lesoko erriya beti, beti, seatikanen nais Santrakruzak, eta nais Paskuak eta nais Sanjuanak eta denak selebratze ituken emen, denak itte ttuken.

Nola?

Fiestak, fiestak, musika ta, geo... gu esate genioken mertxeruak esate genioken etortzen tzienian puestuakin goyortan, Paskutan da, kantidadia jartze siteken, e! Es pentzatu sea iru ta, lau ta, bost, etortzen tziela, e! Kantidadia, goiko plasa dena batetze yuken, e! mertxeruakin, dena, gue osaba difuntua yuken, e! barrenderua, nere osaba difuntua, ua yuken, barrendero seon garayartan, eta arek itten tziskiken tolduak-eta jartzeko ta, egurrakin ta, txabola besela, ola, giyak, esta? Geo tolduak botatzeiskitek feriantiak beak eta to! Krixtom pilla..., goiko plasa dena bi alleketatik betia eoten yuken seakin, mertxeruakin, guk mertxerua esaten genioken, feriantiak ttuk, feriantiak, gaur feriantia esaten tzayok, es? Feriantiokin eta orduan ibiltzen yuken feriantioi, es gaur besela, sea, tela ta, fruta ta, gaus obek, orduan ibiltzen ttuken basarri kontuko seak, erraminta kontua ta, olakua dena, sega ta, bai, asko.

Hori gerra aurean ala ondoren?

Gerraurretik, gerraurretik, bai, gerran galdu in duk asko, miño orduan asko etortzen ttuken orrea Paskotako garayian, asko, e! miño jendia rebai, ta Gurutze Santuana rebai jende pilla erra etortze uan Naparro aldetikan eta, ortikan etortze uan asko onea, kantidadia. Emen, goiseko seyak, seiterdiyak eskeo asten yuken Errenteiko biriontatikan barra-barra onea jendia, ta eun gusiyan emen ibiltze yun jendia bueltan, biño kantidadia, e! etortzeuan kampotik, e! Geo gaste batzuk etortzen ttuken seatikanen, esan nai nin gastiak etorko ttuken asko, biño gaste batzuk etortzen ttuken, ben taldia etortzen yuken onea soñua jues Lesakaldiortatikan ta tortzen yuken onea, Iparraldetik ebai, biño Lesakaldekuoyek etortzeko Jaiskibelen barrena igual etortzen ttuken oyek oñes denak, kristom pilla, bai, girua ona isaten yuken emen, girua oso ona, esangoit dela, fies-

tak ite ttuken, esku-dantzak eta oyek, nais sarrak eta nais gastiak, eta solteruak eta eskonduak, eta gastioquak eta denak ite tzitteken orduan emen garayartan, Sanjuanetako garayan, ta suan bueltan ta, es, es, fiestak onak, Leso isan duk beti fiestatako pronto don erriya, bueno, ortan isugarriya isandu duk.

Eta gerra ondoan?

Eroi in ttuken ya jayak, gutxiyo.

Zertan?

Galdu, galdu, galdu, jendia re gutxiyo, jendia re gutxiyo, biño, es, girua gutxiyo, jaya, jaya besela Santrakrutzetan ta, Paskutan ta, serbatte, oandike serbatte itten yuken miño, geo ta gutxiyo jun yuken ori, bera jun yuken dena, kendu, kendu in tziteken, kendu o galdu, galdu, galdu in yuken inguru artan, gerra inguru artan, andik bera, oan atzea pixkat pixtua siok piño.

Nolakoa zen Lezoko bizimodua gerra ondoko urteetan?

Fabrikako kontuan, fabrika ta, gerraurretik besela, gerraurretikan yuken fabriketan lana in, ta geo sagardoteyak ttuken, orduan emen tabernaik es yuken iya, taberna au besela, au yuken taberna bat besela, gaiñekuan koperatibane bai, taberna besela, biño dendakin, bai, ta Indioniane bai, taberna bai, biño dendakin, ta Indioniak siken geo, Indionia esaten tziou, biño oan Aispea den oi, ostatus oi, esta? Orrek siken geo frontoya atzian, ta jendia orrea biltzen yuken, ta or ibiltzen yuken asko frontoyan, emen ebai, goyan ebai, goiko frontoyane, jende asko, gaste asko ibiltzen yuken orduan, gerraurretik eta ondorian ebai, ondorian... Goatze nak ni... Illarrike bai, an frontoyan tzabillela dieziotxojulioko garayartan, frontoyan tzabillela, Saguak esan tziaken, “mekauen, reketiak, i,” “Non?” ta “Goyenetxeaño etorri ttuk” “Goyenetxeaño torri diela?” ta “mekauen la letxe, batombat jarriko nuke or arboletik sintzilik nik” ta muiitu sela, ta kanpantorretikan nola aittu sieken tiroka, karabinero sar batzuek ttuken emen, ben, karabina esaten genioken, olako fusil aundi batzuekin, ta eskutik ateata or joan ta ibilli ttuken tiroka ta atzea joan ituken, amaika o battuken reketiak, biño orreaño etorrita atzea joan ttuken, or Saratxola o baduk, papelerako atzian, Oarso, Papelera Oarsoko atziortan, Lesoko basarriya dela usteit, Lesoko, pertenesitzen yola, Txaraxola...


Errenteiko muga or tziok, Oarsoko atziortan, miño ua usteit emengua dela, eta or il tziteken reketiayek orduan ama iru semekin.

Hil?

Il in tziskiteken bai, bayonetas pasa, guk kamposantuan ikusi genis-kin, bayonetas pasa suten, batek sea siken, ebilla, garayartan ibiltzen ttuken exurreskuak, inkurriñakin, ta igual, bestia lauburuakin, an sartu tteken batei, ama, seme bat esan tzitteken saukala, orduan iru librako ogiyak isate ttuken, ogiya españolanai, olakuai, iru librakua, olakua, bi ojetan, esan, bi oja doblatuak, es? Ta bestiak gasta osua sula ta, etxetik alde in tzutenak, esta? Biño an bitartian arrapatu ta garbittu, guk kamposantuan ikusi geniskiken aik, labak, ama iru semekin ta esaten tzitteken beste semia suela orduan Samarkon artillero, ta andik aittu siela...

La S^{ca}. ALITAS

saluda a los peregrinos



Ondorioak

LEZOKO EUSKARAREN
AZTERKETA

Ikerketa honen helburu nagusia Lezoko euskararen deskribaketa egitea zen. Egindako lanetik, ordea, zenbait ondorio atera behar direlakoan gaude. Ondorio mamitsuenak bi dira:

a.- Euskararen ezaugarriei dagokienez Lezon bi eremu ditugula dirudi:

– Herrigunea, geografikoki herriaren mendebaldea, Itsasoa eta Pasaia-Errenteriarri begira bizi dena.

– Gaintxurizketa aldea, geografikoki herriaren ekialdea. Oiar-tzun-Iruni begira bizi dena.

Bi eremuon artean antzekotasun handiak egon arren desberdintasunak ere sumatzen dira. Eremu bakoitzaren ezaugarrien uniformitatea erabatekoa dela esaterik ez badago ere, zenbait joera eremu bat edo besteari lotuago daudela dirudi.

Adibidez:

Ekialdean “sen” aditza (IZAN aditzaren 3. Pertsona singularren lehenaldia) da nagusi. Mendebaldean, berriz, “zen” nagusi den arren, “san” formak ere badu bere lekutxoak.

Aditzen pluralgiletan gauza bera gertatzen da, alokutiboan, ekialdean –IT- pluralgilea da nagusi (“nik isautu ttit (=ditiat) emengo seoik”) eta mendebaldean -IT- -ZKI-rekin batera agertzen da (“oandik estixkit sumatu”).

Kontsonante bilketetan ekialdean $n+t > nt$ izaten da ia beti (“esantako”) mendebaldean, berriz, joera hau nagusi baldin bada ere, ez da beti betetzen eta batzutan $n+d > nd$ gertatzen da (“esandako” / “esantako”; “joantajoan” / “joandajoan”).

Hiztegian ekialdean mendebaldean baino presentzia handiagoa du ekialdeko euskalkietako lexikoak. “Gotti”, “betti”, “eya”, “tenore”... hitzak ekialdean mendebaldean baino maizago agertzen dira. Bestela esan, mendebaldean forma horiek “gora”, “bera”, “ukullu”, “garai” hitzekin lehian daude, ekialdean, berriz, ez dirudi halakorik gertatzen denik.

Soinuak ebakitzerakoan ekialdean /ts/ eta /z/ fonemak /tz/ eta /s/tik bereizten dituzte, mendebaldean, berriz, nekez.

Deklinabidean, ablatibo kasuan, mendebaldean hiru forma erabiltzen dira,

-TIKAN, -TIKANEN eta -TIK; ekialdean, berriz, bi, -TIK eta -TIKAN. Mendebaldean -TIKAN eta -TIKANEN dira nagusi.

Ekialdean Oiarzungo hizkeran horren ezagunak diren bokalismoak entzuten dira, mendebaldean ez ordea: aparatuk > aparatuk. / gaintik > gaintik / orduan > ordun / batian > batin...

Bestalde, ekialdean mendebaldean baino maizago eta kasu gehiagotan gertatzen dira aferesiak aditzetan: ikusi / kusi; esan / san; etorri / torri; ekarri / karri; eman / man.

-k-dun hitanoko formak mendebaldean ekialdean baino sendoago ageri dira:


“in niken” / “in nin”.

b.- Lezoko euskararen osagaien artean ekialdeko eta erdialdeko euskalkienak daude. Bistan da bi eredu eragiten dutela Lezoko hizkeran eta bien arteko lehia dagoela. Ez da zaila jatorri bateko eta beste ezaugarriak nahasten dituzten hiztunak topatzea. Lehia horretan badirudi ekialdeko ezaugarriak ari dira gertatzen galtzaile.

Lehia, jakina, hiztun bakoitzaren kasuan era desberdinetara agertzen da. Hiztun batzuek eredu bati edo besteari sendo eusten diote, beste batzuek, berriz, bietako ezaugarriak nahasten dituzte. Esaterako, ekialdeko hiztunek eta emakumeek orohar ekialdeko ezaugarriak hobeto gordetzen dituztela sumatzen dugu, aldiz, badirudi mendebaldeko gizonezkoen artean ohikoagoa dela bikoiztasunak topatzea¹⁷.

¹⁷ Gai honi buruz gu baino jantziago dagoenik aritu izan da. Adibide multzo zabala eta azalpen mamitsuak topatuko ditu irakurleak Koldo Zuazoren «Oiarzungo hizkeraren kokagunea» izeneko lanean (Fontes Linguae Vasconum (1997)).

Gauzak zehaztasun osoz esan ahal izateko ikerketa honen neurria gairik duen beste ikerketa baten beharra dago. Esandakoa esanda, ordea, sumatu ditugun joerak, bere neurrian hartu behar badira ere, aski zuzenak direlakoan gaude.



Ikurren zerrenda

LEZOKO EUSKARAREN
AZTERKETA

> kur honek bilakaera, aldaketa adierazten du, jatorrizko forma batetik gaur egungo baterako saltoa adibidez. Ikurra alderantziz jarrita berriz, oraingo formatik atzerako bidea erakutsiko luke <.

* Ikur honek dokumentatu gabeko edo birreraikitako balizko forma adierazten du. Gure kasuan Lezon dokumentatu gabeko forma ere adierazten du, bai baitira tartean beste lekuetan dokumentatuak egon arren, herrian agertzen ez diren formak. Halakoetan ere izartxoak paratu dugu.

() Parentesiek esanahi ugari dute. Liburu honetan batez ere esanahi bat dute: parentesi artean ageri den forma, letra edo delakoa batzuetan ageri dela eta beste batzuetan ez.

[] Makoen arteko letra edo forma IPA, alfabeto fonetiko internazionalaren arabera transkribatua dagoela adierazten du.

/ Bi forma edo letraren arteko txandaketa edo alternantzia adierazten du.

(gazt.) Gaztelaniazko forma adierazten du.

Ø galera adierazten du.

-Formen bikoiztasuna adierazten du batetik; ad.: gora-gotti. Fenomenoak azaltzeko orduan formak ordezkatzeko ditu; ad.: e-u >i-u eduki > iruki, tarteko kontsonantea ordeztu du formulazioa egin ahal izateko.

-x- Bi marratxoen katea mintzatua edo jarraikortasun fonetikoa adierazten dute.

-z + z- > -tz-

-x Delako elementu hori, "x" aurretik beste bati loturik dagoela adierazten du.

x- Delako elementu hori, "x" ondotik beste bati loturik dagoela adierazten du.

a / b > c - Euskara batuko forma / euskalkiko abiapuntua > forma bilakatua. Ad.: daude / dagozte > doste



Bibliografia

LEZOKO EUSKARAREN
AZTERKETA

AZCUE, Resurrección M^a de (1969): Diccionario vasco-español-francés, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.

BONAPARTE, Louis-Lucien (1863): Carte des sept provinces basques montrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes sous-dialectes et variétés, Londres.

EUSKALTZAINDIA (1985): EGLU I. Iruñea.

EUSKALTZAINDIA (1987): EGLU I (Eranskina). Bilbo.

EUSKALTZAINDIA (1987): EGLU II. Bilbo.

EUSKALTZAINDIA (1990): EGLU III (Lokailuak). Bilbo.

EUSKALTZAINDIA (1993): Euskal Gramatika Laburra: per-paus bakunak . Euskaltzaindia, Bilbo.

ELHUYAR-ELKAR(1994): Euskal Hiztegi Modernoa. Elhuyar-Elkar. Donostia.

FRAILE, Idoia & FRAILE, Ainhoa (1996): Oiartzungo Hizkera, Oiartzungo Udala. Oiartzun.

GOROSABEL, Pablo de (1971): Diccionario histórico-geográfico-descriptivo de los pueblos, valles, partidos, alcaldías y uniones de Guipúzcoa con un apéndice de las cartas-pueblas y otros documentos importantes. Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao.

LEWANDOWSKI, Theodor (1986): Diccionario de Lingüística. Cátedra. Madrid.

MICHELENA, Luis (1977): Fonética histórica vasca, Diputación Foral de Guipúzcoa, Sn Sn.

TXILLARDEGI (1982): Euskal Fonetika eta Fonologia, Ediciones Vascas. Donostia.

URQUIZU, Patricio (1996): Gramática de la lengua vasca, Cuadernos de la Uned n° 155. UNED, Madrid.

YRIZAR, Pedro de (1981): Contribución a la dialectología vasca I,II, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, Sn. Sn..

YRIZAR, Pedro de (1991): Verbo auxiliar alto-navarro septentrional (I-II), Euskaltzaindia-Nafarroako Gobernua.

ZENBAIT EGILE (1993): Lur Hiztegi Entziklopedikoa, Elhuyar. Lizarra.

ZUAZO, Koldo (1997) "Oiartzungo hizkeraren kokagunea". Fontes Linguae Vasconum, 76. Alea.

ZUAZO, Koldo (1997) "Euskalkiak Gaur". Fontes Linguae Vasconum.

BERRIOCHOA, Valentín (1962): "El vocabulario inédito de Zubigar", Euskera 7. alea, 43-54. or.

MICHELENA, Luis (1962): "Apostillas de un renteriano", Euskera 7. alea, 54-58. or.

ZENBAIT EGILE (1995): Lezoko gida-liburua, natura eta giza lorratza. Lezo, Lezoko Udala.

